








M - 15372

R - 8018

A.T.V.

6145

SUPAZTER CHOKOAN



N. - 15872

R.

A.T.V.
6145

JEAN BARBIER



SUPAZTER CHOKOAN



BAIONAN

A. FOLTZER IMPRIMATZAILEAREN BAITAN EGINA.

—
1924

REDACTED CHOKO



AINTZIN SOLASA



Eskual-Herria, Eskualdunak hainitz aipatuak dira aspaldi luntan; soberachko behar bada, edo bederen, guk nahi ez bezala.

Eskualdunak, bethi, ongi ethorri egin dio arrotzari, arrotz hura bere terroño hartan eta behar den neurriaz barnago sartu gabe agertu zaiolarik.

Zoriguitzez, orai, arrotz horietarik asko sobera aitrebituak ditugu.



Batzu heldu zauzku, Eskual-Herriaz osoki jabetu beharrez, Eskualdun hurra, pozika pozika iretsi beharrez, Eskualdunak bethi, ta urrunago, mendien oinetaraino beren aintzinean igorri beharrez. Itsas hegitik eta lehen ibar-zelaietaraino, hemen asiki, han klaska, sartzen ari zauzku, Aleman higuina tenore batez Frantzia-ipharrean bezala. Eskualdun laborari etcheak, bat bertzearen ondotik, intzire-karraska batean, hurrerat badoazi, oihanetako haitz handiak erroz gora doazin bezala. Eta, gure bethiko etche churi eta nasaieen orde, non nahi atchatuak hor ditugu aderailuzko jauregi pampina batzú, behin bethikotz uzkailei alhor, landa eta elge maileez bur-latzen ari direla. Eta, orduan ikusten da, Eskual-Herrian behin ere oraino ikusi ez den gauza bat, nigar-egingarria: alhor hetan higatu Eskualdun umeak, ohilduak, badoazi, batzu, goseak ez hiltzeko mendietarat ihesi; bertzeak, hirietarat, lantegi batzuetan beren osasun ederraren chahutzerat, edo iguzkirik eta aieririk gabeko etche batzuefan, erdi-goserik bizitzerat eta... hiltzerat.

Satorrek landa bat bezala, jauregi horiek hartzen ari daukute Eskualdun aurkintza bat osoa, gero eta barnago aztaparka sartzen ari baitzauzku.

Eskualdun etcheko jaunak, Eskualdun lur gizenaren jabeak, ohart zaizkote sator-lan izigarriari! Edo, bertzenaz, bethilik Eskualdunik baizen ikusi ez den tokietan, ez da arrotzik baizik ikusiko. Non diteke orduan Eskual-Herria, non Eskualdunak, arrotz heien guzien erdian?

Gogor egiozue Satorrari! Eta orhoit, zuhurra balimbaduzue, marduko diru-paper pullitenak zure etche churia, zure lur gizenak

ez dituela sekulan balioko! Urtheak joan, urtheak jin, — guhau-
rek ikusi berria dugu eta — mehatzen eta hiratzen dira paperak,
ontzen eta gizentzen aldiz iguzkiari begira dauden ontasunak.

Bat egin beraz guziek, eta arrotz jalamaniari erran, gure haurrek,
orai hameka urthe, etsaiari bezala: « *On ne passe pas!* »

..

Gure lurrez, gure etche maiteez jabetzea ez askiz, nahi izan dira
gero bertze batzu jabetu... *gutaz*, Eskualdunec berez. Deputatu
edo auz'aphez, politikero tzar, gure nausi eta buru nahi zuten, eta,
zorigaitzez, nahi dute oraino, zombeit herrietan.

Horiek deithuko ditugu, ez gehiago *Satorrak*, baina bai *Arra-
noak*, gure adichkide Oxobik erran dioten bezala. Arrano horiek,
aztaparrez hartu nahi laizkigukete gure haurren arimak, gure gaz-
teen bihotz garbiak, gure sinheste hazkarrak, Eskualdun ohitura
guziak. Eskualdun makilak eskuan, oro bihurturen gitzaizkote
arranoeri. Eta — Oxobik ez dakiena behar bada, Ahunchkiko
mendietan behin baino gehiagotan gure begiz ikusi duguna,
— orhoit bethi, ahari *hilar* baizik ez diola arranoak begirik,
edekitzen sekulan. Ez gira hilak oraino Eskualdunak, eta beraz,
kontu, arranoak!

« *Zuer buruz, Jaunak emanak
Baitugu azlapar onak!* »

Adichkide ? Bai. Baina, *Nausi* arrotzak ?... Ez!!! Arrotzez
batere behartu gabe, gurez gure, gizonik aski badugu Eskual-Her-
rian.

..

Aiphatu behar othe ditugu gero bertze arrotz batzu, kapelu bat
buruan emanik, ezpartin churiak aldiz zango tchar batzuetan,
Eskualdunak zinez direla iduritzen baitzaiole, eskualdun makila
bat eskuetan zeren duten firurikatzen ? Hirri egitea ginduke ho-
rietaz guzietaz, gure haurrek, gure gazteek horietarik zombeiti
ikusi eta ikasi behar ez baliote asko molde hits, asko ahapaldi tzar,
ergelkeria sobera!

Zer egin horieri buruz ? Ahal den guzi guzia. Gutartean ere ba-
dire, zombeit aldiz, eskualdun arnegatuak. Zer egiten ere baitugu
eta horieri buruz, hura bera egin aiphatu arrotzekin. Begira heta-
rik, pozoin-belharretarik bezala. Erromano eta bertze, batere heien
kutsurik hartu gabe, oro iragaiterat utzi ditugun bezala lehena-
goko mendeetan, utz iragaitera oraiko kabaleria hoi, bertze nora-
peit — agian — joan diteken artean. Eta, hortako, *Eskualdun
egon bethi, bethi eta gehiago Eskualdun!*

..

Eta zerik egiten du Eskualduna zinezko Eskualdun? *Elizak, Etcheak, Hil-Herriak, Mintzairak*. Horietan datza Eskualdun ari-
ma guzia.

Begira... Elizan, Etchean, Hil-Herrietan hartu guzia: sinheste, errespetu, Jainkoaren beldur eta amodio. Horietarik deusik ez erain sekulan arrotzaren aintzinean eta haren beldurrez.

Bainan, begira oroz gaineratik gure *mintzaira*, Eskuara; eta Eskuarak gu gaitu begiraturen, pareta hazkarrenak soldadoa egiten duen baino ere hobeki.

Orotan bekaizti dire gure Eskuara ederraz. Eskuara murdukatu nahiz, hirri-egingarri ere ari zauzku arrotzak. Eskualdunak bakarrik othe dire bada mintzaira hortaz ahalketuko? Ahalketa bai, bainan ahalketa Eskualdun horietarik zombeiti, zeren duten beren *ama* itsuski hola ukatzen!

Frantsesek Frantsesa bezala, — zorigaitzez — nahiz ez duten Eskualdunek Eskuara eskolan ikasten, bazindakite ongi, Eskualdun laborari maiteak, zein hunkigarri, zein eder, zein handi zaizten, *eskuaraz* mintzo zaiztelarik! Zein ederki derabilkazuen eskuara hoi, zeren den zuen mintzaira, sortzetik zuen odolean du-zuen hura!

Bazindakite, hala hala, zoin herrebeski ari d ren zuen haurretarik zombeiti, bereziki neskatcha batzu, urthe pare bat edo gehiago hirian egonik, herrirat ethorri eta, *frantsesez* — beren ustez — haslen zauzkularik! Zer *frantsesa*, heiena! Ez frantses, ez kaskoin, ez portugés! Nik ez dakit nongo mintza-moldea duten hura... Ez beñi Frantziakoa!

Halako pampina bat ethorri zitzautean egun batez, bere *espos-mezari* buruz behar ziren zer guzien chuchentzera. Han nuen beraz nere pampina, paparoa zabalik, berrogoi'ta hamar liberako galtzerdi-sedak zangoetan, Afrikako moro-belteh baten soin teharra belhaunelaraino heltzen ez zitzaiola, besoak sorbaldetarik behera-chago doi doia kukutuak. Boketa-latsera edo bachera garbitzera zoakela erranen zuen gure Amacho zenak — Jainkoak bere lorian duela!...

Eta, nere pampinari ahal nuen bezala behatzen nioen aldi guzian, ez nezaken burutik igor, haren ama chahar maiteari, bezperan oraino, bizkarrean ikusia niola errege Salomonen demborako soin bat ferdea, bainan ferdea, muskerra!... Haren beraren aitari aldiz, galtza batzu, asko landetako mamu edo marika batzuek ez baitzuzketen nahiko bele-fiken iziarazteko ere.

Eta futcho, Frantsesez baizik ez ari nere pampina!

« Mézié le Curé, je viens pour marier.

— Ederki; zerbeit holako aditua ere nintzen.

— Oui, je voudrié pour le vint et deuss de mois d'Abril.

— Ontsa da. Zuk nahi bezala eginen dugu. »

Eta, briepola, nere jakitate guziarekin, nik hura ezin eskuaralatu eroraraz !

« Je vous erremereie bien, Mézié le Curé.

— Eta zerika duzu zure jauna, zer lanetan ari da ?

— Oh ! il a une très bonne emplacement. Il est *gardabil*. »

Soberakina soberakina da, ez dea hala ? Hirria ezin gehiago atchikiz, ezpainak mehe mehea, erran nion beraz :

« Oh ! haurra, zure *frantses zerratu* hoi ezin dezaket urrunago segi. Eskuara baitakit hobekiago, emazu othoi eskuaraz, *ene gatik*... »

Gorritu zen pichka bat, eta nombreit han eskuaraz bururatu gintuen gure solasak.....

Soldado banuen, orai duela bultatto bat, nere muthil-gazte bat ona, prestua, bainan frantses tuntik ez zakiena. Hazpandar lagun bati eginarazten ziozkan bere letrak oro, eta ederkieiko oraino. sinhesten ahal nauzue.

Noizetik noizera, diru zerbeit igortzen ere nion, gogo onez. Huna egun batez nere Eskualdun gaizoaren ganik izan nituen lerroak, hitzez hitz hemen emanak :

« Meusier lé Curé, jé rezu lé menda, et jé vou merz bien. Mè, aparti ce joure, jé voudré qé vous écririé en francé o lié basq. Jé mé port très bien. Adié. »

Egun hartarik harat, ene soldado gaichoak ez du ez dirurik, ez letrarik izan bere Sempertar adichkidearen ganik. Eta, erran behar balimbadul, etzen ene diruaren beharretan ere, baitzopada...

..

Eskuaraz mintza gaiten ! Gauden Eskualdun ! Etchean lehena ez othe da hobe, ezen ez eta auzoan azkena ? ! ..

Laphurtarrez eta bardin Bachenabartarrez, huna beraz liburu bat, dena Eskuaraz. Behin bederen, haimbertze frantses hosto churiren erdian !

Eskual-Herriarentzat, Eskualdumentzat dudan amodio guziaz belhe dut bururen-buru. Dohala gora, dohala barna, eta eskuratu-ko duten guziera, agian oraino gehiago, maitharaziko diozkate Eskuara, Eskual-Herria eta Eskualdunak !

J. BARBIER.



SUPAZTER CHOKOAN

ZIKIRO AZPIA



(LEHENAGOKO KONDAIRA)

A SPALDIKO adichkideak ziren herri hartako Jaun Erretora eta Jaun Errienta.

Erretor bat! Nehun guti baitzen halakorik. Ona, Itsasuko gereziak eta Kamboko bichkotchak bezembat, edo Ezpeletako hachua eta Sempereko makallaua bezembat ere. Bihotza ahurrean eta moltsa chilo chilo chilo. Hots, eliza gizona osoki, eta gizon *gaitza*! Nola ziteken bertzela? Bi berga oihal, edo hurbil, behar zituen eta, zangoetarik lephora, guziaren estaltzeko. Boza zuen bakarrik hala hulakoa; ez, nahi baduzue, makurra ere, bainan, hola, pitta bat... ochkeduna.

Jaun Errientak, oh! harek! bazuen boz bat pullita, leguna, sutik athera kruchpetak bezen beroa, Makeako ezti gochoena bezen ezti, batre zerra-ochkerik gabekoa. Bainan, gero, deus guti zuen onik gure Jaun Errientak. Alafede ez zela Sempereko makallaua, Ezpeletako hachua, Kamboko bichkotchak edo Itsasuko gereziak bezen ona! Ahurra zuen harek bihotzean, eta Bilbil *Errienta* deithua zuten herrian. Hots, gizon ttiki ttikia osoki, berga bat oihalek estaltzen zuen gizona.

Erran gabe doa, elizako *chantre* zela Bil-bil Errienta. Loria zen haren entzutea, bai igandetan, bai chorzt-egu-

netan. Haren dolamen pullita herriko etchek'andre zabal-
ño bat ehortzen zelarik! Oi, orduan ofizio edo elizkizun
luzea, hunkigarria zinez!

Bere boza bezen churia eta leguna ere zelakotz, igande
gehienetan, bazkariz gomit zen gure Bil-bil. Jaun Erre-
toraren etchera. Eta, bezperan edo biharamunean berak
barur egin edo eginen bazuen ere, Jaun Erretorak baz-
kari ontto bat emaiten zion aintzineri, herriko arno go-
choenarekin, chikorerik gabeko kafeñoarekin. Ondokoak
eta oro, hots!

Herriko etchean *segretario* zelakotz, begi-gorri multcho
baten gainera, frango puska biltzen zuen Bil-bil Errien-
tak: dela oilo, oilasko, ahate eta pekada moko luze.
Bainan sekulan ez zitzaion gogoratuko, bere etchera,
ordainez, noizetik eta noizera ekarraraz zezakela Jaun
Erretor gaizoa.

Eta, egia erraitoko, hain ona ere zen Aphez maitea!
Ez deus bat aski, haurrek bezala, oro ongi kausitzeko.
Bi ahamenen artean, edo baso arnoa hustean, *Amen*
erran zezola Errient jaramanak, eta bazkaria aski pa-
gatua zen bethi, eta, Elizan hain maiz kantatzen ere zu-
lakotz, delako *Amen* hori ongichko ikasia zuen gure Jaun
Errientak. Musean partida bat gero, eta... bertze Igar-
deak arte.

*
* *

Eta zinez erranen zinduten, gauzek holachet irau, be-
har zutela bethi eta bethi. Debru bat eta erdi! Behia-
lako pegarra ere hautsi omen zen, bethi ithurrira joanez!
Beraz, debrua aiphatu baitul, debru bat eman zen tre-
bes gure bi adichkideen artean, eta, ilhaundu, suntsitu
ziren adichkidantzak oro!...

Hor, bi jaun handien arteko *bozkatz*e batzu hurbildu-
cheak izanez, ainichkoren gogo-biholtzak sumindu zi-
ren, eta herri osoak aspikoz goiti eman.

Gure Jaun Erretorak, hala ere egin behar zuelakotz,
ezti ezti eta gehiagokorik gabe, galdegin zioten herriko

gizoneri, beren egimbidea chuchen bethe zezaten eta gibrichinoki.

Erran bazuen erran, handik astea gabe jakinarazten zion Baionako Suprefet Jaun zilarreztatuak, paga khendua zitzaolola, zeren « *Errepublika arthiki beharrez mintzatu zen!* »

« — Arthiki... Errepublika ? To! arthik errecha duk horien Errepublika, phedeiku batez nik hola arthikitzekoa balimbada!... »

Eta irri baizik ez zuen egin lehenik Jaun Erretorak, Jainkoak, Aphezpikuak eta barneak laguntzen zutela kotz bere nahigabeen.

Bainan, gero, ahapetikako solasño batzu heltzen zaizko beharrietara. Orhoitzen da, phedeiku *lazgarria* bururatu zenean, Jaun Errientak, aintzineko igandean, ithoka, bi jauziz, bi ahapaldiz eman zuela *Credo* guzia, bururen buru, zintzur idor idor batean. Eta gero, bazkaitean, bertze aldietan baino biziki chuhurkiago erran zuela bere bethiko *Amen* pullita!... Hots, choria al dachka batetik bertzera bezala, elhe batetik bertzera, gogoeta batetik bertze gogoeta batetara, hor, eta dudamudarik batre gabe, seguratzen da gure Jaun Erretora, *Bilbil Errienta duela salalari higuina*, herri guziak ja begietan duen salalaria!...

*
* *

Sugerik nork egundaino hazi du bere etchean?... Jaun Errienta ez da gehiago charamelan ari herriko elizan. Bizpahiru gizon gazte eman dira, han, kantorean, eta inharros aldi onik emaiten diote eliza chaharrari, Jainkoak egiten dituen igande guziez!

Jaun Errienta ez da gehiago herriko segretario gichen; ordain bat eman diote, eta akabo pekada, ahate, oilo, oilaskoak!

Jaun Errienta ez da gehiago Jaun Erretoraren etchean gomit igandetean!... Pareta bat arte bizi baitira biak, etcherat heldu zaio aphezak bere kantari gazteekin jaten dituen aphairu onen usain michteriozkoa.

Zer bazkari gochoak harek ere... lehen! Ah! ichilik egon balitz bederen! Oh! aldi bakhar bakhar batez baizik ezipaliz ere, ez duela jastatuko lehenagoko erraki gochoetarik!...

Eta ezipainak milikatuz, igande eguerdi batez, bere baratzean harat huanat badabil Errient gaichoa, arima heratua iduri. Hiru hilabethe hartan ez du bertzerik egiten ahal, igande eguerdia ethorri den aldi guzian. Noiz arte pairatu behar othe du hoinen saminki?...

Eta hain chuchen, Jaun Errientaren sabeleko kurrinka entzuna zuela erranen baitzinduten egiazki, bi baratzeen arteko paretaren gainetik agertzen da, luze luzea, bi begi zori zabaldu handiekin, Jaun Erretoraren burua!...

« — Pst!... Eup!... *Jigol* ona, zikiro-azpi ona lakel zautzu, Jaun Errienta?... »

Zikiro-azpia lakel, Jaun Errientari? Lehenago jan dituen guziez orhoitua, begiak sukar batean, bi urhats egiten ditu gizon gaichoak. Hiru hilabethe hetako barurak oro ahantzirik, Jaun Erretoraren besarkatzera doa oraikotik :

« — Lakel? Zikiro-azpi ona?... »

— Bai, lakel zautzu zikiro azpi ona, bainan, hor, zinez eta egiazki ona? Ahotik ezin utzi zikiro-azpia?

— Oh! ba, Jauna!...

— *Bezperalik berelik, baratchuri gordinez ongi chichla zazu beraz, Jaun Errienta!...* »

Eta irri maltzur batekin, itzultzen da hortan Jaun Erretora... bere bazkaltiarren gana.

*
* *

Ezin gehiago ihardok zezaken gure Jaun Errient dohakabeak. Hiltzea ere hobe zuen miletan, hola bethi errabia gorrian bizitzea baino...

Harat norapeit, Biarnorat joaita galdatu zuen handik laster, eta aditua naiz, baratchuri guti, arras guti aski duela gure Errientak, Jaun Erretor berriak janarazten diozkan zikiro-azpientzat.



LARRONDO GUARDAREN KURUTZEA



Ez dakit *Larrondo guarda* ezagutu duzuenetz lehenago ?
Nik bethi bai.....

Zer aintzinekoa !

Ez batere gizon gaichtoa, nahi baduzue, bainan ezin gehiago bitchia eta jostakina. Irriz ase baten egin-arazleko, lehen lehena bethi.

Hari gogoratzen ez zitzaionik ez zen. Zembat ichtorio ez nazkike gure Larrondori gerthatuak, batzu bertzeak baino pollitagoak !

Beraz, *Mistonea* zuten herrian. Jaun misionestak, arrats guziez, izerdi uharretan ari ziren, egiarik sarkorrenak eraincz aholaraka. Egun oroz, trumilka bazoan jendea elizarat. Zerbitzuko ez zen guziez, Larrondo guarda ere han zen, bethi chuchen, beharriak ernerik. Eta egia erran behar balimbanu, ez ahal zen herrian bertze bat, hura bezala *zank* misionestari beha zagonik ! *Soubelet* Aita on eta khartsua bera ohartua zen eta !

Igande goiz batez, meza nausian, ederkichko mintzatu zen phedeikaria, *gularik bakctchak garreiatu* behar duen *kurulzeaz* ; gure Salbatzaileak bere kurutze dorphea gure galik bihotz oncz jasan duen bezala, guk ere, jasan nola behar dugun, zembat nahi dorphea izanikan ere, Jainkoak igortzen daukun kurutzea.

Solas horri datchikola — gaitza baitzen ere mintzatzea — bortz egia jali zituen phedeikariak, eta sistako

onik eman, eskuin eta ezker, harro-aldi baten beharretan zitezkenari. Hots, jende guzia choraturik zaukan egiazki.

Gure Larrondo, irri maltzur bat gehiago ezin atchikiz, *kur-kur-kur* hortchet ez da hasten betbetan! Aldeko lagunak hari beha, eta elgarri galdeka: « Behazue Larrondori; orai ere, zer othe duke gogoan? — Jainkoak daki! Bere helarik bat, baitre dudarik gabe..... »

Meza ondoan, Larrondo guarda brasta brasta bazoan etchera, bertze aldietan ere baino zaluago, elheketa bidean neherekin trikatu gabe — ontsa handi baitzen!

Gachina, Larrondoren andrea, zopako ogien egitera zoan supazter chokoan, bera goiz mezan izanik.

« Gachina, haugia!

— Nora? Zertara?

— Berehala jakinen dun; haugi!»

Etche aintzinera badoatzi beraz senhar-emazteak.

« Haugi, igan hakiat bizkarrera, ichtaklok, konkolotch!

— Konkolotch! Konkolotch gan..... Bainan, gizona, erhotu zirea bada?

— Hots, elhe alfer guti! Laster, konkolotch!

— Konkolotch! Ai, ei, ai, ei!..... Burutik joan zaut ene senharra!»

Ez bide baitzen elhe gosc, Larrondok, *brau*, hartu eta bizkarrean emaiten du Gachina.....

Gachina hipaka nigarrez ari zen; bainan bardinera zoan nigarrik ez eginikan ere. Deskantsurik handienez, eta kontrabandan hartu zahagi bat eremaiten balu bezal bezala, sorbalden gaincan bazeraman Larrondok bere andrea, elizako bidean harat.

Hain chuchen, bide hartarik heldu hek ere, buruz buru egiten du..... jaun erretorarekin eta haren bi misionestekin, goiz guzia elizan iraganik, goseak hamikatuak, bazkailerat zoazila:.....

Harrituak gelditzen dire hiru aphezak, Larrondori beha, Gachinari beha, elgarri beha:

— « Zer duzu josteta hau? »

Gachina bethi nigarrez, ahalgeak urtua, ichilik egon ala mintza, zer egin ez zakiela, begitartea bi eskuen artean gordatua, han zuten orai, aintzinean, guarda ihiziaren sorbalden gainean. Garizuma izan ez balitz eta Misiokea, lhauteriko *Basa-Andere Ziganlea* erranen zinuten, zinez eta minez.

— Jesus Jainko maitea!!..... zer ari zira hola, Larrondo ? Zer ditutzu burla horiek ? Hean lurrerat emaiten duzula berehala emazte gaicho hori!

— Zer burla eta murla ? Ez dut bada zuk galdatzen duzuna eginen.

— Gizona ! Jendeek zer erran ere.....

— Erran bezate nahi dutena !

— Hots, Larrondo !.....

— Zer derasazu, jaun erretora ? Ala, elizatik kam-po eta eliza barnean bi gisetara mintzo zirezte aphez horiek ? Ez dea hau, zure eskuineko jaun horrek goiz huntan berean erranaren bethetzea ?

— Ene erranaren bethetzea ?..... Badakizu ongi zer erraiten duzun ?

— Ba jauna, eta arras ongi oraino.

— Nik erran dautzutala, zuri egun goizean, zure emaztea bizkarrean hola erabiltzeko ? Baduzu burutik ?

— Ez jauna, batere ! Ez othe zira orhoit, meza nausiko phedeikuan nola erran daukuzun : airoski eta bihotz onez behar dugula bakotchak gure kurutzea garreiatu ?

— Eta zer da gero ?

— Da gero, jauna, hemen orai ikusten duzuen.....

Ene kurutzea Gachina da. Nik ez dut mundu huntan Gachina baino jasan-gaitzagorik, eta hortakotzat dera-mat orai Gachina, bizkarrean..... Behin bederen zuk erranak egiten ditugula ! Ez zautzu, jaun misionesta ?... Herriko gizon guziek, Larrondo guardak bezala sinhetsi bazinituzte, elizatik etcherako bide guzia kurutzez hartua zinukete, jaunak, Gachina bezalako kurutzez hartua... »

.....

Gehiagokorik ez entzuteko, aphezak bazoazin orai bichi bichia, kasik lasterka, beren irria ezin atchikiz lanik aski bazutela. Bethi airean, konkolotch, emazte gaichoak ez zakien gehiago nun eta nola gorda bere burua!

Larrondo karkaraka irriz ari zeñ, urratzeko heinean...

.....
Hamabortz egunez ez zion Gachinak Larrondori solasik eman.....

Eta gero.... berriz hasi zen, eta ez gelditu hil arte.



Bldarraiko plazan



AMPALLATZERAT... MARTIN ?



Nor othe zen hobendun, ail' amek ez balimbazakoten liburuetan eta kazetetan irakurtzen erakutsi? Noren hoben othe zen, *Pachkal* plaza-biltzale debroz egin harek, zer nahi gezur balimbazazkon sinhetsarazten? Gezur horiek iresten zituen, hala da, mazapen puska batzu bezala. Bainan haia hala, inguru hetako zazpi herrietan ez zen golde-nabarra harek bezain chuchen eta barna erabiliko zuenik. Kabalakina ere zen lehen lehena Bainan, *Pachkal* figura harek burua azpiz goiti ezartzen zakon, bere maltzurkeriekin.

Goiz batez, *Martin* athera zen karrikara, pimpirinan aldatua. Bampa, bampa bazoan bidetari beheara, bere alimaleko zapata itzedunak oinetan. Esposeko jauntziak emanak zituen: pezako jaka, pezako galtzak, barneko molcha dena ttitta gorri eta pherde. Gerriko zintak egiten ziozkan hiru inguru segurik, gorri gorria, girgilleriak sahetsetik dilindan. Gerrikoaren azpian, aintzinetik, gaitzeko botoin bat, ezipel churi churiz egina, erdiko sakela handiaren hesteko. Athorra churia, hamabi plegu cheherekin, ithotzeko heinean beharrietaraino heltzen zitzaiona. Buru kaskoan, bonet edo kapelu beltch bat, onjo zabala iduri, ile kozkor batzuen gainean.

Bampa bampa bazoan beraz *Martin*, karrikari beheara. Bazterrerat behatu balu, zerbaitez jelostuko zen behar bada. Bainan, athorra-lephoaren erdian egoiteak ere lanik aski emaiten zakon, eta ez zuen *Pachkal* bere adichkidearen irri maltzurrik ikusi.

Joan, joan, azkenean heltzen da *Muziu Fort* zenaren etche aintzinerat.

« Hela! ... Bada nehor? »

« — Aintzina, aintzina! ... To, Martin! Hemengo aldi? Jar zaite, othoi! Aspaldi huntan ez zintudan ikusi. Zer berri da hor gaindi? »

« — Ba, jauna, berri on guti. Ezin bizia, ori! Ogi guti sartu da ; artoa ere chutur, eta mahatsak osoki luts egin dauku, hormarekin lehenik eta gero idortearekin... Zombait zombait gogoeta egina naiz gau hautan guzietan; eta hots, ororen buruan, deliberatu dut, *Pachkal* plaza-biltzalearen erranari behar niela behatu. »

« — Ah! ... Eta zer dio *Pachkal* plaza-biltzaleak, Martin? »

« — Bo! ori, jauna, aithortuko dautzut, *Pachkalek* ez daukidala chehetasunak oro nik nahi bezain garbiki eman. Zerbait murruskatu daut han, erranez : « Lau mila libera emanen zinituela, bere burua *ampallatzerat* utzi nahiko zuenari.... »

Muziu Fort zena, begiak zabal zabala, ahoa oraino zabalago, irria nausiturik, harritua, beha zagon Martin gaizoari.

« *Ampallatzerat*, Martin?... »

« — Ba, jauna, *ampallatzerat*. Badakit zerbait minchka pairatzen dela, *ampallatzean*. Bainen, futcho, lau mila libera ere ez dira artho-pean atzemaiten, eta, engoitik orai, hasian hasi, deliberatuz geroz, baliatu nahi nuke.. »

Soberakina soberakina da, ez dea hala? *Muziu Fort* karkailaz ari zen beraz, Martinen sudurrari hurbil hurbila, Martin gaizoari sorbaldak inharrosten ziozkala.

« Bainen, Martin, otche dakizu ontsa, zer den *ampallatzeat*? »

« — Chuchen, ez, jauna. Erran dautzuz ostichoan, *Pachkalek* zerbait murruskatu baizik ez zautala. Erran daut bakarrik, *ampallatzeako* hauta nintzala, hortako behar diren guziak baditudala, eta ez zela ni baino hoberik atzemanen ingurune hautan guzietan.... »

«— O, Martin, Martin, barkhatu irria eskapatzen bazaut, baina, Pachkal demonio harek ederki enganatu zaitu, eta lephoraino gero! Nahi duzu jakin *ampallatzea* zer den? *Ampallatzea* da: norbaiti larrua edeki eta, larru hura lastoz bethelzea, leher egiteko heinean, Ihauterian Zampantzar edo Karnabal bezal bezala... Martin, behar othe zaitut *ampallatu*, Uharte Ibarnegaraiko arrano alegia bizi hek bezala? Nahi duzu? »...

Martin, zuri zuria egina, begiak zorrotz, brau chutilzen da. Muzi Fort zenari agur bat egin ere gabe, bazoan orai kamporat, firindilaka: «Brien bisaia!...Brien ariña!»

Iphar haizea bezala iragan zuen Espainiako karrika.


.....

Pachkal hatzeman balu orduan, akhabo zen Pachkal!...
Baina, beharrik, Pachkalek lekuak hustu zituen zombait egunez.....





Belherretan



EGUERRIKO KONDAIRA



EGUERRI bezperazen. Bizpahiru ahutara gaztena gocho-
ki janik supazterrean, sagar-arno bat hauta lorietan
hurripaturik, gamberako leihoan emana, izarreri beha
nindagon. Iduri zitzautean izar heieri behera jausten ikusi
behar nuela Jesus, eta, Jainkoak emanik, boz bat baitul
frango pollita, hor, ohartu ere gabe, ez naiz hasten *Atzar*
gaiteren charamelatzen ?

« Atzar gaiten, atzar lotarik
Gau huntan da Jesus sortzen,
Amodioak garhaiturik
Gure gatik da ethortzen ».

Bainan, bet-betan, oharturik haize meheño bat firuri-
kan heldu zautala ipharretik, beldurrez eta hotzak iragan,
banoa ohe gainera, neure soinekoekin hala hala, lo kuluch-
kaño bat eginen dudalakoan, gau-erdiko meza aintzinean.

Atzar gaiteren azken azken hitza emaiten ari nintzala-
rik, echti, echtia, ezpainak luehatuz, ttumpez lokartzen
naiz, eta berchala, horra non egiten dudan amets bat,
bainan amets bat !.....

Beraz, Jainkoak, igorria zautan *zeruraleko galdea*, nik
batre uste ez nuelarik. Nere girichtino egimbideak oro
betherik, azta gaichto guziak aphezaren eskuetarar arthi-
kirik, horra abiatzen naizela Parabisurat buruz. Urhats
zombait egin orduko, gelditzen naiz zankez, eta gero,
laster batez itzultzen nere gamberalat..... Gaiñ hartan

zer gertha ere, alfotchetan ezartzen ditut ez dakit zembat urthe hetan egin ziren *Gure Herriaren* ager-aldi guziak, eta anda izarreri buruz.

Berehala ohartzen naiz erreposkiago noala, *Gure-Herria* demontre harek nik uste baino gehiago aztatzen zuelakotz alfotchetan. Bainan, hartuko dut behar den astia, eta hola bederen bihotza arinik banoa, hedoietan harat. Nork daki zertaz behar ditaken gaintto hetan ?

Joan, joan, bethi joan, banindoan beraz, alfotchak bizkarrean, Larresoroko *Killo* gaizoak egin makila pollit bat eskuan, izar batelik bertzera bricht, jauzika. Jesus, Jesus, ez nuen sekulan erranen haimbertze izar bazitekela zeruan ! . . . Garaziko mendietarik lehenago ikusten nintuenak deusik ez ziren oraikoen aldean !

Bethi banindoan bizkitartean, eta ja, *Art-Izarraren* ondolik, *Hiru Erregeak* jauzian iraganak nituen. Sekulako bide ba othe nuen ? Azkenean, *Oilo-koloka* nere gibelcan utzirik bere chitoekein, batlo lehertu ere gabe, izar-erhautsez estalia, izerdiz pelatua banindoan, noiz eta ere, han, nere aintzinean ikusten baitut. PARABISUA.

Hatsak eta guziak joanik, bihotza kasik gelditzeko heinean, harritzen naiz hantchet. Jesus, Jainko maitea ! Hura zen hura, ikustekoa ! Dena urhe, dena zilhar, dena disdira ! Belhaunak dal dal dal ikharatzen zitzauzkitan, ederraren ederrez. Ez zen ez halako aphez-etcherik edo jaun handien jauregirik, ez eta ere elizarik ! Jesus, Jesus !

Haimbertzenarekin, Parabisuko athe urhezkoaren aintzinean jarria, ikusten dut gizon bat, bizar alimaleko batekin : Jon Doni Petri, zeruko gakoan argitzen ari. Bazuen zer egin ! alabainan, erdoilak osoki janak zauzkan.

Krisk, krask, nere zapeta handiekin harrabots puska bat egiten dut, Parabisuko bide choragarrian. Jon Doni Petrik burua altchatzen du, bere lanaren artetik, eta halako hirri bateanh asten da berehala !

« To, to ! Norbait heldu zaikuk egun zerurat ! Báduk

mira!..... Ho, adichkidea, norat zoazi zure ustez ? »

« — Bainan.... zerurat, o Jon Doni Petri! »

« — Zerurat ? ... Baduk hoberik ! Aspaldichkoan bertze biderik hartzen duzue gizonek ! Orizu, behozute ene gaköeri..... Gorri gorriak erdoilak janak !..... Eta barkhamendurekin, nondik heldu zira ? »

« — Frantziatik.

« — Frantziatik !.... Hau ona diaguk ! Berrogoi urthe huntan, Frantses gutti, gutti, humarat ! Lehenago bai, trumilka. Bainan orai, emazte bakar batzu, doi doia !... Eta no'a deitzen zinen munduan, ez baniz ausartegi ? »

« — *Haurmaite*.....

« — *Haurmaite* ! Bainan orduan, *Eskualduna* zira, eta ezagutzen zaitut segurki ! *Haurmaite* ! *Gizagaichoa* ! Ez zinen baitezpada gaichto gaichto hetarik ! Bainan, itzal ttipitto zombait, berehala zeruan sartzeko ! Behin edo bertze gerthatu ere zautzu, arratsean erran baituzu goizeko othoiltza, eta goizean arratsekoa. Kasu eman bazinu gehichago !.... Eta, zer deramazuz, hor, alfotcha gorri handi horietan ? »

« — *Gure Herria* ilabetkaria, ilabetkari horrentzat moldatu ditudan lan purruchkak !..... »

Jon Doni Petri chulitua zen, orai, eta nere gana hurbildurik, gogo onez besarkatzen nau han, bainan han, tinko tinkoa ! Sainduaren bizar handiak pochi bat min egiten zautan, egia erran. Bainan, halere..... zer gochoa eta zer loria !.....

« — Hi haiza, *Haurmaite*, *Gure Herriaren* egileetarik bat ? Kazeta moldatzaile gehienek ez die ene bizarreko ile bat balio ; bainan *Gure Herrian* balimbahintzan, bertzerik duk. Biba hi, *Haurmaite* ! Hemen guziek irakurtzen diaguk *Gure Herria*. Jesus Haurrak eta Ama Birjinak ere, noiz edo noiz, benako bat emaiten diotek. Eta zeruan diren *Eskualdunak* ! Harrapaka baderamaie. Ilabete guzietan, aingeru Gabrielekek beren *Gure Herria* noiz ekarriko dioten, ezin igurikatuz diaudek. Haugi, *Haurmaite*, haugi !

Hiaurek behin baino gehiagotan erran dukan bezala, ez duk ez hori hire lanik tcharrena. Eskuara gabe, *Eskualduna* ez duk, errechki bederen, *fededuna*. Eskuara galtzera zioian beharbada. Galtzerat utzi nahi ez zutenak lagundu ditutzue..... Haugi zerurat, haugi! Segur, merezitua dukala! Ikusiko duk, San Frantsesek, San Inaziok, Jon Doni Maiorgak, Michel Garikoitz Ibarrekoak eta bertzeek beltzuri handirik eginen dauetenez. Chilintcha hau jo eta, hunarat ekarraraziko ditiat oro berehala.... »

Bilimbi-balamba, bimbili-bambala, abiatzen da chilintcha, eta..... hor..... izerdi ubarretan..... iratzartzen naiz..... Jesus!... Non othe naiz? Ustez zeruan, eta ez nintzen ilhargian ere, baina bai lur-gainean, nere gamberan, oraino hazkar eta erdi-gazte..... *Eliza-dorrek*o ezkilak iratzarrarazia ninduen, oren bat gau erdiko mezara!.....

* * *

Gogoa ilhun, jarri nintzan nere ohearen gainean. Eta, hala, hala, hain gocho zen Jon Doni Petriren bihotzari kontra, bizar handi harek sistatzen ninduela!... Eta amets bat baizik ez zela!.....

Bainan gero, begiak berriz ichtant bat hetsi ondoan, zeru eder hura agian oraino ikusiko nuelakoan, ohe gainetik jauzian chutiturik, belhaunikatu nintzan, othoitz hunen egiteko :

« Barkatu, Jon Doni Petri handia, nere amelsak zerbairetan huts egin badautzu ; amets bat baizik ez zen. Baina omen baitire *zerbait erran nahi dulen amelsak*, gaurkoaren ondolik iduritzen zaut, gure lana ona zautzula. *Gure Herriari* uztartuko naiz beraz berriz ere, eta.... Jainko Jaunak nahi dukeen bezembat luze..... edo labur ».

Eta, hortan, gau-erdiko mezarat joan nintzen berehala, halako loria bat bihotzean!.....





Kauserak edo Kruchpetak



JOAN-EDER. — Eskualdun Etchek' Andere Bat.

MARIE. — Joan-Ederren Alaba.

MARGAITA

JOSEPA.....

LUICHA....

ANNA

MARIANNA...

ATCHO-BAT...

} Eskualdun Pidaiant batzu.

TREIN-BURUZAGI BAT.

ANGLES ANDRE BAT.

LEHEN ZATHIA

JOAN-EDER-MARIE

(Eskualdun Sukalde batean)

MARIEK. — Hots, ama higi zaite! Ez da ez gero treina zure beha goait egonen, Donianen. Sei orenak joak dire jada, eta ez dugu dembora galtzekorik!

JOAN-EDERREK. *(Eskuineko gambera baitarik:)* — Heldu naiz, heldu, haurra ; bazkina hunen sartzeak emaiten baitazkit lanak! Alo! hots, helduko naiz oraikotik. Ene puchka hoik bilduko dazkiadatuazu othoi, deusik ahanntzi gabe.

MARIEK. — Bai, ama, bai! Bainan erna zaite, othoi. Zure kafeñoa harturik, zure puskak oro bildurik, ez duzu chorieri airera beha egon beharko, bide hortan! (*Kikera balen belhe kafe moldalzen du bere amarentzat.*)

JOAN-EDERREK. — (*Bere buruaren aphaizten ari agertzen da, krinolinak bezen handiko zaita batekin, gaitza, izigarria.*)
Chorieri beha? Izanen dut bertze egitekorik!..

Ez naiz batre trempuan, hertzalde! Lorik ez dut egin batere, gau huntan. Ohean ez nindagoken. Jo eskuin, jo ezker, nihun ez onik! Alta kukusoak harrotucheak nituen, lastaira azpiz goili emanik goizean!

MARIEK. — Eta zuk, baitezpada, Baionarat joan behar, ama?

JOAN-EDERREK. — Zer nahi duzu, haurra! Lau urthetarik baizik ez naiz joan hiri kapitalera, eta asko puchila baitut erosi beharrak!

MARIEK. — Ongi, ongi, ama! Bainan, badakizu ez zarelara arin arin hetarik, aspaldittoa. Salda ona egiten da bethitik gure etxean, ama gaichoa!

JOAN-EDERREK. — Bai, bai, erradazu zuk ere, Gachucha Biperak orori oihuka dioena, seietan hogoi kilo aztaren jabe egina naizela, eta etchekeko gupela ederrenaren ustaiak leherraraziko ditudala zartez, heien barnean sartzea bezen chuchen!

MARIEK. — Ez, ama, ez, ez naiz ni Gachucha Bipera, bainan, halako beldur batek hartzen nau, zure itchurari behatu eta! Errech baita holako azta baten Bayonarat pirripitaztea!

JOAN-EDERREK. — Hortarik nuen, haurra, nik ere nere kechua, gau huntan....

MARIEK. — Ez doa niri, ama, zuri zer egin erraittea, bainan, iduri zaut, behar beharrez baizik ez zindukela mugitu behar, hementik harat.

JOAN-EDERREK. — Bai, ori, engoitik hola da, Marie, eta Jainkoak lagunduko ere ahal nau. Ongi zeinaturik baizen ez naiz atheratzen sekulan etchetik.

MARIEK. — (*erdi harriz*) Bai, ama, guk gure burua surat arthik, eta Jainkoak athera gaitzala gero sutik.... Ori, ama, kafeño hau edazu bero beroa, on eginen dautzu, eta bihotza pichtuko ere dautzu bideari lotzeko.

JOAN-EDERREK. (*edaten ari dela*): — Ertazu, haurra, treinari sua bezala izanen zaiola kafeño hau ene kargari. Ah! egungo haurrak!

MARIEK. — Jainkoak begira nezala sekulan nere amaz trufatzetik. *Mailez* erran daukitzut, ama, erran ditudanak oro.

JOAN-EDERREK. — Badakit, haurra, eta ez naiz batre hasarre gelditzen. (*Chuliturik, eta bere puskak hartzen dituela*).

MARIEK. — Hartu ditutzu oro, ama? Paisola, chakua, oilachkoak?

JOAN-EDERREK. — Bai haurra, oro. Hots, bihar arte, Marie, ongi artha zazu zure aita! Ez ahantz hala hala aziendano horien, ez eta ere oiloño horien bazkatzea. Jaun Merari nahi nioke oilasko pare bat ederra igorri, urtheberrietako. Jaun Erretorak ere izanen ditu, bainan berantchago, eta bere phedeikuetan ez bada arte huntan sobra sumintzen!... Hots! Jainkoak hunarat ekharri arte Marie.

(*Bere alaba besarkatzen du, eta badoa Jarako mendia bezain handi....*)

MARIEK. — Bihar arte, ama, eta pidaia on! (*Amari behatzen dio kaporat, eta gero*): Mokanesa hartua ahal duzu, balimbada, Ama?

JOAN-EDERREK. (*kampotik*): — Bai haurra, bai; zaude deskantsu!.. Atch!.. Harri handi bat lehertzer dut.. Ez bainaiz hortchet zabal zabala erori!

MARIEK. — Gaicho Ama! (*Berriz ere urrunera amari beha dagolarik, aintzineko oihal handia aphaiduko dute*).

BIGARREN ZATHIA

(*Donianeko Garan. — Chichtuka ari dira jada..... Chilintcha ere joa da. Treina abiatzera doa. Izerdi uharretan, leher egina, pus-kak oro, beso-azpitik alderdi guzietara eskapatzen zaizkola, bere bil-lela esku batean, mollsa bertzean, herreslan heldu da Joan-Eder... alimalea.....*)

TREIN-BURUZAGIAK. — En voiture! En voiture!

JOAN-EDERREK. — (*Bagon batean, lehen jinean, sarlu nahi da. Bainan debru bai! Indarka ari da, bazkina zarlazteko heinean, ezin sartuz!*)

« Hauche da ichtorioa!.. Eta luteho, ene gerruntze hunc ez nahi joan barnera!.. Eta jende hau oro hirriz ari!.. (*Karkarka ari zaizko oro.*)

TREIN-BURUZAGIAK. — « Allons! la grosse maman, montez-vous, ou montez-vous pas ? »

JOAN-EDERREK. — Bai, bai, Jauna, sartuko zaut, sar-tuko. Ittant bai, othoi!.. Bi miia sorgin! Duela lau urthe baino pus-kaz hertsia go ditulzue atxe ozipina hauk!..

MARGAITAK. — (*hirriz usteldua dagolarik*): Hots, amatto, emadatzu puska hoik, eta zalu, zalua gero! (*Eta guziak hirriz, bethi'ta gehiago hirriz*). Zure esku hoi, orai. Zato, Luicha, bertze eskua harrezozu! Eut!.. Sartzen da, sartzen!.. Eut! ah!.. bagirea?... Bagira, bagira, amatto!

JOAN-EDERREK. — Ai! jende maiteak, Jainkoak esker duela! (*Jartzen da edo hobeki alkiaren gainera erortzen, begitarrea sulan, mokanesaz chuka eta chuka.*) Uste ez banuen hortchet gelditzen nintzela! Hatsik ere ez nuen gehiago, izerdi uretan, ene soineko botoinen erdiak segurik saltoka joanak. (*Itthoka oro hirriz, nigarrak eta oro jauziak. Eta, gero.*)

JOSEPAK. — Maiz bazabiltza burdin bidez, andre gai-choa?

JOAN-EDERREK. — Maiz? Ez, ez. Lau urthetarik behin, doi doia. Kargaño hau duena etchean hobeki dagoke, ezen ez karrosetan. Beharrik nere burua arthatzen dut, hola kaporat noalarik..

LUICHAK. — Arthatzen ? Eta zer artha hartzen othe duzu, ez banaiz sobra atrebitua ?

JOAN-EDERREK. — Arthatzen bai ! Bizpahirur egun aintzinetik, erdi barurik egoiten naiz. Orizue, ahamenik ez dut harturik, atzo eguerdiz geroz, kafe ttirritta batez bertzerik.

ANNAK. — Atzo eguerdiz geroz ? Bainan, barkhamendurekin, non behar zira jautsi ?

JOAN-EDERREK. — Baionan.

ANNAK. — Baionan ? Jainko maitea ! Harachko da Baionan ! Ez duzu iraunen haraino, gaicho emaztekia ! Ori, *kau-sera kruchpeta* batzu bailitut hemen, bideko hartuak, gogo onez, kruchpetaño bat, andre ?

JOAN-EDERREK. — Ez, ez ! milesker !

ANNAK. — Emaztekia, bigaño, bigaño bakarrik !

JOAN-EDERREK. — Ez, ez, milesker !.. Athe demuntre horiek ez balire hoin bertsiak, bai !..

LUICHAK. — Kruchpeta arin da, andre. Eta bertzalde, hemendik Baionara, ehun kruchpeten *licheritzeko* astia badukezu. Hots, bigaño bakarrik !

JOSEPAK. — Kruchpetak ez ditu behar bada maite, Luicha..

JOAN-EDERREK. — Ez maite ? Kruchpetak ?.. Erhotua naiz eta....

MARIANNAK. — Hots, emaztekia, arno churi chorta bat baitut hemen, bi erhi-trebes arno churi hortarik, eta kruchpeta guziak firurikan joanen zaizkitzu, deuseri ohartuko ere ez baitzaizko.

JOAN-EDERREK. — Ah ! Jainko maitea ! amor eman behar othe dut bada ? Kruchpetaño horiek hirriz ari zaizkit, oihal churi horren erditik, hilak phiztuko dituen usain gocho bat igortzen dautatela !

MARGAITAK. — Eta zer dio zure sabelño huts horrek ?

JOAN-EDERREK. — *Gallchagorri* bera zare, zu, anderea. Nere sabela kurrinkaz ari zaut : « Hots, Joan-Eder, atzo eguerdiz geroz, kafe hurrupa batez bertzerik ez dinat

harturik. Bizpahiru kruchpeta, othoi, kruchpeta pullit hoitarik ; bizpahiru, ez gehiago! »

MARIANNAK. — Hean, begiak hetsirik, lehembizikoño hau zoin pulliki iretriko duzun! (*Joan-Ederrek — azkenean — galdatu bezala egiten du, eta lehembiziko kausera iresten.*)

JOAN-EDERREK. — Zer kruchpetak! Gezur erran niro, sekulan holakorik jan dudala erran baneza.

LUICHAK. — Hean bigarren bat, bide beraz ?..ori, harri kichkola kisu-labea baino gehiago ez da kruchpeta ezagun....Ori, gaïchoa, ori, janezazu deskantsuz. Ez duzu bardin egun guziez holakorik janen!

MARGAITAK. — Eta Baionara behar oraino!..

TREIN-BURUZAGIAK. — Cambo les Bains! Cambo les Bains! Cinq minutes d'arrêt!

MARIANNAK. — Hean, orai, ene arno churiño huntarik hurrupa bat! (*Joan-Ederrek edaten du chirrichlan chahakotik*.)

JOAN-EDERREK. — Arnoa eta kruchpetak, oro zuek bezen onak ditutzue, andere maiteak. Ahalketua ere nago zuen maina guziez.

OROK. (*hirriz*;) — Ez da zeren, ez da zeren!

ATCHOAK. (*bere chokotik*;) — Holako bazkariak ez olhe du *deserta* pitta bat ere merezi ? Ori, Joan-Eder, nere kaba chokoan baditut sagar-erneta batzu hautak, gazalaba edo alabatchiari eremaiten diozkatanak. Enc alabatchiak biga gutiago izanen ditu, eta bigaño hek behar dazkidatazu jan aire berean. (*Joan-Ederrek, berriz ere, galdatu bezala egiten du eta bi sagarrak iresten, Jainkoaren lorien*)

JOAN-EDERREK. — Milesker, andre gaïchoa! Zure kotsa bezein pollitak dira sagarño hauk, eta kruchpetak eta arno churia bezen onak ere bai!

TREIN-BURUZAGIAK. (*kumpotik*;) — Ustaritz! Ustaritz! Trois minutes d'arrêt!

JOSEPAK. — Joan-Eder, azken hatsa edeki behar diozu orai chahakoari. Ichkiriolaz eginikako arnoa! Jaun erretorak ere ez du bertzerik nahi mezako arnoarentzat ; edazu bi begiak hetsirik. (*Joan-Ederrek edaten du beraz*).

JOAN-EDERREK. — Segur, jaun erretoraz bertzerik ere baditakela arno hori ona kausitzen duenik. Jaun erretora banintz, kontu egin niro nik, beatterreri, chantreari eta behar bada andre serorari! (*Orok hirri*).

MARGAITAK. — Eta, orai, guziek errepikaño bat ; orobat, guziak emaztekiak gira hemen, eta nehoren burlarik ez dugu izanen!

JOSEPAK. — Zer kanta dezakegu, Luicha ?

LUICHAK. — Nik ongi dakita.. Kruchpetañño horien ondolik, zintzurra ederkiz legundurik, zer nahiri lotzera noa. Has, zazu, Anna, bardin kompainiako bozik pollitena segur zuk duzula.

ANNAK. — Goazen beraz, eta emagun *Krinolinen* kan-tu zaharra. (*Guziek hirri, elgarri keimuka*).

OROK. — (*emailen dute krinolinen kanlua*): (1)

1

Bertsuak nahi ditut orai athera ;
Ichilik banindago, banuke pena ;
Bainan nekhe da ;
Kriolinaz besterik solasik ez da.
Hauche da besta,
Satanek etzezaken hobeki pentsa !

TREIN-BURUZAGIAK. — Villefranke! Villefranke! Villefranke!.. Elles vont bien ces petites dames! quels gosiers, mes amis!

2

OROK. — Hamalau berga oihal, ez da itsusi,
Kriolina batentzat ezteia aski!
Ez gaituk gaizki!
Moda hori lehenik nork du ikasi,
Egiten hasi ?
Paga nezake ongi, nor den banaki.

(1) *Ikhazketako Mandoaren aircan.*

3

Batzuek aise eta bertziek nekez ;
Bazterrak bethe dire bai kriolinez....
Gauza ederrez !
Dupela bezein zabal dire beherez,
Konkorrak gainez....
Gorde behar litezke, jenden ahalkez !

4

Iragan egun batez zen komedia,
Plaza baten gainean, ikusgarria ;
Hango hirria !
Andre bat zen, karrosan igan nahia :
Ezin abia !
Karrosan ez zion sar.. gibelaldia.

5

Postilluna — kaskoina — juramentuka,
Bethi kriolinari eskuz pusaka :
« Hori dun hanka ! »..
Bazterrak hautsi nahiz, zalapartaka,
Kopeta joka,
« Karrosan ez daiteke.. hola embarka ! »

.....

.....

6

Urgulu malurusa ! hi habilana
Guri emanarazten hoimbertzeko pena,
Bai eta gerla !
Kriolinak emaiten balauk oreana
Hilen hauena,
Gal dadien bethikotz hire izena !

MARIANNAK. — Biba gu! Bainan biba Joan-Eder! Zer boza izan ahal duzuna, demboran! Orai ere, zure charamela zerbait bada, alafede!

JOAN-EDERREK. — Bai, itsusi da nihaurek erraitlea, bainan Mariaren Haurretan ez zen nerea baino boz hobirik, eta orai ere, nere alaba Mariek errechiñolak bezala charamelatzen du goizetik arrats, Jainkoak egiten dituen egun oroz....

ATCHOAK. — Chahakoa odol husturik baitago choko hortan, bertze sagarño bat, Joan-Eder ?

JOAN-EDERREK. — Ori, hala hala da, kantuño horrek zintzurra erlastu ere daut, egia erraiteko. Esker mila eta mila! (*Sagarra hartzen du, bainan ez du jaleko astirik izanen.*) Loria da holako lagunekin pidaiaz ibiltzea, eta urriki bezala dut, beldur zozo baten gatik egoiten hainaiz etche-tik gehiago atheratu gabe....

(*Trein harrabots handi batzu hautemaiten dira hemen, eta gero oihu ozen batzu: Bayonne, Bayonne, Bayonne!*)

TREIN-BURUZAGIAK. — Bayonne! Bayonne! Tout le monde descend de voiture!

JOAN-EDERREK. — Baionan! Jadanik Baionan! Doi doia hunaratz hupatua iduri zitzautan! Zer den, hatik!... Jende maiteak, mil esker zinez orori, eta sarri arte!

OROK. — Sarri arte, Joan-Eder! (*Oro chutitzen dira, eta, beren puskak harturik, zalu zalu jausten. Joan-Eder chutitzen da hura ere, oro jautsi diren ondoan. Bainan, berehala, alhea biziki hertsiegi izanez, gelditzen da atze hortan kokaturik. Jendea ohartua zaio jadanik. Doi doiako bere adichkideak ere han ditu, aintzinean, lehen lehen, maltzur maltzurra hari begira. Treineko mulhila oro, besoak kurutzaturik, begira hek ere!....*)

TREIN-BURUZAGIAK. — Eh bien! la petite mère ? C'est-il pour aujourd'hui ou pour demain ?

JOAN-EDERREK. — Oh! oh! hauche da lana!.. Leher eta zapart egin behar othe dut hementchet ? (*Jo eskuin, jo ezker; belhi debaldetan.*) Ichtantean botoin bat ez zaio geldituko ene soinekoari! Aintzinez, gibetez, ala saheska joka, nihundik ezin athera...

JOSEPAK. — (*maltzur maltzurra*): Krinolina hori khi bazindeza, Joan-Eder ?

JOAN-EDERREK. — Bai eta krinolinen azpiko hau nork khenduko daut ? Ustaiak khendurik ere, barrika hor geldituko !..... Oh ! oh !..... Ez nintzan bada Hazparnen sorthua, hola gizentzeko ! (*Erran gabe doa, Joan-Eder hola mintzo den artean, guziak hirriz ari zaizkola*) Uf !.... gorri beltzatua sumatzen dut nere begithartea, sutan ene mathelak !

MAHIANNAK. — Zure puska horiek har ginezazke gogo onez, Joan-Eder.....

JOAN-EDERREK. — Burla zaite, burla..... Puskak hartu eta, zer egin gero pusken jabeaz ?.... Ai ! bertze botoin bat !.... Demuntren kruchpetak ! Eta zuek, liz-
tafin pullitak, ez naukezue berriz atchemanik !.....

ATCHOAK. — Sagarño bat, Joan-Eder, sagar ernetarño bat ? ...

JOAN-EDERREK. — Apho figura ! Hoakit bichtatik, hi bederen, hire kokotz, eskalapoina idurikoarekin !... Ai ! bertze botoin bat ! Azkena, segura !.....

MARGAITAK. — Hots, Joan-Eder ! indarño bat !... Oh !..... *balean* !...

TREIN-BURUZAGIAK. — Eh ! bien, la mère !..... Descendras ? Descendras pas ?

LUICHAK. — Eut ! Eut !.... emeki, Joan-Eder !.... pulliki, emaztekoa ! Aldian pochi bat !... (*Eta oro hirriz ari bethi*.....)

(*Andre Angles kankail bat, ozarra, hurbiltzen da bere fotografia tresna eskuan*).

ANGLESAK. — Aoh ! very beautiful !... Très jaoli, aoh ! yes !.... moi prendre le photographie de la grosse madame !... (*Krak, hartzen du Joan-Ederren potrela. Joan-Eder, erholua, hasten zaio ukamiloa bildurik, mehatxuka. Bainan, bizkarrez itzulirik, badoa anglesa, pazote bat irelki batu bezemba lante potente*).

JOAN-EDERREK. — Angles kalamanka ! gure etche

ondo hetara hurbiltzen bahaiz sekulan!.... Oh! gaicho nere etchea, gaicho gure Piarres, gaicho Marie! Ez nauzue gaur hemen ikusten! (*Jartzen da, burua bere bi eskuelan gorderik, gorri ahalketua, denak hari hirriz dagozin artean. Bat ez zaio urrikaltzen*).

TREIN-BURUZAGIAK. — Ce n'est pas tout de nous faire poser de la sorte. Il paraît que vous avez croqué des masses de baignets, arrosés d'un bon petit vin d'Irouléguy... Eh bien! il faudra les digérer d'abord, et vous descendrez ensuite!..... Je ne puis cependant pas faire briser le compartiment! Je vais faire remiser la voiture sur une voie de garage!.... En route, la petite mère! (*Bere lula hartzen du eta jotzen luzaz eta luzaz*.)

OROK. — Sarri arte, Joan-Eder.

ATCHOAK. — Zaude deskantsu, Joan-Eder, zure mandatu guziak eginen ditugu, zure orde eta zuretako!...

(*Orok Joan-Eder dohakabea erhi-buruaz erakusten ari ditzarik, oihala eror arazten dute gain-beheiti*).

HIRUGARREN ZATHIA

ERAKASPENA

JOAN-EDER eta MARIE. (*Beren elcheko sukaldean*).

JOAN-EDERREK. (*beharzaitte guzietan mintzo delarik*): — Nahi zindukete jakin zer gerthatu zitzautan gero, Baionan, arratsalde benedikatu hartan?


HUNA. Bagonaren zokorik ilhunenean eman nintzan, ahalkeak urturik. Bainan ez zen bake izpirik behar nerezat! Oren erdi guzietan han nituen emplegatu debroz egin

batzu, *neurria eskuan*, pitta bat hertu nintzenez jakin nahiz errabiatuak !.....

Arratsalde erditan, noizpait eta norapait barreiatu zirelarik nere kruchpetak, beharriak apha! athera nintzen, oihuen eta hirrien azpian, begiak Antchitcharburuko sorgin zahar batek bezen gorri! Ahal nuen bezala igan nintzen etcherat buruz heldu zein trein batetara, eta Donianerat jin holachet; ez nahi baino lasterrago, hitz dautzuet. Bizpahiru egunez ohean egon ere behartu zitzaudan, sukarrak erretzen ninduela.

MARIEK. — Bainan, orai, sendo zira, gaicho ama, eta badut uste zure etche-chokotik ez ziren ichtant bat atheratzekoa.....

JOAN-EDERREK. — Ez haurra. Behar gabeko pidaiairik ez da gehiago neretzat izanen. Banagoke nere chokoan, zu bezalako haur onaren aldean, eta kruchpeta edo sagar, badakiket pitta bat ahantzia nuen egiaño hau: gauzarik hoberenak ere, *sasoinean eta neurrian* baizik ez direla on guretzat!! Bainan bardin du, sekulan atchewan baneza nere Baionako atcho, kokotz-eskalapoina! Apho figura! (*Ukamiloa bildurik atchatzen da. Gero, biek agur handi bat egiten dute, eta oihala aphaltzen da gain-beheiti*).





PELLO ZAPATAINA



Orai duela aspaldi, buruileko goiz bat ederra zen ;
airea arin, zerua urdin ; *Jara-mendi* eta *Arradoi*,
eskuaz hunkitzeko heinean hurbil emaiten zituen haize-
begorik gochoenak.

Pello, *Zaroko* zapataina, bazoan Donianeko goiz-me-
zarat, bere boneta begietaraino sartua, zapatez mukurru
alphotchak. Bristi, brasta, bazoan, bide pollitari behera,
gaztena-ondoen itzaletik haitz ederren itzalera, bere
buruarekin irriz. Bethi irriz ari zen, bestalde, *Zaroko* za-
pataina !.....

Joan, joan, bazoan beraz, noiz eta ere, oihanchka ba-
tean sartzera zoalarik, *Ilapa*, *Ilapa* atheratzen baitzaio,
hamar hurratsetan, eta aintzin aintzinerá heldu zitzaio, a-
begi handi batzuekin, beharri handiago batzuekin, ...
erbi bat ederra, Donianeko ihiztari batek aintzineko as-
tean huts egin erbi bat. « Berroien bizkarra ! harma bat
ez izanen orai hemen ! Zer tiroaren bazka !..... »

Batere zer ari den ohartu ere gabe, alegia eta harma,
luze luzea, bi besoak aintzin emaiten ditu gure zapatai-
nak, eta, hantchet, erbia begiehatzen duela, ezpainak
bildurik, gogoz eta ahoz, tiroa emaiten dio : « Pan ! Pan ! »

Erbia, gibel aldearen edo bertze halako izen bat duen

haren gainean kokoriko jarria, zapatainari, salbu zuck eta, irriz emaiten zaio..... Baia!..... « En bisaia! » Erhotzen da gure Pello ; brastez, eskua sartzen du alphotchetan, eta *zarl*, erbiari igortzen dio, kopetaren erdi erdira, *bikhe* ophil bat : « Hatzemak hori, to! »

Erbia, ontsa bazitzaion edo ez, oraikotik izitua, bigarren tiro bat gehiago igurikatu gabe, badoa pumpeka, buztana arinik, firurikan, *bere bikhea zaramala kopelaren erdian*. Zapataina ere lasterka ondotik, bainan..... erbia zaluago. Alabainan!.....

Haimbertzenarekin — hala beharra, dudarik gabe — bigarren erbi batek jauzi egiten du bidearen gainera, eta, Pellori agurrik egin gabe, hari behatu ere gabe, chuchen chuchena badoa lehembiziko erbiaren ondotik, hura ausiki eta koskatu beharrez. (Bezperan samurtuak bide ziren, sorro berean sobera trefla janik). Beren buztan ttiptiak chut chuta, mustatchak gora, begiak phindarrez erreak, kask eta kask, oldar eta oldar ari ziren elgarri..

Pello zapataina heieri beha, harritua, bere alphotchak eskuetarik dilindan. Geroztik, zin ere egiten zuen, *Pallin Artzainaren* marroek ez dutela batek besteari holako kaskarik eman, sekula santan!..... Erbi demonioak, ihauska erhautsaren erdian, ari ziren, ari, elgar iretsi nahi ukhan balute bezala. Gaztena adar bati buztanetik dilindan, heieri beha hura ere, ikare daldaretan zagon urtehintcha pollil pollit bat.....

Azkenean, izigarriko oldarrean, badoazi biak, kopeta kopelari kontra, buru-munak zapatarazteko heinean, eta, orduan, hantchel, — ez denez hori mirakulua ? — zapatainak aurrthiki *bikheak*..... *jöslén ditu erbi errabiatuen bi kopelak*!..... Itzulipurdika badoazi biak, pirripitaka, behereko errekaraino. Han, berriz ihauska ; oraikoan, elgarretarik berechi nahiz. Bainan, debru bat! *bikhe* ozpina hura, errekan hola busti ere zelakotz, gehiagoko lotzen baizik ez zitzaioten!.....

Pello zapatainak, orduan, laster eta laster egiten du,

eta irriz ontsa ase ondoan, — belhi irriz zagola, errana ere dautzuet — bi erbiak alphotchetan emailen ditu, batlo, *Inchauspe* errient chaharrarendako, eta bertzea *Ospitalelchenean* berak jateko :.....

* * *

Jan ere zuen, arratsean, *Ospitalelchenean*. Goiz hartan hila, zail aireño bat bezala bazuen oraino erbiak, egia da. Bainan, hots, jan zuen, bere adiehkide Kaiet *Ospitalelch*, Barbier, Miguelgorri, Chimitch, Cadiou, Eugène, Teilagorri eta bertzeekin. Orai ere, lagun hoberik ez bainuke nahi, erbi bat hil eta, erbi haren jateko.

Zombait egunez, Pello zapatainak bezala egin beharrez, Donianeko ihiztariak oro, beren harmak utzirik, bikhe-opilak eskuan, erbiaren ondotik ibili ziren Arradoiko pareta guzian, Lasa-Mendin hala-hala. Zapatain andana bat aberastu ere zen, beren bikhe guziak ichtant batez saldurik.


Bainan, gero, elgarrekin baketurik edo ez dakit nola, erbiak ez zuten gehiago batek bestea koskatu, eta Doniandar ihiztariak bipher itzuli ziren guziak, bata bestearen ondotik, ter ter, ter, leher eginak egiatzki, bikhe guzia eskuari itsuski lothurik.

Ybarnegaray, deputatu-gaia, eta Jakes Pekotch the-matu ziren oraino zombait egunez. Bainan hek ere etsitu zuten azkenean, eta berriz lothu ziren beren bethiko harma-chiehperi.....

Eta Pello zapataina, sekulan baino gehiago irriz ari ikusi zuten handik harak.



Mus partida bat itzalean



BOTUA.... BOTU



HANTCHET zen erretor, eta erretor maitatua, mendi arte batean, Eskual-Herriaren muga mugan. Aphez-etchearen aldean eihera edo errota bat, ostatu ltipi bat, ostatuari datchikola errebota, elizetan pullitena bichkar batean, zombait etche — ardiño batzu bezala, elizaren inguruan — eta gero, gainerateko etchaldeak eta bordaldeak, mendi kasko guziera aztaparka lothuak. Horra nun bizi zen beraz gure erretor maitea, itsaso-hegitik bortue-tarat ethorria.



Orok itzal bat behar eta , jaun erretora zen..... biziki *izipera*. Diren eta ditezken eritasun guzien beldur bat bazuen gaitza ; belhi ikharan bizi.

Jan aintzinean eta ondoan ere, zigarreta multcho baten egiteari atchikia baitzen biziki, horra nun, goiz batez, halako erredura bat jiten zaion zintzurrera, bainan erredura bat arras biltchia. Bipher-beltch gostu bat ezin-erranezkoa bazuen han, aho zolan, Bortuko esne gocho guziek ezlitzen ez baitzioten. Thu egin, zintzurra karraka, eta harek bethi min, eta funski min, gero !

Boz bat baitzuen choragarria, jendea, lehembiziko igan-

dean berean, zerbaiti laster ohartu zen elizan : « Gure errelera ez diaguk *fleitian* ! Zer othe dik bada ? »

Ez alafede, ez zen *fleitian* ! Alabainan, erredura thematsua egun guziez saminago zuen eta ! Zazpi egin ahalak egiten zituen bada ; bainan oro alferretan ! Aphez gizagaizoaren zintzurra, eta guziz gogoa, joanago eta eri-ago. Egunaz gogoeta, gauaz amets ilhun.

Hor, arrats batez, gau-erditan, burura heldu zaio : « *Changrea duela zintzurrean* ! Bai, changrea ! Ez zen bertzerik ! Changrea, eta bere *pipalzeak emanikako changrea* ! »

Biharamuncan, elizan, othoitzean, belhauniko zagon jaun errelera, eta — Jainkoa, zuk barkha ! — burua bere bi ahurren artean zagolarik, aithortu behar dut gogoa zuela bere zintzur dohakabearekin. Aho-gozoa irets eta irets, eta bethi bardin kirets ; bet-betan, bere buruarekin egiten du :

« Ezetik baiean, min hau changrea balitz ! Bainan, ere, hala ez balitz ! Dena den, ene Jainko maitea, ori, changre edo ez changre, ene min hau balimbadoakit *bihar arte hantlan*, botu, bai zinez botu egiten dut, sekulan gehiago ez dutala belharrik pipatuko ! »

Gorachko mintzatu othe zen ? Ez dakit, bainan, eliza zola zolan, kadira harrabots bat egiten zuela, irriz chutitu zen atcho sudur mehe figura bat, eta kampoat berehala atheratu

* * *

Hori goizean zen. *Eguerdiko ja, mirakuiluaren mirakuiluz, minik ilipiena ere ez zuen gehiago sendi gure jaun erreler gaichoak* !

Zintzur ondoak erhiekin zapha, eztul eta eztul berma, begiak gorritzerainekoan, zintzurra karraka, eta o

Jesus ona, ahurraren gainean baino gehiago minik ez!...

Arratsaldean are gutiago oraino!.....

Zer loria!.....

Errazue uste duzuela. Min gaichtorik gehiago ez ukhai-
tea loria zen, bai ; ez ordean, *hil arte pipalu gabe egoilea!!!*
Eta futcho, ordutik, hortara zoan gerthakaria! Bertzerik
ezin egin, zintzurreko mina *anda* joana balimbazitzaion
sekulakotz! Botuz hitzimana goizean!.....

..... « Hitzimana, ba, biharko sendatzen banaiz ;
bainan, ez, *den mendrena, gaur itzul balakiat min pilla*
pilla bat..... »

Eta, — Jainkoa, hori ere zuk barkha! — maltzur malt-
zurra, *bat* pizten du eta erretzen ; gero, *bertze bat* ; *hiru,*
lau ala *bortz*, ala gehiago ? Ez dakit chuchen zembat erre
zituen zigarreta lodi lodi batzuetarik.

Ez zen ez ari, sinhesten ere ahal nauzue, gau-erdi arti-
noko epheaz, egin ahala pipa eta pipa, baliatzeko. Fa!..
Orizue, agian, pipa eta pipa arizanez, min izpiño bat ji-
nen ziltzaiolakoan ; ez sobra, bainan, han, *amiñi bat*, botu
izigarriaren osoki osoki ez bethetzeko.....

Ez irrik egin, othoi, gure erretor gaichoaz. Ez daki-
zue ongi zer den pipatzaileari bere piparen khentzea!
Biziaren beraren khentzea ez othe da, edo kasik ?

Berriz ere diot, ez zukeen, ez, min gaichto hura berriz
jin zakion nahi ; bainan, hola, min pochiño bat, den gu-
tiena, *gau-erdi ondoche arte* ; botuari ezkina baten haus-
teko doa....

* * *

Alferretara zoan maltzurkeria hoi guzia. Etchean zuen
tabako-belhar guzia erre zuen, sukar-errabia batean.
Min tuntik ez zitzaion jin ; egundaino izan zuen zintzur-
rik legunenaren jabe gelditu zen. Eta, gau erdik, *bun, bun*
bun..... jo zuelarik ezkila-dorrean, jaun erretor gizagai-
choak firrindan arthiki zuen hortzen artean zaukan azken

zigarretaren buchtan buchtana ; eta, orduan, sorbaldak daldaratuz, hau erran omen zuen, dolamen batean : « *Karremalin! Oraikolik, hire pipalzeak egin dik!* »...


Eta, mina khendu ziolakoan, Jainko maiteari eskerrak bihurtu behar orduan, bere buruaz etsitu zuen hantchet, zeren piparik ez zen gehiago harentzat!

Zombait egunez, arima herratu bat bezala bizi izan zen. Bortz burla eta musika egin ere ziozkaten lagunek, malezian, haren ondo ondora, pafa, pafa, joanez, beren zigarroen erretzera.

Bainan, BOTUA BOTU, harekilakoak eginak zituzten, ordutik, Frantziako eta Espainiako tabako guziek, eta bere tocha pollita, azkon-larruz eginikakoa, eman zion *Pachkual* bere chantre zaharrari.



Orgak



ALKATE-JAUNA



Hogoi urthe hartan bederen, *herriko gizon* izana gatik, behin ere ez zen mera edo *alkate* izendatua izan Migel Pocodinero. Alta heldu nahia zen, charpa pollit hartara! Bainan, bethi sudurraren petik iragaiten ziltzaion auzoko Agustinen gerruntzearen aphaintzera joaiteko.

Azkenean, noizpeit, hor hiltzen da Agustín ; eta Migel, ezpainak milikatuz zagon, alkate-jauna egin behar zen bozka-egunaren beha. Ahanztera nindoan, Espainian gerthatua dela gure ichtorioa.

Eskua bati hunki, bertzeari bizkar gaina, bertzeari papoa ; bati baso-arnoa paga, bertzeari aguardient-kotcheta, ibili zen beraz Migel jo harat, jo hunat, dena irri, dena elhe, arima herratua iduri, herriko etheko-jaun batelarik bertzera. Izerdi bat baino gehiago gosta zitzaion. Eta zombat pezeta ?! Bainan zer zoakon, herriko *alkate-jaun* egiten zuten ber ? Eta nungo alkate oraino ? *Hogoi* ethe segurik baziren elizari hurbil, eta bertze bizpahiru oraino mendi gain batean ; orotarar, hogoi eta hamar gizon, berrogoi eta hamar emazte, eta beste haimbertze haur Uipi! Madrile arte hartan guzian ez zen halako herri gothorrik.

Hor ethorri zen beraz eguna, maiatzeko egun bal

ederra, dena argi, dena iguzki, dena lore, eta Migel.....
Errekacharreko alkate-jauna izendatu zuten.

*
*
*

Espainiako errege ez zen hain dohatsu izan behin ere, nola baitzen, arrats hartan, Migel Pocodinero. Iduri zitzaion eliza dorreko ezkila, zartain zahar baten azantzarekin, bilimbi balamba abiatzera zoala, alkate berriaren ohoretan. Gain hartan izarrak, dir dir dir, irriz ari zitzazkon, hogoita hamekaren keinua egiten zakotela. Athe leiho guzien artetik ikusten ere zituen bere ustez, herriko emazteen sudurrak, alkate-jaunaren ganat luzatuak. Karrika ezkina batean, tipula ahal baten gainean lerratu zen, eta zabal zabala erori. Bainan, den mendrenik kechatu gabe, althatu zen polliki, ustez eta haren ohoretan hedatu arrosa edo hostaila zombaiten gainean egin zuen lerrakoa.

Hots, loriatua heldu zen etcherat, Migel alkatea. Eta zer ohoreak sarri, sukaldean sartzean, doña Pokodinera bere emaztearen ganik! Ai! Jesus!.....

Haimbertzenarekin, etcheratzen da, eta atheari pampaka hasten: *Pan, pan, pan!* Supazter chokotik champaka althatzten da Churiko, eta *Manuela*, alkate-jaunaren emaztea, zizeluaren gainean lokartua baitzen, erdilo oraino, harrotzen da ahal duen bezala, eta arrachina eskuan, atheari hurbiltzen: « Nor dago ? »

— Errespoturik ez.....

« Nor dago ? Migel zare or ? »

— Errepostu tuntik oraino.

« Nere Espos Migel ote da atean ? »

— Hitzik ez berriz ere.

Orduan, osoki iratzartzen da *Manuela* : gogoratzen zaio bozka eguna zela egun hura, eta ikharan idekitzen edo hobeki erraiteko, *zaballzen* du athea, arrachina erortzera uzten duela, ikhararekin :

« Zer alkate jauna ote dago or ?..... »

— « Nor dago arren! doña Pocodinerol! » Eta burua alto, papoa aintzin, biher gorri soka bat sudurraz joiten zuela, jaun erretora aldare aintzinean bezain chut, sartu zen Alkate-Jauna, bere sukaldean.....

*
* *

Handik bertze igandean gero ziren lanak, zinak eta minak, Migel Alkatearen etchean! Herriko kontseilua bildu behar zen lehen aldikotz, jaun alkateri bazkari eder baten emaiteko: urinik gabeko bazkari bat, dena olio, kafeak eta oro olio.

Bainan, han ziren chintchimariak! Aste guzian uriz leherra egin zuen, eta bokatarat eman athorra nihuntik ezin idorrazazi zuten. Eta futcho, Migelek ez zuen bertze athorarik, soinekoaz bertzerik. Eta soineko hura, garbiki erraiteko, ez zen *churi-purifikatua*. Ja, hiru aste hartan berekin zeraukan gau eta egun!.... Ai! Jesus! Jesus!.... zer egin ? Eta jadanik hamekak eta erdiak hurbiltzen ari!.....

Manuela, emazte baliosa hartu zuen Migelek, ezkontegunean. Manuelari gogoratzen zaio zerbait. Harmairutik atheratzen du mokanes pollit bat, eta cherraka cherraka urratzen. Gero, polliki, polliki, ichkilima bat-zuekin, cherraño hetarik zombait ezartzen diozka Migeli, lephoan. Kamisola jauntzi eta, iduri zuen Migelek espeseko athorra soinean zuela; cherraño hek hain ziren ongi emanak! Jendearen hobeki enganatzeko, gero, Manuela ihizi harek, azken cherra bat, handiena eta polli-tena, gerruntzetik pochi bat ageri, erdi dilindan bezala eman zuen. Eta, Migel alkatea, emazteari bi besarka-aldi emanik, etcheko gerrena iretsi balu bezain chut, karrikari beheiti, herriko etcheari buruz joan zen agudo, berantegi helduko beldurrarekin.

Herriko jende guzia, athe aintzinetan zagon, lente po-

teñte, Alkate-Jaunaren goait. Karrika buruan agertu zeneko, oihu bat alde orotarik: «Biba Alkate-Jauna! Biba!.... Alkate-Jauna, *athorra dariozu!* athorra!»


Eta Alkate-jauna loriatua, zeren haren athorrari, berak nahi bezala, ohartua zitzaion jendea, jauzi batean sartu zen herriko etchean, oihuka ziolarik: «*Duenak dario, duenak dario!*.....

* * *

Handik ondoko asteen, hirugarren athorra bat egina-razi zuen Errekacharreko Alkate-Jaunak. Deskantsuan bizi da geroztik. Zer hel ere, hirugarren athorra hura handu, harmairuan, charparen sahetscan.



Miarritzen — Ama Birjinaren harroka



Piarresen Galtzak



GIZON gaitza zen egiazki gure Piarres: bi metra gora edo hurbil. Elizan sartzen zelarik, belhar zama bizkarrean ukan balu bezala, bi plegu egin behar zen, bere onetan. Bertzela, *kask*, uspel bat ederra biltzen zuen kopetan, Moyse profetaren adarren iduriko uspel bat.

Gaztean, *Tambour-Major* egiten zuen Phesta-Berri guziez, eta Garazi guzilik bazoazin jendeak haren ikus-tera. Kaska eder bat buruan, — oraino handiago izaiteko, — mirail pullit bat kaskaren erdian, makil bat choragarria eskuelan firurikatzen zuela, azpitik eta gaineraino dena urhe, zilar eta chingola, ikustekoa zen orduan Piarres.

Bainan Otehalde eta Etchehunen kantuan errana den bezala.

Bethi gazt'ezin egon, hasi zen zahartzen,
eta, zahartu eta, bardin bertze deusetako ez zela on,
eta bethi igual handi eta gora gelditu zelakotz ere,
herriko auzaphez, herriko *mera* egin zuten, han nombait Garazin.

Erran beharra aherentzi dut, pastiza bezen oneko gizona zela Piarres. Sekulan ez zen hasarretzen, ez eta bere andrearekin ere.



Hor, biharamunean Behorlegiko eztei batzuetara behar zelakotz, Ichabel, herriko dendaria aiphatuenak ekartzen dio, prest-presta, erdian pleguño batekin, galtza edo pantalon pare bat, pullita, bainan pullita! Hala-korik ez zela oraino han gaindi ikusi, hori gauza segura.

Tambur-maior zen dembora famatu hetako urguilutik pitta bat belhi gelditua ere baitziltzaion, Piarresen hartzen ditu galtzak, pulliki, pulliki, eta pullikiago oraino eremaiten, eskailer handieri gora, gambararaino.

Horra orai galtzak ohearen gainean. Bechino! zer galtzak! Nork egundaino izan du holako galtzarik? Zer plegu chuchena, zer puntuak, zer sakelak, zer bottoinak! Eta forradura! Jaun erretor chaharrak lephoan erabiltzen zuen fularño hura ere ez zen, segur gero, forradura hori bezen gochoa eta eztia. Behorlegin aiphatuko ditie, hatik, galtza hauk, Piarres!.. Eta Piarresen, arrats guzietz ur beroan sartzean bezen pulliki, eztiki, eztiki, bere zango luze luzeak sartzen ditu galtzetan! Hauts balite orai! Berroia!..

*
* *

« Jesus, Jainko maitea! Zer da hau!.. Oh!.. Bada posible?... Hean, gerruntzean altchatuz?... Oh!.. Zangoak ez aski luze? Ichabelek galtzak luzeago egin dazkitala? Norendako eginak zituen beraz?... Bi mila sorgin! Oh, oh, Ichabel! »

Eta, dena izerditua, ikare hotz batek hartua, bere galtza madarikatu luzean barnean, salto-motchka ari zen Piarres. Bainan debaldetan. Bethi eta luzeago egiten ari zirela iduri ere zuten galtza pozoindatuak. Oh! Ichabel! Ichabel!..

Azkenean, burutzearik ezin gehiago eginez, berriz aldatzen da Piarres, eta bere galtza berriak eskuan, badoa sukaldara. Josten ari, han ziren Joana bere andrea, eta haren bi alaba Maria eta Kattalin.

« Luzegi ditut ! — Luzegi ? Zer ? — Galtzak : zehe on batez bederen. Hau ez denez lastima ! Othoi, berehala behar dauztatzue laburtu eta gero antolatu. — Laburtu ? Antolatu ? Badugu hoberik, segurki. Eta gure biharko soinak ? Ala ahantzia duzu, eztejelara behar dugula, gük ere, Behorlegira ? Ichabelek josirik behar zinituen, baitezpada... ikus hor, gaichoa. Guk guhaurenak bezala, zuhaurek joskitzu orai zure galtzak ! »

*
* *

Andre moko mehea joko gimuen zuek eta guk. Piarres harritu baizik ez zen, eta galtza charmatuak, han, sukaldean utzirik, ahalke gorritua, mutu egina, joan zen ohera.

Handik oren pare baten buruan bezala, gauzak eta jendeak oro lokartu zirelarik, atheño bat ideki zen pulliki, etche buruan, eta Andre Joana, haichturrak eskuan, orratz eta haria errhien artean, zango puntten gainean sartu zen sukaldean. Beldurrez eta nehor atzarraraz, harrabots ttipiena gabe, jarri zen, eta *krask*, haichtur kolpe batean, zehe bat eta erdi bederen pikatzen diote galtzeri, bere buruari ahapetik diolarik : « Gizagaicho Piarres ! Hik uste baino andre hobeagoa eman zaukan beharrik Jainkoak, merezi ere huen bezala. » Zombait pontu gero, sisa sisa, eta horra galtzak antolatuak, eta horra andre Joana ohean, biharamun arte lo egin baitzuen, halako gochoño bat bihotzean.

Ichlantaren buruko, zango puntten gainean hura ere, Maria alaba zaharrena sartzen da sukaldean : « Gaicho aita ! » Eta, *krask* haichturrekin. Zombait pontu gero, zabra, zabra, eta horra galtzak antolatuak.

Oren baten buruan berriz, gauerditik bi orenetako oilarra kukurukan ari zelarik. Kattalin, alaba gazteena, sukaldean sartu zen hura ere, bethi zango puntten gainean, haichturrak eskuan. « Gaicho Aita ! ». Eta, *krask*, haich-

turrekin. Pontu zombail gero, sisti, sasta, eta horra aita gaichoaren galtzak antolatuak.

Eta etche guzia lo egon zen gero, chochoak oihanetik kantaz hasi arte.


*
* *

Bainan chochoak kantaz hasi eta, Piarres jeiki zelarrik, sukaldetik galtzak ekarri ondoan, galtza hek soinean eman zituelarik, han izan bazinezte.. Hirriz urratuak, nigarra ere begietan geldituko zinezten, egiazki. Gaicho Piarres!.. Hiru aldiz hain ongi mochtuak izan ziren galtzak soinean, hantchet zagon, bere ohearen aitzinean, begia gasna bezen zuri egina, ahoa gisu labea bezembat idekia. Bularrak, besoak hunki eta hunki ari zen, *hura othe zenez* bere buruari galdeka, ala ametsetarik ari zen, harritua. Galtzak, bere galtza ederrak *belhaunelara ere ez zitzaizkon heltzen*, eta, Miarritzen, erdi biluzirik, itsasoan mainatzen diren herrementa hentarik bat iduri zuen osoki. Ahezkoan ere galtza luzeagoak ibiltzen dire, eta Ichenagoko Eskualdun baten pareko egina zen Piarres..

*
* *

..Sukarra jauzirik hantchet berean, ohean eman zen Piarres dohakabean. Ezteietako bichkotchak jateko orde, purga iresten, tizana edaten arizan zen hirur egunez, eta *Darius* zena, Donianeko medikua bizi baitzen oraino, lanik aski izan zuen jaun horrek Piarres gaizoaren salbatzen.

Joana, Maria eta Kattalin, chitun aski egon ziren, zombail egunez, eta Ichabel dendariak, egundaino geroztik, ez zuen Jaun Meraren galtzarik josi.



Gaicho Piarres !



BADIRE jende batzu, dudarik ez da, dena makhur eta nahi gabe izaiteko sortu baitziren.

Orhoit zaitze, behar bada, nola, bertz'orduz, Ichabel dendariak galtza edo pantalon pare bat puskaz luzegi eginik, bere andreak eta bi alabek, elgarren ichilik moztu ziozkaten Piarresi, biharamun goizean, belhaunetaraino ere ez baitzitzaizkon heltzen bezperako galtza luzegiak ? Behorlegiko eztei batzuetara joan beharra, hantchet zortzi egunez eritua egon ere zen, medikuak zer nahi ikusi baitzuen hura ezin sendatuz.

Noizbait bizkitartean, egin ziozkaten galtza batzu neurrikoak, pollitak ezin gehiago. Lorietan zagon ordutik Piarres, norat nahi bazkariz joaiterat ekarria.

Eta huna hor Ustaritzera galdegiten dutela, eztei handi batzuetara. Seietan hogoi lagun behar ziren, Errege Zalomonen demboraz geroz ez baitzen holako eztei bat ikusi behin ere.

Erran eguneko, seiak eta erdietan tank, hantchet zen Piarres, Doniane Garaziko garan, athorra churi ederretan, botoin urhea athorra papoaren erdian, bere galtza ederrak soinean. Gizon pizkorra ere baitzen, hari behako bat egin eta, bazterlzen zitzaizkon denak ichil ichila, eta, treina abiatzean, bere jar-lokirat igan zen patchadarik ederrenean.

Ori, bakar bakarrik egin behar zuen pidaia ! Arimarik ez barneño hartan ! Hobe !..

Izpura eta Arradoiko alderdira eskuin behaturik, ezker gero Uharte eta Izpegiko lephoari, abiatu zen pipa bat erre behar zuela hantchet, gocho gochoan. Eskua saketarlat emaitzarekin beraz, ohartzen da, gauazko uriak bideak zikindurik, bere galtza ederrak dena ichtil eta lohi dituela. . Berroia! Halako gauza pollitak! Eta ezteietara doalarik!..

Pipatzea utzirik, mokanes churia eskuan, jo eta zafra emailen da hor, ziliporta khentzen! Debru bat eta erdi! Ichtil chikinak ez nahi joan! Erhi puntekin karraka eta ichtila barnago baizik ez sarlzen, futchol!..

Bardin nehor ez du han berekin. . Khen balitza galtzak, eta eskuetan har, hobeki torratzeko ? Zertako ez ? Bakarrik ez dea ? Eup! goazen!..

Polliki polliki khentzen ditu beraz bere galtzak, esker eta eskuin behatuz, norbaitek halere ikusten ahal balu bezala. .

Eta orai, lorietan ari da Piarres, bere galtzak garbi eta torra. Haize mehe figura bat heldu zitzaion artelan zango aztaletara, bainan, hots! ichtantean akabo du bere lana. Horra akabo! Leihotik zafra orai pitta bat, eta salbu da.

Eta Piarres, luze luzea chutiturik, bere galtzak eskuetan, ari da zafra eta zafra, Jara mendiko alderdira badoala haren galtzetako erhauts guzia. Landa batean, arbi-jorratzale multzo bat hari eta haren galtzeri beha eman ziren, charboak ur hegian bezala, ahoa chabal, chabala. Ontsa kechu ari zen Piarres! Bandera bat eskuan izan balu bezala, inharrosi zituen bere galtzak, eta uste dut, eskarnio, batean, irri egin ere zioten arbi-jorratzaileeri!..

Bet betan, oh! oh!!!!!!!!!!!!!!

Eskuetarik joailerat utzirik edo ez dakit nola, haizeak hartzen diozka Piarresi bere galtzak, eta galtza hek bazozin orai, han, airean, ezti eztia, aireplan edo tresna hatarik bat bezala. Eta Piarres, zozotua, gasna bezen zuriko

begi batzuekin, bi eskuak aintzin halako orro itsusi bat zintzurretik zoakola, bi plegutan eman zen, leiho ezkinen.

Dolu minaren minez, ez zen gehiago bere buruaren jabe, eta doi doiak egin zuen ez baitzen bere galtzen ondolik leihotik kampo hantchel abiatu hura ere...

Azkenean, nigarrez haur bat bezala, jarri zen edo hobeki erraiteko erori, egiazki erori zoko batean. Oi gure Jainkoa! Holakorik egundaino nork non ikusi du sekulan? Eta zer egin? Bai, zer egin!....

Eta treina, *fiu, fiu, fiu*, firurikan joan, bethi joan, Huna Izpura Agerrea, huna Baigorrrirateko zubi burdinazkoa! Oh! Oh! ichtantean Ortzaize!..

.....
« *Ossès, Ossès, cinq minutes d'arrél!* ».....

Piarres, sukar bat begietan, chutik eman da berriz ere, leihoaren ondoan, eta erhotua egiazki orori ari da kei-nuka, muthileri, garako buruzagiari, Goitiño chaharrari, Irisarriko kurrierari, eta nik dakita oraino nori eta nori Zer nahi luke bada heien guzien ganik? Berak ere ongi othe daki?..

Azkenean, Irisarriko bi atcho pollit ohartzen zaizko eta ustez eta toki bat badaukan han, heientzat, beren kabañoak eskuan, irri batean heldu zaizko, zangoek ereman ahala laster....

Piarres ohartzen zaiote ordu berean, eta ukhamiloak bildurik, hasten zaiote mehatchuka, orroaz : « Zoazte hemendik, atcho demuntreak, edo garbitzen zaituztel biak! ». Eta eginen ere zituen naski hala hala.. Beharrik, harriturik, urrundu ziren emazteki gaichoak, Paberat zeramaten erho zombait zitekela segur gizon izigarri hura..

Bizkitartean, Piarresek ez zakien gehiago zer bilhaka. Treina berriz joaitera zoen.. Nola jauts sarrichago Ustaritzen? Zer ikusi behar ere baitzuen, ez othe zuen hobe oraino, han berean, Ortzaizen gelditzea? Piarreño bere adichkide chaharra han du Arrosan, gizon bat ona, altzeirua bezalakoa,

« *Les voyageurs en voiture, s'il vous plaît!.. En route!*
Tu, tu, tu, tu!»

Haimbertzenarekin, oihu bat aditzen da hor, erranen baitzen irrintzire bat. Treineko leiho guzietarik, garako ondoctarik, denak beira, denak irriz, ezker, eskuin, oro urratuak.

Ondar ondar kenkan, treina abiatzen ere hasia zelarik jada, Piarresek jauzi egina zuen lurrera, eta garako atheari buruz bazoan orai, haga bezen luze, bere athorra zuri handia haizeak zabaltzen ziola alderdi guzietara, galtzarik gabeko zangoak zuri zuria ageri, eta zango heien puntan, zapata alimale batzu soinean. Bizpahiru chakur bazituen jada ondolik, sainga eta saingaka. Lehergarria zen egiazki!..

Irriz hatsantua izan baliz bezala, treina bazoan orai *pufaka*, emeki, emeki, handik urruntzeak dolu egiten balio bezala hari ere..

*
* *

Garako athean, bazen hain chuchen Irisarriko jandarma eskualdun bat, bi jauziz lothu baitzitzaion Piarresi; ordu berean, chakur debruetarik biga athorra petralari lothuak zituen hek ere.

« Nongoa zira ? Zure izena, eta zalhu oraino ! Berbala egiten dautzut, prozedura bat gatz eta bipherrarekilakoa !

— « Piarres naiz, jauna ! Ez niri minik egin ! Galtzak eskuetarik joan zaizkit treinean eta Piarreño Arrosa-koaren ganat noa, bere galtza-pare bat prestuz emanen dautalakoan..... »

— « Zer ! Piarres eta Piarreño ! Nongo Piarres ? Galtzak galdu treinetik ? Zer dituzu ergel solas hoik ?.... »


Eta hantchet, zer nahi ikusi zuen Piarresek bere makurra ezin sinhetsaraziz. Piarreño bere adiehkidea Jainkoak harat ekarririk, gizon gaichoa ereman zuten petrolak eta atchikitzen diren ttattolara, ahalkez ere han gor-

de zadin, Piarreñok bere galtza parea ekarriko zuen arte. Eta gero, gau bethcan, belhaunetaraino heldu zitzazkon galtza batzuekin itzuli zen etcherat.


Elchean zer erran zion andreak ez dakigu, baina dakiguna: hogoi eguncz mafrundi-marhanta izigarri batekin egon zela Piarres eta egundaino geroztik ez dela herritik athera nahi izan, ez eta eztei handienetara joiteko ere.



Espartín egiten



Aspaldiko soinulaci eta dantzariak



GAUDEN ESKUALDUN



MARIE. — GOAÑA. — KAMELUA. — MARGAITA. —
JOSEPA. — PANTCHIKA. — GACHINA. — MAICHIKI. —
BERTZE ZOMBAIT, NAHI BADA.

*Paretan emana, ikus dileke Ama Birjinaren iañuri bai,
chira hostoz erdi estalia, borda zahar bai han balitz
bezala. Marie, arizain gazte bai, bere gollz' erdi orrat-
zak eskuan, heldu da eskuinetik, hurratsean, guzia bere
lanari. — Joareak, ardi eta bildotz marrazak ezagun
dira noizik behin. Chakur erausi zombait ere bai. Kan-
tuz sartzen da Marie, eskalapoin eta galtchoinetan.*

I

MARIE (*bakharrik*)

Airea : *Mendian zoin den eder*

« Artizarra zeruan agertzen denean,
Goiti noa, ni ere, harekin batean ;
Sartzera egiten du ilhun-nabarrean,
Ni ere itzultzen naiz omoré onean ».

(*Bazterrerri ongi behaturik mintzo da orai Marie :*)

MARIEK. — Holachet, hor, Ama Birjina maitearen oi-
nelan, uste dut arras ongi izanen naizen, itzalpean.

(*Kopela chukatzen du esku batez*) Bero, bai ari du ! Fuu !

Nere ardiak ametz bakar horien azpian, chiloz chilo
badoazi, itzal pitta bai atchewan beharrez, hek ere. Bai-
nan arratsalde aphalean atherako dire hegi hautako aire

gochorat. Eta arte huntan, gaizkiche izanen dire *Goichbi-den*! Behako bat emanen ahalko diotet noizetik noizera, hemendik beretik, (*Chakur erausi bat....*) Eta bertzalde, nahiz otsoek toki hauk hustuak dituzten aspaldi huntan, gure chakur onaren menturan utziak ditut.

(*Ama Birjinari behatzen dio*). Agur Ama! Hemen naiz ni berriz ere, nere lanean ongi hasi gabe, zuri agurño baten erraiterat ethorria. Lagunt nezazu, othoi nere behar ordu guzietan eta begira gal-bide guzietarik.

(*Belhaunikatzen da, eta ahapetik olhoitzean egoiten, Agur Maria baten heina. Eta gero, galtzerdiak eskue-tan, chulitzen da, eta jartzen berehala, ezli ezlia kan-tatzen duela:*)

1

Ama Birjina Maitea,
Zeruetako Alhea,
Parabisuko Lorea,
Zure zare Ama gurea!

2

Bego ura arrainari,
Desertuak lehoinari,
Hegaztinari airca.....
Zu ama zaude..... gurea! (1)

II

MARIE. — MIKAELA.

(*Haimbertzenarekin, eskuinetik heldu, agertzen da Mikaela, modan emana..... maska edo mamu bat bezala*).

MIKAELAK. — Zer ari zare hor, orai ere, iduri eta sain-du ? Jainkoaz baizik ez hartua, zu ? Nork zer erranen

(1) Kantu hori ez dakitenek bertze zerbait eman dezakete, horren orde.

duen zutaz ? Ori, ez dute jendeek zutaz gaizki hirri egiten ! Bazinaki ongi ! Utzkitzu bada enuchenkeria horiek guziak, eta zure gaztetasuna iragan, nik bezala, jostetetan, saltoka eta dantzan !

MARIEK. — Nork zer erranen duen nitaz ? . . . Ez nuen bada uste nehor handirik bazitekela nere ikusteko, Goich-bideko borda zaharraren aldean !

Eta bertzalde, nere debozioneak ez dio, nik uste, kalterik egiten nihori Jendeak hirri egin dezan ? Zer zaut niri, Ama maite hunek (*Ama Birjina erakusten dio paretan*) begi onez behatzen balimbadaut, eta bihotza bakean balimbadut ?

MIKAELAK. — Ha ! ha ! ha ! Ori, egon ongi ! Banoa ni, hauzoko phesta horietara, ederkichko dantzan hartzera ; gaur ikusiko nor helduko den hobeki, zu othoitzean arizanik, ala ni dantzan jostaturik !

MARIEK. — Baditake *gaur* ni baino hobeki helduko zaren, hola eginik Baiman *bihar* ? Bihar ageriko Jainkoaren aintzinean, zure dantzak ala nere othoitzak baliatuko diren hobekienik !

MIKAELAK. — Ha ! ha ! ha ! Serora joaiteko on zare ja segurki.

(*Hola Mikaela minizo delarik, eskuineko ezkinari agertzen da Goaña*) Egon ongi, itchura-mundu ! (*Eta badao Mikaela*)

III

MARIE. — GOAÑA.

GOAÑAK. — Zer zioen perreka horrek ? Itchura mundu ? Eta hori zer da ? Mundu itchura, ori ! Zer zion oraino ? Ah ! bai ! *Serora joan behar* ? Bethi hori dute ? On izaitea aski du neskatcha batek, serora joan behar duela entzuteko. Ez da oraikoa ! Onak oro serora beraz ? Hori bezalako trasterik baizik ez behar gure herrietan, gure Eskual-Herrian ? Mikaela bezalako petrailik

baizik ez balitz bazterretan, pullita liteke mundua, behin bederen! Ha! ha! ha!

MARIEK. — Ba, ori, bego, dohala bere bidean! Bihar eta gaur ere, horrek ez bezalako gochoa dukegu bihotzean. Gure amatebik ez du beltzuririk eginen, galtzerdi hauk (*erakusten ditu*) emanen diozkatarik.... Atsegin bat izanen du!

GOÑAK. — Ez gutiago gure amak! Mafrundi tzar batekin baitabila aspaldian, nere buruarekin egin dut, zure ganat behar nintzela ethorri, trikota beltch hunen ahal bezen laster akhabatzera; nere ama gaichoa bero bero egonen da, hola, hunen barnean.

MARIEK. — Ba, hola behar ginuke bethi gure chaharrekin! Ez ditugu aski mailatzen, gauza hauskorño batzu bezala behar ginuzkelarik bethi artatu! Halako gochoa lukete, hek ere, beren bihotz gaichoetan!

GOÑAK. — Hala bala da hori! Gure ama, ez delarik bada mainazu hetarik, barda ikusi dut hain hunkituharrotua egiazki! Bere mafrundiarekin, sukar puchka bat saltaturik, ohera joana zen. Ereman diot sendagailu zerbait, eta, harek ni haurrean bezala, nik hura forratu pulliki eta pulliki; eta gero, bi musu eman diozkat bere matela gorriño hetan..... Ikusi bazinu haren loria!... Badut uste nigar bat ere eskapatu zaion.....

MARIEK. — Sinhetsiko zaitut, Goña. Hormatzen hasiak ere direlakotz, gure chaharrereri iduritzen zaiote pochohu eta traba direla orori; beldurño batekin bizi dire, gaichoak!... Balakite ongi zombat maite ditugun!

GOÑAK. — Gure bihotzak bezala, Jainko legeak ez othe dauku hori manatzen? Eta, hoin maiz hartzen dugun ostia sainduko Jesusek ez othe zituen Ama-Birjina eta San Joseph gochoki mainatzen!

MARIEK. — Ederki diozu. Hetaz holachet mintzo garel, goazen gure lanean; mihiak, bihotza eta eskuak, oro betan. Bardin, ardiak hortchet berean ditugu, mazela choko hortan, *Churikok* ongi zaintzen dituela, bati asiki,

bertzeari champa eta orroa, urrunegi doazilarik
(*Haimbertzenarekin, Churiko entzuten da erausita, eta saminki*).
Ori, huna non ari den champaka..... Zer othe du orai-
koan, hola kechaturik ? Chutitu eta zoaz ikustera, Goaña !

(*Goaña badoa ; pilla bat beiratu eta ezkerreko aldean,
heldu da kuchean*).

GOAÑAK. — Mikaela heldu zauku gibelerat, *Kamelua*
deithua dugun andre kaskoin, dakizun harekin.....
Nork othe daki ongi nor eta zer den atso tzar hori ?
Bi urthe badu hemen dela, goiz batez ethorria, hazilan
beleak gure landetara bezala. Nondik eta zertara ?.....
Dena den, Mikaelak eta haren iduriko bertze zombailek
ados egin dute laster sorgin tzar horrekin.....

MARIEK. — Ez zauzkit balre gustatzen batzu ez bert-
zeak. Goazen gure ardiectara, edo bederen, berro horren
gibelean eman gaiten. Ikusiko bederen ez gaituzte hor-
rela. Zerbait da hori ere, mokokan artzeko orde, osti-
chon bezala.....

(*Ezker, gaineko aldetik, badoazi biak gordelzera*).

IV

(*Kamelua eta Mikaela heldu dira ezkerretik, aintzineko
aldetik, gordagiatik hurbil*).

MIKAELA. — KAMELUA.

(*Kamelua kaskoin-eskuara batean mindatuko da*).

KAMELUAK. — Mikaela, hi ez dela kontent, gibelerat
nik ekarrarazirik. Bainan ez dela hik penarik izan behar.
Fite libro izanen dela hi. Ni joan behar poztara, zozu
anitz altxatzera. Berehala joanen eta jinen biak, eta
gero hementxet, leku gochoa, bi hitz erranen dela nik
hiri, hiri bakarrik ; ez bertzeri, hiri bakarrik, hi maite
delakotz nik. Azpaldi hi nahi nik hola bakarrik ikuzi....

MIKAELEK. — Ikuzi ? Zer naiz bada zikina ?

KAMELUAK. — Bo' Erran nahi zela nik *mintzatu* Mikaela, eta ez dela hik trufatu behar hola nitaz!

(*Badoazi aintzinal, eskuin, eta Marie eta Goaña agertzen dira ezkerretik*).

V

MARIE-GOAÑA.

GOAÑAK. — Aditu duzu ? Zer suertea, solas hoik entzun baititugu, eta balre ez ginuelarik uste! Ez da segurki debalde izanen, gu hola hemen baiginen..... Behar dugu jakin, eta jakinen ere dugu zalu, Kameluak zertako balakatzen dituen Mikaela eta haren kideko neskatcha gazteak.

Banoa gure lagunen bilha. Margaita, Josepa, Pantchika Gachina, Maichiki eta bertzeak ethorriko dira lasterrez, eta ikusiko dugu... ikusi behar ginuena. Jainkoak ekarri gaitu gaur hunara. (*Badoa Goaña, eta Marie bakarrik gelditzen da buñaño batez*.)

VI

MARIE, (*chutik*)

Bai, zoaz zoaz, Goaña maitea. Bolbora bezen bizia zare bethitik. Bainan hala, hala, zer bihotz ona, eta zer berthutea! Zu bezalako hainitz behar liteke bazterretan, uzkur direnen sustatzeko, *on* bainan *ahul* direneri su-emaiteko.

Bai behar dugu jakin zer duen golkoangure Kameluak. Mikaela eta bertzeak ez dira baitezpada tzarrak, bainan bai enuchentak. Zuzenez segurki erraiten da holako horietaz, direla pika-buztanak, ezen Kameluak derabilzka, haizeak pikaren buztana derabilkan bezen errechki. Bakarrik, haizea ez da hobendun, Jainkoak manatua egiten baitu harek.... Bainan, Kamelua eta mundu zabaleko bertze Kameluak ez othe dira, hek, hobendun ? Jainkoak manatua egiten othe dute horiek ere ?

(*Ama Birjinaren gana itzultzen da Marie, eta:*)

O Ama ona, ez dakit zerentzat, bainan holako beldur bat bezala sumatzen dut hor. (*bihotzean*). Erho bat bezala, saltoka, pumpaka ari zaut bihotza. Bainan, zu hor zaitugu, gure laguntzeko. O, ba, lagunt gailatzu, egun ere, gure bertze behar-ordu guzietan bezala!.....

Bainan, huna, nere ustez, gure lagun onelarik zombait-ño bederen. Zoinen gocho egiazki lagun onen izaitca! Eta zer ongia egin dezaketen elgarri, Goaña bezalako neskatcha multzo batek!

*(Hemen trumilka sartzen dira eta gorrituak, hatsak-hant-
tuak, Goaña, Margaita, Josepa, Pantchika, Gachina,
Maichiki eta bertzeak. Oro lehenagoko neskatcha Es-
kualdunen soin pullitetan emanak dira, buratik eta-
oinelaraino).*

VII

MARIE. — GOAÑA eta BERTZEAK.

GOAÑA. — Hean zer duen golkoan gure Kameluak ? Jakiten ez den sekreturik ez omen da lur huntan. Hean, hean!

MARGAITAK. — Zer lasterrak egin ditugun! Ufa!

JOSEPAK. — Nik segurik hatsik ez nezaken gehiago!

PANTCHIKAK. — Eta nik, gaichoa!

GACHINAK. — Beharrik aintzindu baititugu!

MAICHIKIK. — Ba, bainan ez dut uste luze igurikatuko dugun, ezen, bertze bidetik heldu, harek gu ikusi gabe, ikusia dugu Kamelua, bere lekaioarekin heldu hura ere.

GOAÑA. — (*Ama Birjinaren gana itzultzen da eta*;) Zaude deskantsu, Ama Birjina maitea. Zuk laguntzen balimbagaitutzu, ez dugu zeren beldurti.....

(Eskuineko alderat behatzen du Goñak, zango puntlen gainean, erbi bat espainen gainean, eskutaz, ichil ditezten manatzen diotela bertzeri, eta erdi ahapetik.)

Huna gure debrusa! zalu goazen gordetzera!

(Badoazi oro ezker, berroa han balitz bezala).

VIII

KAMELUA eta MIKAELA

KAMELUAK. — Horra gu helduak dela, Mikaela. Oi, zer pitarra! *Mikaela hirriz hasirik, ohartzen da Kamelua gaizki erran duela hitz hori*)... Nik erran nahi zela *petarra*, hotz!... Ez dela nik Eskualdunen bulharrak, eta hatz'hantua dela ni, *pegar* hunen.... erran nahi zela *petar* hunen gainera heldurik!..... Atch! Hai! Ezkualdunen mintzaira hartu dela nik, eta untza! Bainan ez Ezkualdunen indarra! Utzi ni hatzaren hartzera, Mikaela, eta gero, ori, hortchet Ama-Birzina horren ondoan untza izanen biak, nik hiri erraiteko ichtorio pullitak. Ama-Birzinak entzunen tiela oro, deuz pagatu gabe. (*Hirri maltzur bat eskapatzen zaio*;) He, he, he!!!!

MIKAELAK. — Behazu! Ez zaut batre laket Ama-Birjinaz hola zu mintza zaiten.... Ez naiz debota, segurki, bainan utzazu Ama-Birjina, hartaz burlatu gabe.....

KAMELUAK. — Haurra! Ergela dela hi! Mintzo dela, aphezek erranak egiak balire bezala : bertze mundu bat baliz bezala, Jezuzekin, Ama-Birzinarekin eta zainduckin!

MIKAELAK. — Eta bertze mundu hori baliz gero ?

KAMELUAK. — Nor ikuzi dela zekulan, handik heldu, zerua badela eta ifernua erraitera ?

MIKAELAK. — Bainan, hala hala, nor ethorri da sekulan, han, bertzalde hartan, deusere ez dela erraitera?... Eta orduan ? Balitz zerbait ? ... O! ikare batek hartzen nau, hortaz gogoetatu eta !

KAMELUAK. — Ez gogoeta, te.....! Nik bezala egin : ongi jan, ongi edan, jozta, eta egun batez leher egin!

MIKAELAK. — Bai, chakurrak bezala.....

KAMELUAK. — Zertako ez ? Ez ditazkela bardin oro izan! Edo *hau*, edo *hura*. Batzuek — ergelak — *hura* nahiago dutela, guk *hau*..... Horra guzia : hortan dela.

MIKAELAK. — Izitzen pauzu !

KAMELUAK. — Ez izi,te, batere! Nik emanen dela zueri zer nahi, zer nahi, pheztak, liburuak, kazetak, moda eder-rak, zoza ere eta urhea oraino, ez papera zikina. Zuek ez dela oraino azki... — nola erranen nik? — ez oraino azki joztela maite; zuek zobera Ezkualdunak egoiten! Ez azki kopetatuak, ez azki parparoak edo papoak ageri; ez azki Mari-mutikoak, ez azki irakurtzen nere liburuak eta kazetak; zuek ez azki jakinak, zobera goiz itzultzen alzetan dantzetarik eta..... Nere nauziek hori errepi-katzen dela batzuetan, eta gaizkitzen dela ni!

MIKAELAK. — Zure nausiek?

KAMELUAK. — Te! guziek baduela nauziak, mundu huntan! Nereak han dire Parizen, aberatzak, puchantak. Ela hek ere badutela gero nauzi bat, nauzien nauzia, han numbait, lurrean edo... numbait.

MIKAELAK. — Bainan, zer bilhatzen duzue bada, gisa hortan?

KAMELUAK. — Zer bilhatzen? Bainan, zuen argitzea! Gaizkia ez dakienak zer daki? Zer bilhatzen? Bainan gaizkirako bidearen zueri erakuztea. (*Erhotzen bezala da Kamelua: urrunegi doala eta Mikaela, begiak zabal, harrilua dagola oharlu ere gabe, aintzina derasa:*) Gaizkiaren egitea, zer loria! Handiagorik othe dela munduan? Arraza garbi, hazkar baten arthikitzea, hori ez dela deuzik?... Eskualdunak garbi, hazkar egoiten, beren Ezkuara mintzaira madarikatuaren gatik, beren fede eta kazko gogorren gatik! Heien, azpitik, harrotzea, heien zikintzea..... hori dela hori loria, Mikaela!

Arraza garbiak arthikiz, ene nauziak eta ni.... *belhi nauzi* izanen dela. Bertzenaz, ez gehiago nauzi, akabo lilekela gu zekulakotz..... Eta orduan, nauziek igortzen dela niri zoza burruztaka, eta nik biltzen dela jendea; nik ahutaraka, botatzen dela kazeta, liburu, moda dantza, gauazko dantza bereziki, zoza ere ba eta zer nahi... Ezkualdunen argitzeko.

Ba, Mikaela, zuk mintzaira Ezkualduna jakin dela, eta

zuk lagunduko dela ni, eta Mikaela aberatza izanen'dela, chapelak eta oroikin.....

O Mikaela, loria zenditzen dela nik bihotzean! Fuera elizak, fuera aphezak, familia eta etche oneztak! Biba urhea, biba plazerak! Biba libertatea eta mundutarrak!

(Mikaela harrিতua dago; gibelera egiten du ja, Kamelua-ren begi zorrotz izigarriak ikusirik..... Ordu berean asaldura handi bat, oihu bortitz batzuek entzuten dire, eta neskek gaizte on guziak furian saritzen dire, goosti aldaska bana eskuan:)

IX

ORAI ARTERAINOKO GUZIAK

Kuku! kuku Kamelua! kuku, anda, arraza arthikit-zaileak! Kuku debrusa guziak! Hu! hu! hu! Anda ere horiek enganatuak, gu ganat itzuli ditezken artean! Ahalkea heieri!

Biba Eskualdunak! Khampo gu zikindu nahi gaituzten arrotzak! *(Eta goostia ukaldika igortzen dituzte Kamelua eta Mikaela, mututuak biak; bat herria bihotzian, ahalke gorritua bertzea.)*

X

ORO, SALBU KAMELUA ETA MIKAELA

GOÑAK. — *(Ama Birjinaren alderat itzulirik:)* Ororen ize-nean milesker Ama! Zure gogorako izan othe gira? Barka diezaguzu, soberachko chichtatu balimbaditugu.... Ardi errebelatua bezala itzuliko daukuzu Mikaela, eta bertzea... dohala bere Nauzien ganat!

(Guziak emaiten dire kantaz, Uholde baten pare kantua-ren airean:)

«Lehengo Fede hura berriz pitz dakigun,
O Fededunen Ama, zuk gaitzatzu lagun!
Bai Eskualdunek hemen hitzeman dezagun
Bethi zinez izanen garela fededun!

Bai Eskualdunek, hemen,
Hitzeman dezagun
Bethi zinez izanen
Garela fededun! »

MARIEK. — Eta orai, bozkarioa bihotzean, josta gaiten
ongi, othoitzean bezala, dakigulakotz ere elgarrekin
ederki deskantsatzen.....

*(Eta oro emaiten dire, erhiez zirtaka, lokian berean dant-
zatzen, hau pulliki kantatuz:)*

1

« Haurrak, ikasazue eskuaraz mintzatzen,
Ikas pilotan eta onheski dantzatzen.....

.....
tra la la, la la ra, la la la, la ra ra etc.....

2

« Bertz'orduz hazen beraz bele bat zaharra,
Hegal bat zuen luze, bertzea laburra,
Hegalño hau ez baliz izan hoinen charra,
Kondera izanen zen luzeago, haurra!
Tra, la la, la la la, la la la.....! »

JOSEPAK. — Atch! nik segurik baduket aski hola!

GUZIEK. — Guk ere, gure ustez! Ufa!


MARIEK. — Hots, goazen beraz, zuek zuen etchetara,
eta ni nere ardielara, eta gero,

« Ardiak eta artzainak.....


Gauden oro..... Eskualdunak!! »

*(Orok agur egiten diote aditzaileeri, eta badoazi gero,
beren goostiak eskuetan, kantuz ari oraino:)*

Tra la la, la la la, la la la, la ra ra!.....



Aberystwyth - edaf - araf - ten



Tabako-Belhar Tizana



JAINKOAK EZ zuen bada pipatzaile kreatu! Hogoi-ta hamabortz urthe segurik bazituen Leonek, lehembiziko zigarreta egin zuelarik. Ordu arte, jaten zituen ezteietarik ekartzen zuen doi doia, jaun esposak eman zigarro erhaztunarekilako bat, eta hura ere adichkideentzat.

Bainan gero hatik, hasi balimbazen, hasi zen! Gostu hartu gure gizonak. *Bokaleko* chiminea iduri zuen haren ahoak: egun guzia sutan. Hastean, ez zuen planta izpirik. Jaun Piroa bezen lodiko zigarretak egiten zituen, turru-putun itsusi batzu, adarrak alderdi guzietarat zoazila. Nago, sei hilabetez, hertze pullit hetarik bat erre othe duenez bururaino? Leher egiten zioten bethi, bide erditan. Eta orduan, kautera bide bazterrean bezala, paper peachu emailen artzen zitzaioten, bustiz, bustiz!

Bainan ari bethi, bethi ari, futchu! Eta, hastean, haurrek hantzen duten aphoa artzen den bezala, pafa pafa pipatzen arizan ondoan, hor, ikâsi zuen frango pulliki. Tabakoak horitu erhi batzu erakusten zituela, — soldadoek beren gerlako zauriak bezala — erraiten zuen, maltzur maltzurra: « Hain berant hasirik zuela bere dolu guzia..... Jakin izan balu zoin gocho zen pipatzea! Bisaia! »

Ari zen beraz Leon, ari bethi, eta tabako saltzaileak erostun hobeagorik ez zuen.

Hor, heldu da gerla. Familia eder baten aita baitzen, Leon ethecan gelditu zen, gerlarat joan gabe. Etsai itsusia bere chichparekin ezin errez, erretzen zuen..... zigaretaz leherra, sekulan baino gehiago.

Ba, bainan gero, tabakoa, belharra, kariotu, chuhurtu, agortu. Espainiatik heldu zen oraino puliki, haste, hartan ; bainan, gero, Españolek Alemaneri emaiten ziote-lakotz, edo kambioa demuntretan gora joan zelakotz, Espainiatik deus guti baizik ez heldu. Eta, Leon, ichtant oroz, han zagon, bere erhi horituari begira. Gaicho erhiak! Zer pairatzen ahal zuten! Eta Leonek ? ez othe zuen pairatzen ? Chakhur ihiztorra erbiari bezala, han zagon, zigarro usain bat noiz eta non sendituko zuen, harat jauzian joateko, *battoren* eske, edo bederen usain gocho demonioaz sudur chiloen bethetzeko!

Oro tabako belhar ziren orduan. Artho-bizar, haitz-hosto, aisuna, sakelako errhauts guziak on ziren. Badut uste kafe errhautsa ere baliatu zen, ethech'andreari ebaska.

Bainan, nork iraun hala, Jainkoak mirakuilu bat ez balimbazuen egiten ? Eta mirakuilua egin Jainkoak.

Egun batez, hor, aste baten porroska tzar baizik ez zuelarik gehiago Leonek, *Olechagabiako* Español adich-kide batek ekartzen dio, eta ichilka saltzen, 25 liberetan, tabako hosto bat gaitza, kiloa bederen pisu zuen hostoa! Leonen loria! Sukaldean nehor ez izanez hain chuchen, dantzan hasi zen, hantchet, tira-ahala, dantza-jauzietan. Dolu zuen Español begitarte beltza joaiterat utzirik, bi musu hari eman gabe.

Noizbait akituche zelarik, gelditu zen dantzatik eta, ichil ichila, harmairu choko batean eman zuen bere tabako-hosto eder mirakuiluzkoa, cherraka, cherraka, kani-taz pulliki pikaturik.

Biharamunean, *Pettan*, etchekeko osaba adineko bat, erichko izanez, schia joan zen delako armairu hartarat. Malba hostorik ez hatchemanik, ez eta ere tillurarik, eskuratzen ditu bezperako tabako hostoak. Duda pitta bat izanagatik, hauzorat ez nahiz joan, hosto hek ere segur sendagailu zirelakoan, egiten du heiekin tizana bat, bainan tizana bat, kolorearen cderrez begietarik ez baitziteken utz!

Azukrea kario zelarik arras, halere ongi azukrestatzen du, eta *Pettani* emaiten.

Ez duzue ezagutzen *Pettan* ? Igual du. *Pettanek* beraz, mazapena bezalako gizon bat baita, tizana edaten du, eta Jainkoaren lorian, hurrupatzen, azukre ondarrak eta oro kullirarekin biltzen dituela eta milikatzen.

«Zer tizana, hau, *Mariño*! Hilak phiztuko ere ditu holako gauzañoak!»

Eta, *Mariño* gorri gorria egina, urguiluz hantua, galdez eman zitzaion, hean bigarren taza bat hartuko zuenez.

Pettanek, ez baita gormant helarik, ez zion bigarren tazarik hartu, bainan zortzi egunez, hantchet, lorieta hurrupatu zuen tizana charmatua. *Apetitua* joantchea ere baitzuen aspaldichkoan berriz jin zitzaion, koloreak gorritu, begia argitu. Hots, gaztetu, gure gizona.

Handik zortzian, bere azken porrochkak errerik, *Leon* badoa harmairurat, bere tabako hostotik tochan eman beharrez. Ah! zer paladak arthiki beharrak dituen, sarri, bere adichkideak bekhaiztiz kirrikan daudelarik!...

Bainan, non demuntre da ?

«—*Mariño*, non eman duzu nere tabako hostoa ?

— Tabakoa nausia ? Ez dut nik tabakorik ikusi!

— Tabakorik ez ikusi ? Zer egin da, bada, duela zortzi egun nihaurek cherrakaturik, hementchet, choko huntan, paper ilhun hunen barnean eman nuen tabako hostoa ?

— Paper ilhun hortakoa ? Tabakoa baitzen ? Ai doha-kabea! Ai! ai! ai!

— Hots, zer tutzu intzire hoiek ? Zer egin duzu ene tabakoa ?

— Pettani eman

— Pettani ?


— Bai osaba Pettani ; zortzi egunez, *tizanetan*.....
ustez eta malba hosto zerbait zen.... Ai ai, ai!.....

— Tizanetan ? Ene tabakoa ? Hogoit'a hortz liberaren tabakoa ? Bi mila..... Zoazkit bichtatik, perreka, herresta, herbaila, krebauta ! Ez dakit bertzenaz zer egingen dautzulan ! »

Eta hain chuchen, oro entzuten zituela, Osoba orduan berean sarturik, han zauden, Pettan eta Leon, sukaldean, chutik, elgarri beha, Leon hasarreak gorri beltzatua.... (25 liberaren tabakoa tizanetan!) eta Pettan, pareta bezen zuri egina beldurrak... (Zortzi egunez tabakotizana nik edan ! Pozoindatua ! Galdua.....)

Botikarioak, erhotuak, hor ibili dira, jo harat, jo hunat, eta uste dut sendagailu berri bat izanen dugun laster, Mariño gaizoari esker.

Bainan Leon eta Pettan, hasarre, samur egonak dire hilabethe batez, elgarri solasik eman ere gabe. Eta ez dakit, batere, zoinek barkatu dion lehenik bertzeari...





GHINTGHIMARIAK ⁽¹⁾



TARRAPATAN, kechu kechua bazoan *Darius* medikua, auzoko elchek'andre bat bet-betan aldicharturik. *Debrientchoa*!....

Ez duzue *Darius* sendakina ezagutu? Ai, ai, ai, gaitchoak! ez duzue beraz *lehenagoko* medikurik ezagutu!... *Crinée* delako aurkintzan soldado zaurituen arlhatzen arizanik, guduak eta odol ichurtzeak higuindurik, *Dominic* Garazirat jin zen goiz batez, eta hantchet kokatu, orai *Central Hôtel* derizan etchean. Eta handik harat, lehenago gudulariak bezala, jende chehea arlhatzen zuen orai, aita batek bere haurra arlhatzen duen bezen ongi.

Uda ala negu, gauaz ala egunaz, edo zoin tenorez, eriazen meneko zen, bethi. Kauter chapel handi bat buruan, soineko luze bat emanik, bilhariarekin batean berehala atheratua zen elchetik, oinez, bi eskuak erraingibelean kurutzaturik. Iduri zaut oraino ere ikusten dudala, hantchet, gazteluko karrikari goiti joaki! *Debrientchoa*!

Eta zaldiz zoalarik, bere zaldi kankaila alimalcaren gainean! Zinez eta egiazki ikustekoa zen orduan! Zaldia putinka, eta *Darius* izitua, oihuka, bere ustez zaldiaren balakatzen ari: « Cho! cho! debrientchoa! Ez dakika nausia dukala gainean?..... »

(1) Ghintchimariak, edo *flchainak*, Odol-etaleak, Ezin sinhetzia izana galik, egiazki gerthatu gerthakaria da hau.

Begi batzu bazituen ! Handiak, biribil-biribilak ; ez baitezpada ederrak, baina bera bezen onak eta samurrak. Jon Doni Bichintchoren, bizarra iduriko sagar-erri bizar batek hartzen zion begitarte azpi guzia. Baina, ez ginion egun oroz ikusten ! Uda ala negu, beldurrez eta hormak jo, kokotz, sudur eta beharri, oro kukutzen zituen lephoko handi batekin. « *Errefriaño* bat bildu balu, hautchet ! *Debrientchoa* ! »..... Gaizo Darius !.....

*
* *

Kechu kechua bazoan beraz, goiz hartan, bere ulitcha guziekin. Kechu kechua bethi, sartu zen eriazen gamberan, eta eriarri, berehala, foltzua ikertu zion : « *Debrientchoa* ! zer dun ? zer egin dun ? » Bere begi zuri handiak, athera nahi izan balitzaizko bezala, ari zitzaizkon inguruka, fur-furian. Eria aldichartua, eta Katalin, haren sehia, harritua ! Zer ikusi behar othe zuten, gizon debru harekin ?

Hor noizpeit, aski laster, begiak gelditu ziren itzulika ibiltzetik, eta atsegin hartu zuen Katalin gaichoak, Darius-ek erran ziolarik : « Ederretarik eskapatzen dun aldi huntan oraino !..... Deusik ez din izanen, Jainkoari esker ! Prestuki dagola hor !.... Eta hik, Katalin, zangoak beroki begiratzion hire etchek'andeari ! Eta gero, lehen bai lehen, *hamabi ilchain edo chintchimari harrazkon*..... Sarri arte ; ilhuntechean ethorriko naun berriz ».

*
* *

Oren laurden baten buruan bezala, pulliki pulliki, zango puntten gainea, untzi churi zabalño bat eskuan, gamberan sartu zen Katalin. Hain chuchen, etchek'andrea bere baitharatzen ari bezala zen : « Deusik ez omen duzu izanen hoi, etchek'andrea ! Ori, harratzu hauk, berehala eta bero beroa ! On eginen dautzute.....

— Zer dira horiek, Katalin ?

— Dariusek manatuak, ontsa onak, etchek'andrea, perrechil eta gatzean arin arina erreak ! »

Eta eri gaichoa hor emaiten da untzi chabaleko hamabi *gauza on* hetarik bat jan beharrez.... tira ta tira.

« Oi, oi, Katalin, zer dira hauk ? Zain handia bezain zailak iduri dute ; hertze luzea bezambat luzatzen ere dira..... »

— Janzkitzu, etchek'andrea ; beharrez, *iretskitzu*, zailak iduritzen balimbazaizkitzu. Bizkitartean, perrechilean eta..... ontsa moldatuak ditut segurki.....

— Oi, oi, aski, aski hola !.... Ezin jan dezazket ; ezin trenka ; iretsi behar, zailaren zailez..... »

— Hots, etchek'andrea, azken hauk garhaituko ahal ditutzu ! Lau baizik ez dira orai gelditzen. Hauiek behar zaituzte sendatu eta zangoen gainean eman !..... Holachet..... Hiru, hiru bakarrik orai, eta hoin ontsa nihaurrek erreak, echli echlia !..... »

Eri gaichoa, begiak itzulika ari zen jada ; baina Katalin bihotz-onekoa *lente polente* egon zitzaion aldean, hamabigarren eta azken chintchimaria hark iretsi arte. Uste dut hamabigarren hoi erhiaz sartu ere zion ahoan, ezen gorri beltzatua, ezagutzarik gabe, leher egiten ari, azken hatsetan zen orai etchek'andre dohakabea....

* * *

Oi Dariusen lasterrak, Katalin tarrapatan jin zitzaionlarik erraitera, *harek manatu hamabi chintchimariak janik*, leher egiten ari zela etchek'andrea !....


« Chintchimariak jan ! Debrientchoa ! Janarazi dazkonala ? Zinezko aslaña, zozo pikaroa ? Ergela !.... »

Zer nahi ikusi zuen Darius gaizoak eri dohakabea galbidetik ezin atheratuz, chintchimaria debru hek ezin aurtihikaraziz. Zer chimichtak, arratsalde hartan, haren begietarik eta schi trunkora !

Noizbait, azkenean, atheratu zen hamabigarren chintchimaria, sartu zenean bezen musker, edo kasik. Izerdi uharretan joan zen orduan Darius, Katalini azken chimichta bat igortzen ziola. « Debrientchoa ! Astaña figura ! »

Bainan Katalin bere hartan gelditu zen bethi ; eta zer sorginkeria baitzen ere han, egundaino ezin du hartu buruan, haren hutsik bazitekela « Gatz eta perrechilean hain ederki gochatu itchainak ! Demuntren Darius ! Zer uste zuen ala aingira eta charbo erretzen ez zakiela Katalinek ! ! ! ! »

Geroztik, etchek'andre, sehi eta sendakin, oro joanak dire zerurat ; bainan han ere, elgarri beltzurika ari omen dira bethi Darius eta Katalin.



Donosti'n San Bichinto



BEDERATZIGARREN ASTOA



ZER beroa! Erre nahi zuen Donazaharreko bidean. Aire izpirik ez, eta lurretik halako bafada bat! Uf!

Ellande gaizoa bazoan bide berriaren sahetsetik, beroak seliatua, bere aitzinean zeramazkala bederatzi nafar asto ederrak. Churi, beltz, gorra, bazen mota guzietarik. Buztanaz uliak haizatuz, begiak dilindan, bazoazin terrententen.

Bainan, fulcho, astoentzat ere bero zen, eta nun nahi baratuak ziren, muthurra sasian, toki fresko, bat atze-man beharrez: «*Arri astoak, arri!*».

Debalde! Bazuen zeri loth *Ellande* gaizoak! Zigorraz, zaharoaz jo, ala thu egin, bardinera zoan. Eta hantchet joan behar, izerdi uharretan, beroak zozotua!

Noizbail heltzen dira *Manuelen* ostatura. Ez zen goitchege! «*Iso, astoak, iso!*». Eta horra bederatzi astoak, tankez baratuak, errechimenduko zaldiak gelditzen diren bezala.

«*Manuel*, pintaño bat arno, eta zalu! Chutik ez niagok, eta bideko erhauts guzia, hortchet kokatua diat, zintzurtean. Hauche duk sapa! Nork iraun holako beroarekin!.....

«*Ai zer gochoa, orai! Zinez, Manuel*, Nafar arnoa Nafar astoak ez bezalakoa duk! Bertze ttintta bat, oraino, patarraren leguntzeko. Itzalean hobeki zaizte

segur... Bainan, zer arnoa! Ez duk, ez, holako Ahunch-
kiko urik. Biba bethi mama gorria!.....

« Bueno! Gocho gochoan nuk orai. Horra hogoi'ta
hamabi sos, eta arri astoak! ».

Eta Ellande badoa kampa ; ez du gehiago iguzkiaren
beldurrik ; zangoak tonlochago menturaz, barnea ere
berochagó, bainan larrua zoin fresko! « Arri!..... »
Astoek behatzen diote ihunik. Heientzat ez othe da bada
nafar arnorik ? Ellande ostatuan, eta hek kichkaili dira
bide bazterrean, lephorainoko erhautsean.....

Ellanderen zaharoak laster emaiten ditu azlaparren
gainean. Zer loria. Ellande! Eta Ellande emaiten da
kantuz :

Hauche da Nafarketako
Mandoaren lraza.....

Zer boz ozena duen hatik egun Ellandek!... Dona-
zaharrera heltzean bizkitartean, unhatzen ere hasia,
oihuz emaiten da, eta astoak geldiarazi ondoan, hetarik
baten gainera igaiten.

« Zer zozoa hintzen hatik, Ellande! Airean joateko
orde, ostichoan ere, orai bezala! Ez duk harat hunatik,
arnoak argitzen dik azkarki jende chimplea! Arri aint-
zina.....

Lephoa mehe du eta
Ilia latza
Itchura gai.....

« Bainan, nun dut nik nere bederatzigarren astoa ? Iso!
Bat, biga, hiru..... zazpi, zortzi! Eta bederatzigarrena ?
Jesus!..... Izpiritua argitzen balimbadu. begiak lam-
brotzen othe ditu arnoak ? Bat, biga..... zazpi
zortzi! Hauche duk ichtorioa ? Giblean utzi othe dut
nere beharri luzea ? Bichtak ereman ahala, fritsik

ez duk bizkitartean ageri! Errak, hi, puttikoa, zembat asto ditut nere aintzinean? Bederatzi ala zortzi?

— « Zortzi araiz, Ellande, zortzi asto eta hamasei beharri.

— « Hauche duk lana! Manuelen ostatuan sartu othe zaut, nik deus ez pagaturik gaitzilua? Arri astoak, arri, Manuelen ostatura! ».

Kalopan heldu dira berriz ostatukó athera. « Manuel! ene asto bat ez duk fortunaz hire barne horietan gelditua, soloan, edo bederen pegar zombeiten aintzinean? »

« — Ez, Ellande, ez, ez da hemen astorik, oro ereman zintuen zurekin ».

— « Alo! ontsa nuk sarri, Mariarekin! Chahu nuk, chahu, etchean sartzean: Alta, hambat gaichtoago! Arri astoak etchera, eta bichi bichia. Zuen laguna dagola den tokian, ni bilha jin arte, holako beroarekin.... »

Eta badoazi berriz, *Lakharrara* buruz. Bainan Ellandek ez du gehiago kanturik. Mariaren beldurrak espantua sarrarazi diozka.... Ez duzue ezagutzen Maria, Ellanderen andre esposa? Gizagaizo Ellande! Aditu behar ditu bereak eta asto beltcharenak!.... Eta bizkitartean, aintzinez emanik, giblez emanik, zortzi asto baizik ez izaki Ellandek!

*
* *

Ilhun nabarrean, astoak musikan sartzen dira etche aintzineko korralean, eta doña Maria atheratzen da, arrachina bat eskuan.

« Orai duka etchean sartzeko lenorea, hordi tzar bandila? Hunaraino senditzen deat arnoa, kiskila!... »


« — No, Maria, ez othoi, kecha! Ez diakinat nun demuntre sartu zautan nere bederatzigarren astoa. Erholurik ibilia nun haren ondotik, eta herrestorik ere ez dinat nihun atzeman ».


« Bederatzigarren astoa? Bainan, arraila jina hit-

zakiat beraz etcherat ? Bederatzigarrena ? Eta hire bi zangoen artean dukan hori ez othe da astoa ? Horra bederatzigarrena, hamargarrena eta ederrena berekin deramala bizkarrean ! Biethtatik joan hakiat, hordi tzar, gizon galdu, arno-untzi higuigarria ! . . . »

Eta Ellande ohera badoa, iehil eta chitun, Mariaren makhila, bizkar hezuraren gainera eror dakion beldurrez, « Nola ez zen bada, bere azpian zaukan beharri luzeaz orhoitu ? Ai ! Manuelen arno hura ! Zerbait debrukeria ez othe zion ostalerak emana ? Bertzaldiño batez hatik ! »

Eta haimbertzerenarekin, lo zurrungan eman zen Ellande gaizoa, eta gau hartan guzian, ametsetarik, bere astoaren ondotik ibili zen, izerdi uharretan.





ZUBIETAKO DEBRUA



MARIA. — Aina.
MARI-EDER. — Hanzoa.
MARGAITA. — Alaba.
JOANA. — Bertze alaba.
GACHUCHA. — Alaba gazteena.
AZTIA. —
MARIANNA. — Aztiaren sehia.
ANNA.
ANITA. }
LUCHA. } Pidaiantak.
CHANETA. }
KATTALIN. }
BILLET IKERTZALEA. — La Contrôleuse.

LEHEN ZATHIA

(*Eskual-Herriko sukalde bat*)

1

MARIA — MARGAITA — JOANA.

(*Sukaldeko lanetan ari hiruak*)

MARIAK. — Eta gure Gachucha ez oraino ageri!...
Zer ari othe da bada ? Non dabila, oraikotik ?

MARGAITAK. — Gaicho haurra! Ez ahal da guti unhatua, behi galdu demuntre haren ondotik!

JOANAK. — Argi hasteko atherarik, bere chingar zafila meheñoarekin!..... Joka niro ez dela josta gura, den tenorean, eta, goportara bat eltzekari emaiten ahal diozu, gibeleratzen delarik, artho chigor onarekin.

MARIAK. — (*Leihotik kampa behatzen duelarik:*) Bai, bai, berea duke segurki. Bainan, hura ez ageri, eta gure behia galdua!! (*Ichilik pilla bat egon ondoan, lanean ari dela:*)

Behi charmatua, egiazki! Haritz-chilolik gal zitekela ere behi bat! Nork erranen zuen sekulan? Eta hain chuchen, Katzo, gure behirik ederrena! Hamabortz ehun libera eskainia zaukun hartaz, iragan merkatuan, Aguchtin tratulariak! Eman baginio bederen!.....

MARGAITAK. — Bai, hala da, ama. Bainan, Jainkoa da bakarrik geroaren berri dakien hura, eta Jainko horrek badakike segur, zertako ez daukun biharko berri horietarik salatu.

MARIAK. — Ori, haurra, ez dakit, bainan ongi egin liru beraz gure Jainkoak, biharko herririk ez bada, *gaurko* berri zerbait bederen sala balezo Gachuchari, Katzo guk lasterchko bil dezagun etchera.

JOANAK. — Ama!!!

MARIAK. — Hala da eta, haurra! Gocho baita holako diruketaren galtzea, herrestan, doi doia bizi girelarik Oihanburuan!

MARGAITAK. — Oh! herrestan! herrestan!..... Ez du oraino haimbertzeko ephea, hauzoko sorro pullit bat guretua dugula, gure ontasuna joriago egiteko. Egunean egunekoaren emaiten badaki Jainkoak.....

JOANAK. — Egia diozu, Margaita. Egunean egunekoa eman ere dauku orai arte Jainkoak, eta jendeeri bezala, laket zaio Jainkoari, bere ongi eginez milesker erraiten badiogu. Zuharen ganik ikasia dugun katichima da hori, ama gaichoa!.....

II

AINTZINEKO HIRUAK ETA GACHUCHA

GACHUCHAK. — (*Akhitua, gorritua, makilaño bat eskuan, sartzen da:*) Jainkoak dauzuela gau on, ama! Gau on, Margaita, Joana!

HIRUEK. — Bai zuri ere, Gachucha!

MARIAK. — Eta behirik ez, oraino ere, haurra?

GACHUCHAK. — Ez, ama! Doi doia ahamen bat hartzen nuela bidean, bazter guziak ikertu ditut bada, jo harat eta jo hunat. Zuek miatu chokoak berriz miatu ditut, oiuhu eta oiuhu. Bainan, ez Zamalbiden, ez Eurgin, ez Mokorreko kaskoan, ez Burdin-Kurutchetan, nihon ez gure Katzo kausitu. Harchabalen ikusi ditut artzainak, Jatslephon ikazkinak, bainan nehork ez zakien gure Katzo gaichoaren berririk.

MARIAK. — Jar zaitte, jar, haurra. Harrezazu ongi zuretua duzun otruntza, eta gero, joanen zira, bihar eguerdiak arte lo egiteral.

GACHUCHAK. — Ez dakit, ama, lo handirik eginen ahalko dutan? Sobra unhatua ez othe naiz? Zangoak, harri eta laphar artetan, larrutuak ere ditut!.... Eta, oinon, guzien buruan, Katzo bildu banu bederen, deusik ez zitezken hoik oro!

MARIAK. — Hoi! hoi! Bainan gure Katzo galdua, eta ongi galdua, zorigaitzez!

III

AINTZINEKO GUZIAK ETA MARI-EDER

MARI-EDERREK. — (*sartzen ari delarik:*) Galdua beraz oraino ere zuen Katzo charmatua?

MARIAK. — Bai, galdua!!.... Jainkoak dauzula gau on, Mari-Eder!

MARGAITAK. — (*ahapetik, bere ahizperi:*) Zertarat heldu da also tzar hau?

MARI-EDERREK. — (*jartzen da ethean balitz bezala, nehork hala galdegin ere gabe:*) Gaicho Maria! Halako behia! Eta nihon hatzik ere utzigabe, airean hegaldatu baliz bezala!...

MARGAITAK. — Bai, erkatz-gider balen ganean, Ake-larrerat joaiteko!....

MARI-EDERREK. — Haur bat baizik ez zira, Margaita! Ez da Akhelarrez hirririk egin behar sekulan!

JOANAK. — (*bichi bichia:*) Ez eta ere imbustikeriarik erran behar, gazteagoen aintzinean....

MARIAK. — Haurra!

GACHUCHAK. — Hala da eta, ama!

MARI-EDERREK. — Imbustikeriak, imbustikeriak! Othe dakizu zer diozun, haurra? Zer bada, zortzi egun haultan behia nihon ez ageri, nihon ez den tlikieneko hatzik, *Eskualdun* egunkariak berria bazter guzietarat hedatu ondoan ere! Ta, ta, ta, ta! Sorginkeria zerbait bada hor, Maria!,....

MARGAITAK. — (*ahapetik:*) Bai eta sorgina hihaur, atso tzarra!

MARIAK. — Uste duzu, Mari-Eder?

MARI-EDERREK. — Ez-bairik ez da hor: zuen Katzo sorginek ereman dautzute!

MARGAITAK. — Edo Buameek!....

MARI-EDERREK. — Ez haurra, ez! Buameek hatzak utziko zizlenan sorroan. Sorginek ez dine hatzik uzten airean.

MARIAK. — Zer fidatzekoa, Mari-Eder!

MARI-EDERREK. — Bai, Maria, eta sorginek egina, sorginek baizik ezin desegin... Joan behar duzu Zubietako Debruaren gana!

MARIAK. — Zubietarat? Zubietako sorginaren gana? Uste duzu, Mari-Eder?

MARI-EDERREK. — Zer ezin-egina? Hiruzpalau oren burdin bidez, karrosan gero pilla bat, eta horra Zubietak!

MARGAITAK. — (*chutiturik:*) Bainan, Mari-Eder, zer dira burla horiek, bertzela?

MARI-EDERREK. — Burlarik ez da batere. Zin zinez ari naiz.

JOANAK. — Zin zinez ? Eta zer egiten duzu katichimako erranez, gure aphezen erranez ?

MARI-EDERREK. — Oh ! aphezak eta azliak ez dire adichkide, aspaldion.....

GACHUCHAK. — Ez behar ere !

MARI-EDERREK. — Aphezak ez dute behirik galtzen, Gachucha.....

MARIAK. — Aphezak ez othe dute jakinen Zubietan izan garela ?

MARGAITAK. — Jainkoak ez othe du jakinen, Ama ?

JOANAK. — Aphezak ere ez othe, chokoño batera joanen zaiztelarik, zuen hutsaren aithortzera ?

MARI-EDERREK. — Misionestak elhorri beharrak dire Eguerrietako, Joana !

JOANAK. — Misionestek, aphezak bezala, urrikitzen denari baizik ez diote barkatzen, edo, bere zorigaitzetan, bekhatua gordetzen duenari.

MARGAITAK. — (*bichi bichia* :) Ama, Mari-Ederrek eraiten dautzuna ez duzu egin behar. Ez zira Zubietara joanen.

Ez du Zubietako debruak gure ama maileaz burlatu behar, bertze orduz Buztintzeko aztia Pelo Choriburuz burlatu zen bezala. Ahantzia othe duzu zuhaurek guri lehenago kondatu ichtorioa ?

Pelo ere joan zen, etheko oilo guziak, chitoak barne, hiltzen ari zitzaizkola, zerbeit sendagailu beharrez Buztintzeko aztiaren ganik. Azti pullit harek erran zion, Oilarburuko haitz handienaren puntan, *detchimako lur-relik kampo*, eman zitzan *gau-erditan*, etheko oilarra eta bi oilo ederrenak. Goizeko *sei orenetan* joan ziteken gero Pelo (eta ez lehenago, bere onetan !) oilar eta oiloen biltzera. Eta hartan sendatu behar zitzaizkon etheko chito, oilasko, oilanda eta oilo guziak.*

Gau-erditan, erran bezala, *detchimako* lurretik kampo,

Oilarburuko haitz ederrenaren kaskoan eman zituen Pelok bere oilar eta oiloak.

Gau-ereditarik sei orenak artean, Buztintzetik Oilarburura joaiteko aslia izan baitzuen sorginak oilo eta oilarren ebastera, goizeko sei orenetan itzuli zelarik Pelo Oilarburura, *ez oilarrik, ez oilorik, ez zen han*. Buztintzen oilakiz ase ziren aste oso balez, eta Pelori, etchean, azken oiloak hil zitzaizkon, purta, purta.

GACHUCHAK. — Ez zuen deus beharragorik, giza-gai-choak! Bainan zertako ere zen hain choroa!

MARI-EDERREK. — Hoik oro, Buztintzen! Ez goaza gu Buztintzera, bainan bai Zubietara.

MARIAK. — Ez naiz baitezpada loriatua pidaia hortaz, bainan, damu nuke alderdi guzietara ez jokaturik. Noiz goazi, Mari-Eder? Haur hautarik batek lagunduren ahal gaitu?

HIRUEK. — (*chuiturik*;) Ah! ez hatik, ama!! Mari-Eder aski duzu *lehaio*!

MARI-EDERREK. — Bi biak beraz, ortziralean, Maria. Aski bagitezke.

MARGAITAK. — Gaicho Ama! (*Ahapetik eta ukhamiloa Mari-Ederren alderat bildurik*;) Atso lizarra eta ez bertzea!

BIGARREN ZATHIA

(*Burdin-bidean, Wagon batean, Anna, Anita, Luicha, Chaneta eta Kallalin jarriak daude ja, solasean ari.*)

I

AIPHATU PIDAIANTAK, ETA MARIA ETA MARI-EDER

(*Oihuko ari dire burdin-bidelako gizonak, han, nombait*;)

En voiture, en voiture, s'il vous plait! Allons, Madame, dépêchez-vous donc! Le train va partir! Allons, ce panier! Oust! ça y est!... (*Chilinta, Chichtu, Tiutta.*)

MARI-EDERREK. — (*Maria bere aintzinean akulatzen duela:*)
Erna zaile, bada, Maria! Zer uste duzu ala Oihanburuko
sukaldean girela! Uste ez banuen hortchet gelditzen
zinazkitala, zure otharre ozpinarekin!

MARIAK. — Gelditzen, Mari-Eder? Batre ez banintz
bederen etchelik abiatu! (*Treina abiatzean, elgar koskatzen dute*
Mariak eta Mari-Ederrek. Bertzeak hirriz eta keinuka elgarri.
Maria jartzen da, bere otharreak, kabak eta paisolak oraino ere
trabatzen dutela). Jainkoak esker duela! Atch!.. Ori!..
jendeak baitugu jada hemen!.. Jainkoak dautzuela egun
on, andre onak!

GUZIEK. — Bai zueri, ere!

MARI-EDERREK. — Eskualdunak zaizte, holetan?

GUZIEK. — Erran liteke!... (*Ichilik oro, bullaño bat*).

MARI-EDERREK. — Hots, Maria, molda zaite hor,
chokoño hortan, zure puska horiekin oroikin! Ile hori bar-
dindurik emazu pulliki pulliki.

MARIAK. — Bai ori, hala hala da! Jostetak baitziren
hor, barne huntara hupatzeko, maila alimaleko batera
igan behar izan dutalarik! Hatsak eta oro joanak nituen!
Eta gizon erlastu hura gibeletik belhi oihuka ari, eta ni
han, nere kabaren, otharrearen eta paisolaren artean ko-
katua, ulia irmi-armu sarean bezela!.. Ai! Mari-Eder,
zerk ekharri nau ni hunaraino?

(*Guziek hirri, gocho, gochoki.*)

ANNAK. — Lehen aldia ahal duzue burdin bideetan
zabilzatela?

MARIAK. — Bai, gaichoa, eta agian azkena! Eta ez
baginu behiño bat galdu, han, mendian..

MARI-EDERREK. — (*ahapetik:*) Zaude bada ichilik, Ma-
ria! Bardin luke gure berriak ez orori erranik ere!

MARIAK. — Zer munta du, Mari-Eder?

ANITAK. — (*keinu bat laguneri, eta:*) Behi bat galdu? Ai!
eta norat zoazte orai?... Joka niro.. Zubietara?

MARIAK. — Hala hala!.. Ez ahal zaitut zuhaur Zubietako debrua, hola gure berrien jakiteko?

ANITAK. — (*hirriz*): Ez, ez, balimba! Zuhur balimbaduzue, orhoit zaitze, andreak, ez dela batre azti, sorgin edo debru behar izan, asko berrien jakiteko!

MARI-EDERREK. — Baditeke! Bainen, zer nahi den, zuek ikhusi belhi, norat ginoazin.... Ez ginuen guk asmatuko norat duzuen gaurko zuen chedea. Ah! hori ez! Ez da hala, Maria?

MARIAK. — Ez, ez, alafede!..

MARI-EDERREK. — Eta, beraz, dakizuenaz geroztik norat goazin, zer diozue gero Zubietako aztiaz? Egiten duten bezembat zuhur eta erdi othe da?

LUICHAK. — (*Jendeeri buruz*): Demuntren zozo pare!

CHANETAK. — (*laguneri keinu egin ondoan*) Zuhur eta erdi? Non da bertze holakorik?

KATTALINEK. — Zer nahi atheratzen du emazte debrusa harek, zer nahi atchemanarazten..

MARIAK. — Zer nahi?

ANNAK. — Bai, zer nahi. Ori, iragan egun batez, Hoztar bat izan zaio, asto bat galdurik. Zubietan izan, eta biharamunean, *bi asto* itzuli dira Hoztara.

MARI-EDERREK. — Bi asto?

ANNAK. — Bi asto, andre!

MARIAK. — Jesus, Jainko ona!..

LUICHAK. — Bai eta, hor, Lapurtar bat Zubietara jin omen da, egun horietarik batez, *belhaun* bat ez dakit non galdurik....

MARIAK. — Belhaun bat?

LUICHAK. — Bai, belhaun bat.. Zubietarat jin, eta arratsean berean, bi belhaunak han zituen gure Lapurtarrak.

MARIAK. — Gizagaichoa! Atsegin hartu ahal baitu, bereziki Sempertarra balimbazen! (*orok hirri*.)

II

(*Aintzinekoak oro, eta Contrôleuse bat, billet ikerzale bat, bere moltsa handia sahetsetik ditindan, chilo egiteko tresna eskuan.*)

BILLET-IKERZALEAK. — Vos billets, s'il vous plaît ?

(*Badoo orori billeten galdez, azkenik Mariari eta Mari-Ederri*)

MARIAK. — Zer da hori, Mari-Eder, kachketa eder horrekin ? Suprefeta ala Prefeta bera ?

MARI-EDERREK. — Nik demuntre dakita, Maria!.. Ori! billet ikerzalca, da, ta, gure Prefeta! zalu athera zazu zurca, Maria!

BILLET-IKERZALEAK. — (*Mariari, boz idor batekin:*) Vol' billet, s'il vous plaît ?

MARIAK. — Zer galdatzen, du, bere erdara bitzi hortan ?

MARI-EDERREK. — (*bere billeta chilarazirik:*) Erna zaite, Maria, billeta, zure billeta!

BILLET-IKERZALEAK. — Vol'billet! et plus vite que ça!

MARIAK. — Joko parte, horrek bezembat nahi nuke bai, ene billet ziminoa... (*Chutitzen da, kaba iker, otharrea iker, paisola barnea iker:*) Non sarthua dut bada?... (*Ahuzpez emana alkiaren azpian ari da orai miatzen:*) Oi, Jainkoa! Ez haute hire haurrek ikusten, Maria!..

BILLET-IKERZALEAK. — Ben! quoi ? Et ce billet ?

MARIAK. — (*chutiturik:*) Hor nuen, sakela huntan, ene mokanesaren barnean. Eta mokanesak eta oro ereman dazkidate hortik..

BILLET-IKERZALEAK. — Qu'est-ce que c'est que ce charabia ? Perdu ? Volé ? Ça ne me regarde pas. Je vous dresse contravention....

Et puis, ce panier ? Qu'est-ce que c'est que cette odeur ?... Ah! un fromage pourri, un fromage qui marche ? Deuxième contravention, pour transport de marchandises avariées, dans un wagon de voyageurs! ça vous apprendra!.. Vos noms et prénoms, s'il vous plaît!

MARIAK. — Zer nahi du orai ?

ANITAK. — Zure izen eta deithurak.

MARIAK. — Ah ! mokanesaren itzultzeko ? *Maria Larre, Oihanburukoa*. Ba, mokanes baten gatik, ez zuen kasik ere balio ! Gaicho Andrea ! Sekulan Oihanburura jiten balimbada, chingar eta arroltze emanen diot gogo onez ! Arrolzeño batzu baitugu bertzalde, bainan gochoak !..... (*Oro hirriz ari dire, hirria nausiturik.*)

ANITAK. — Arroltze eta chingar ? Baduzu bertzerik, gaichoa !

MARI-EDERREK. — Bertzerik ? Zer bada oraino ?

ANITAK. — Bi *berbal* badituela zure adichkide Mariak, billetik gabe zabilalakotz, batto, eta bertzea, gasna ustel batekin sartua zelakotz hemen.

MARIAK. — *Billela* ? Bainan, hartua nuen, ongi pagaturik oraino : Sei libera, halako paper tcharra ! Azukre mokor bat bezembat ez zen papera !..

Eta gero, *gasna ustela* ? Bainan Zubietako debruarentzat nuen gasna hau, ahotik ezin utzia baita, egiazki ! Apho kichkila !!! Jin dadila jin Oihanburura !...

ANNAK. — Bai, zer nahi duzu, amatto ? Kaskoin chapel-okor horiek oro holakoak dira bazterretan....

Bainan Zubietako debruak atchemanaraziko dauzkitzue billet, mokanes eta behi, oro, hots ! Nork daki zure kaskoin kichkilari berari zer ez dion eginen ?.. (*Oihuka bazterretik : « Saint-Palais ! Saint-Palais ! ».....*)

Ori, huna non helduak giren Donapaleurat. (*Oihuz berriz ari dire burdin bideetako gizonak : « Saint-Palais ! Saint-Palais ! Tout le monde descend de voiture ».*) Ichtantean Zubietarako zaizle.. Suerte on, andreak, eta gure goraintziak Zubietako debruari ! Sorgina denaz geroz, badakike, segur, nor gitezken goraintzi igorzaleak.... (*Hirriz badoazi oro*)

MARIAK. — (*Bere puchkak hartzean, dolamen batekin :*) Ah ! Mari-Eder ! Berriz ere, zerk ekarri nau gaur hunara ? Ene haur gaichoak ! Etchean egon banintz bederen zuekin !.....

HIRUGARREN ZATHIA

(Zubietako debruaren etchean)

(Barne bal, erdi sala, erdi sukalde. Paperezko ilhargi eta izar balzu han hemenka emanak izanen dire paretan)

I

MARIANA, MARIA, MARI-EDER.

MARIANAK. — Sar zaizte, sar, andreak, eta jar zaizte ; berehala hemen dukezue etchek'andrea.

(Badoha Mariana eta, bethi, beren kaba, otharre eta paisolekin, sarizen dire Maria eta Mari-Eder).

II

MARIA ETA MARI-EDER

MARIAK. — (Pareleri behalzen diotela :) Halako bat egiten daut nere buruaren hemen ikusteak, Mari-Eder!...

MARI-EDERREK. — Niri ere bai, Maria, aithor dut. Bainan, engoitik, huntaraino ethorriak, goazen aintzina!

MARIAK. -- Zer dire izar eta ilhargi hauk oro, hemen?... (Zeinatzen da, halako beldur batekin). Ama-Birjinaren edo Bihotz-Sakratuaren iduri zombait nahiagoko nuzken hemen ikusi... Ai! Maria, Maria! Oihanburuan egon bahintz, hire chokoñoan!

MARI-EDERREK. — Behia galdurik, Maria?

MARIAK. — Bai behia galdurik!.. ez othe zen, ari-maren galtzea bainon hobe izanen?

MARI-EDERREK. — Ez ahal ditugu galdu, gure arimak!

MARIAK. — Ez dakit ori! Arima *galduak* ez bada, segur arima *herratu* batzu bederen girela.

MARI-EDERREK. — Zaude ichilik, hots, Maria; ikusiko duzu gure Katzo lorietan bilduko dugula etchera, eta orduan ahantziko dira oraiko intzireak oro, Maria!

MARIAK. — Halabiz, Mari-Eder!

III

MARIANA, MARIA ETA MARI-EDER

(*Gibelerat heldu, sartzen da Mariana.*)

MARIANAK. — Berehal, berehala hemen dugu etchek' andrea. Bertze ikusliar batzuekin da oraino, bainan zalu zalua igorriko ditu, eta zuekin da gero, beharko den asti guziarekin.....

Urrundik heldu zaizte holetan, andreak ? (*Hemen, oihaleria batzuen gibelean kuku-mauka emaiten da etchek'andrea, Azia, oro handik entzuteko gisan. Mariak eta Mari-Ederrek ezin dezakete ikus, bainan bai jendeek*).

MARIAK. — Bai urrundik, haurra, ongi urrundik, Oihanburutik !

MARIANAK. — Oihanburutik ?.. Zer unhaldia hartzen duzuen egun, andre gaichoak !

MARI-EDERREK. — Erraiten ahal duzu, haurra !

MARIAK. — Bai, eta ez baginu Katzo, gure behirik ederrena galdu, orai zortzi egun, segur ez ginela gaur hunarako ! Ah ! hori, ez !

MARIANAK. — Katzo galdu duzue beraz ? Behi ederra ?

MARIAK. — Behi ederra ? Uste dut ! Aguchtin tratuariak hamabost chun libera ez zaukun eskaintzen !

MARIANAK. — Atchemanen duzue atchemanen zuen behia !

MARIAK. — Uste duzu ?... (*chutitirik*) Ori, gasnaño hau emanen diozu etchek'andreari, eta zuhaurek ere cherra zombaitño harturen ahal diozkatzu.

MARIANAK. — (*Gasna hartzen duela :*) Milesker !

MARIAK. — Ez da erraiteko baizik, bainan gasna bat da hauta, ahoan urtuko zautzuetena !.. Eta gero zer ez zaul gostatua edo gostatuko ? Ez daute *berbala* egin burdin-bidean, baizik eta gasna ustelik ez zela haizu jendeen artean ! Halako gasna ! Jendeentzat ez balire bezala gasna onak !.. Apho kichkila !

MARI-EDERREK. — Eta gero hor, Mariak billeta galtzen duela bidean, bere mokanesarekin!.. Hots, bi berbalekin ethorria da, dohakabea, hunaraino!

MARIANAK. — Zer suertea, egia erraiteko!

MARIAK. — Eta etchean entzun eta entzun behar ditugunak, bertzalde! Gure Ganichek fitsik ez daki, gaizoak; bederen ez zakien orai arte.. Bainan, gure hurrek erran ez daukutenik ez da!

MARIANAK. — Bainan, hala hala, behia atchemanen dencan!... Halako behia!

MARI-EDERREK. — Ezpeletako edo Hazparneko ferietan ere ez da holakorik atheratzen, bere izar pullitarekin kopetaren erdian, adar batzu, chutak, chichelarekin eginak baino chutagoak, gerren punta baino chorrotchagoak! (*Hemen, bere gordagiatik, zango puntten gainean, ichil ichila badao Azlia*).

MARIANAK. — Ez da holako behirik galdu behar, andreak! Atchemanen duzuc zuen behia.

MARIAK. — Jainkoak adi zaitzala, ori!

MARIANAK. — (*alegia zerbaiti oharitzen*;) Uste dut etchek'andrea heldu zaukun oraikoan. Hantchet, baralze zolan da oraino, bainan, haia, haia heldu zauku. Frango ongi bada-bila oraino, adinarendako. Hura sartzean, chutitu nahiko duzuc, othoi; bethidanik ohore gose izan baita... pitla bat....

BIEK. — Gogo onez, haurra! Zer da zuzenagorik?

MARIAK. — (*erdi goratit*) Ez ahantz gero ene gasnaño hori! Emo zu lehen bai lehen!.....

IV

AZTIA, MARIANA, MARIA, MARI-EDER.

(*Huna Azlia, chapel belusezko gora bat burucn, soin guzia izar urhezko balzuz ihaurria, erai erdian aldiz bi hezur, kurulzatuak, hit baten buru kaskoaren azpian.*)

AZTIAK. — Agur, Andreak, agur!

BIEK. — Agur, Etchek'Andrea!

MARIANA. — Huna bi andre, ongi urrundik, ikusgarriekin ethorriak. Gasnatto bat ekarria dute, etchek-andrea, hilak ere phiztuko dituenak.

MARIAK. — Ez zauku sobera batere, baldin eta gure..

AZTIAK. — Baldin eta zuen behia, *Katzo* atchemanarazten badautzuet ? Ez da hala ?

MARIAK. — Jesus, Jainko mailea ! Nondik dakizu ?...

AZTIAK. — Nondik dakidan *Katzo* galdua duzuela orai zortzi egun ? Nondik dazkit dazkidanak oro ? Ez othe naiz Zubietako debrua ?

MARI-EDERREK. — Ai ! Maria, zer da bada andre michteriozko hau ? Oh !

AZTIAK. — Ez beraz niri erran, behi ederra gain gaintik galdu duzuela *Katzo*, bere izar pullitarekin kopetaren erdian, bere adar chut chorrotchekin. Ez niri erran Aguehtin tratulariak 1500 libera eskaini dauzkitzuela. Ganichen ichilik, zure haurren gogoaren kontra ethorria zarela hunara, Maria... Badazkit hoik oro.

Badakit, nik jan behar dudan gasna berbal bat gosta zautzula, billeta galdurik, lehembiziko berbala ez askiz.

MARIAK. — (*Harrilurik*) Oh ! oh !

Zer demonio da hau ! Puies, puies egiteko ere liteke, *Katzo* ez baginu bildu behar.

AZTIAK. — Goazen beraz gure egitekoetarat, eta berehala ! Mariana, liburua !

(*Marianak ekartzen du liburua alimule bat, eta mahain baten gainean ematen. Aztiak bi urhats gibelerat egin ondoan, lhu egiten du barne hartako lau alderietara : eta gero, eskuko erriak zalu zalu ibilaraziz, hiru aldiz egiten mahainaren ingurua. Heien aintzinean Aztiak iragaiten den aldi guzietz, gordeka bezala eta ikaran, zeinatzin dira Maria eta Mari-Eder. Azkenean, jendeeri buruz itzulirik, liburua idekitzen du sorginak, begiak hetsirik, eta gero, luneta handi batzuek emanik, goratik hasten da, alegia eta irakurtzen.*)

« Intes, medites,
Medites, intes ! » (3 aldiz)

(*Aldi guzietz, ahapaldi bezambat eskuaz jotze egiten dio liburuari*).
(*Marie eta Mari-Eder, beren ezin egonarekin, usiez eta Katzo atherako zaioten han berean, liburu handi hartarik, hurbiltzen dira pilla bat, eta Maria oihuka hasten da:*)

MARIAK. — Jes!..... Bainan, etchek'andrea, buruz beheiti emana duzu eta zure liburua!.....

AZTIAK. — (*Alegia eta ez balere darduzatua:*) Behi galduentzat hola eman behar da bethi..... Ez zaitela gehiago ez mintza, ez mogi ere, zure onetan!

(*Eta berriz hasten da, egundaino bezala:*)

« Intes, medites,

« Medites, intes! » (3 aldiz).....

Zertako mintzatu zira hola, emazte choroa! Deus ez dauk oraino *Mumamu* handiak ihardesten.....

« Intes, medites,

« Medites, intes! »



Mariana, Mari-Eder, Maria, Aztia

(*Haimbertzenarekin, oilar batek, aski hurbildanik jotzen du kuku-
ruku luze bat, eta Aztiak orduan berehala:*)

AZTIAK. — Huna, huna, azkenean! Huna zuen etsaia!

BIEK. — (*Harriturik:*) Gure etsaia?

AZTIAK. — Bai, etsaia, eta ez nolanahikoa! ... Badu-
zuea Oihanburuan oilarrik?

MARIAK. — Bai, eta ederra oraino.

AZTIAK. — Horra zuen etsaia! Oilar hura, biphildurik
behar duzue, zuen etxetik eta Donaphaleuko alderdirat,
ichil ichila, nehor^k deus deusere jakin gabe, norbaiti igorri.

MARI-EDERREK. — Ichil ichila? Donapaleu alderdirat?
Bainan, Donapaleu aldean, oilar hura izaiten duenak
zerbait jakinen du?

AZTIAK. — Hala da, hori ere.... Igor beraz *ni*hauri
hunara. Zubietako Aztia ez da oilar biphildu batek izit-
zekoa. Badaki holako baten berri.

MARIAK. — Bihar berean izanen duzu beraz gure
oilarra.

AZTIAK. — Bai, bihar berean, *behiaren bilha* zuelarik
nehor abiatu gabe. Baitezpadako gauza, hori da. Eta orai:

« Intes, medites,

« Medites, intes! »

Huna non kausituko duzuen zuen behia. (*Maria, Mari-
Eder, lepho beharriak luzaturik emaiten dire*). Etzanik, hantchet,
harri-peña handi baten itzalean, *Bizkar-Zuriko* mendiaren
gibelean dago, bere Oihanburuko heiaz orhoitu eta mar-
rumaz!....

Zoazle orai deskantsu, eta *Mumamu* handiak lagun
zaitzaztela!...

(*Aztia badoa, aphezpiku baten patchadarekin, bere liburu handia
besapean*).

MARIAK. — Eta zure lana, etxek'andrea? Zombat
zor dautzugu, hola zuk gu lagundurik?

AZTIAK. — (*Doi doia burua makurtzen duela:*) Gasna eder

bat jada emana duzuelakotz, eta zuek zareztelakotz, emozue Marianari hogoi liberako paper bat, eta ez bertzerik. . Agur Andreak! (*Badoa ezkerretik*).

BIEK. — Milesker zuri, etchek'andrea.

V

MARIANA, MARIA, MARI EDER

MARIAK. — (*Marianari, moltsa luze bat ikerturik, 20 libera emaiten diozkala:*) Ori, haurra. . Huna ere zuretzat, hoin maiteki lagundu gaitutzulakotz (*berrogoi soseko bat emaiten dio Marianari*).

MARIANAK. — Milesker, andre!

MARI-EDERREK. — (*Jendeeri buruz*) Eta orai, ethor ditelazela aphezak : *sorgin* eta *aztirik* ez dela erraitera!

(*Badoazi biak eskuineko aldeik, beren puska guziekin*)

VI

MARIANA, AZTIA.

AZTIK. — (*Zango puntten gainean heldu da, ordu berean, ezkerretik:*) Joan direa, Mariana, gure oiloñoak!

MARIANAK. — Bai, baratze zola hartan dire jadanik, choria bezen alegera badoazila. .

AZTIK. — Begozi, begozi! Ez dire hoin alegera izanen hiruzpalau egun goiti beheiti, Bizkarzurin debalde ibili ondoan. . (*Jendeeri buruz:*) Zer oilarra jan behar dugun igandean!!! Hots! onik ere badu gure irabazbideak!

Aphezek baitiote sorginik ez dela. . Ez, ez da sorginik, bainan bethi izan dira eta izanen dira. . *jende choroak!*

ERAKASPENA (Epilogue)

(*Oihanburuko Sukaldean*)

MARIA

Huna ni, Maria Oihanburukoa, ez bainaiz Oihanburutik berriz abiatzekoa, sorgin eta aztien ondotikan!..

Erran gabe doa, ez dugula *Bizkar-Zurin*, ez behirik, ez chaal edo aratcherik atchegan, Azti figura harek hitzeman zaukun bezala.


Zer, aldiz, irabazi dut, hor gaindi ibilirik ? Pidaia bat egin, hertze handia bezen luzea ; bi *prozedura* edo berbal bildu bidean ; gasna bat ahotik ezin utzizkoa.. utzi Aztiari ; hogoi'ta bi libera urari beheiti igorri, oilar bat aldiz Aztiaren zintzurrari behera ; Bizkar-zurin lepho eta bizkarrak hautsi ; Ganichen erasia gorriak burutik beheiti hartu ; ene haur gaichoeri erakaspén pullita eman ; eta bereziki, zu, Jainko on eta handia, itsuski laidostatu. Horra ene irabazia !

Ez, ez, gure aphez onek eta argituek erraiten zaukuten, ez da ez sorginik, ez Aztirik. Eta munduan bethi izan eta izanen badira ere Choroak, ez du Oihanburuko Mariak choro hetarik izan nahi, hemendik aintzina !

(*Jokatu diren guziak sartzen dira orduan, eta oro emaiten kantuz :*)

« Sinhesten dut,
Elizak daduzkan egiak,
Sinhesten dut
Hala direla guziak ;
Neronek ikusirik baino,
Hark erranik, segurkiago,
Sinhesten dut
Hala direla guziak ».

(*Guziek agur handi bat.*)



CHOANE MITRERO



BERO bat zen izigarria. *Choane Mitrero* heldu zen Gara-
zi-Hergaraitik, egarriak joa, bere mitra edo berinak
bizkarrean, sorbaldak kargaren azpian lehertuak.

Mitra gutti berritu zen, egun hartan, Ahatsa-
Lekumerrin, eta bere makila tcharra eskuan heldu zen
beraz, kechu kechua, burua dilindan, begiak chorrotch.
Berrogoi soseko bat doi doia altchaturik, ontsa zen ba
etchean, bere emaztearekin!

Donazaharrera heltzean, Laphitzondo zenak hala oihu
eginik, edo nehork oihurik egin gabe ere bardin, bere mi-
tra-berinen herrementa athe ondoan chutik ezarririk, sar-
tu zen Maiderrenean, eta pint-erdi bat arno galdeginik,
hantchet jarri, izerdi uharretan. Izerdi hura chuka eta
chuka, arnoa hurrupa eta hurrupa, gochara zagon, Laphit-
zondorekin solasean, bere begi bizi hek firurikatuz, bere
sudur mehe hura luzatuz. Oi Laphitzondoren irriak —
lakel ere baitzitzaion Laphitzondori irri egitea!..



Irriz hola zaudelarik biak, beroak eta oro ahantzirik,
Madalenako aldetik heldu, agertzen da hor, karrika bu-
ruan, ardi multzo bat ederra, Hergaraiko alderdirat ari.
Aintzin aintzinean, artzaina, bildotch polliño bat bizkar-
rean, ardiak ondotik *mee* eta *mee* marrakaz, artzain-or

zakurra sahetsetik erausika. Iduri zuten bidea berekin zaramatela, eta erhaults bat eraikarazten zuten!..

Choane eta Laphitzondo bethi irriz..

Arthaldea Mainerreneko ezkinara heltzearekin, bet betan, ardien erditik atheratzen da marro bat ederra, bairnan ederra! Ostaturko atheari beha zankez paratzen da, lilluraturik bezala, arthalde guzia sahetsetik aintzina iragaiten zaiola Ahatsaral buruz. Artzainak, chichtu eta chichtu, bururik ere ez zuen itzultzen. Bakarrik ber bera zen orai marro ederra, Mainerreneko atheari beha eta beha.

Athe hari kontra, chutik emanak, dir dir egiten zutela iguzkiari, begiak ereman nahi zituzten Choaneren mitra-berinek. Marroa, zangoak itzaturik bezala doi doa egon ondoan, hurratsean abiatzen da, emeki emekiño, berina charmatueri bethi beira. Bet betan, berriz ere gelditzen da, bere begi handi nahasi hek zabal zabala.. Berina heien giblean, hurratsean emeki emeki heldu hura ere, ikusi du bertze marro bat ; eta huna bertze marro hori gelditu dela, bera gelditzean!.. Elgarri beha dagozi biak.. (Laphitzondo eta Choane bethi irriz ari ziren barnean).

Bainan, zer du bertze marro horrek ? Begi hek ez othe ditu beheitituko, eta ez othe da jin bidetik zalukara joanen, bere onetan ? Zer uste du, ala norbait izitzen duela han ?

Gure Madalendar marroa kechatzen hasia da. Begiak, itzulika, makurtzen ditu ; bertzeak ere ba. Sudur ziloak zimurtzen ditu, khea dariotela ; bertzeak ere ba. Buztana harat hunat badoako orai ; bertzeari ere ba. Hasarre gorrian, errege-bidea ichtikatzen bezala du bere zangoekin ; bertzeak hala hala. Adarrak apha, kopeta beheititzen du ; bertzeak ere ba. Elgarren ganik hurbilegi direla kausiturik, gibelka urruntzen dira biak, eta gero, hi bahaiz eta ni banauk, biak betan, oldar itsusian, elgarri buruz badoazi, begiak hetsirik, jautsian.....

Birrimbili barrambala, Choaneren berinak mila pus-

ketan dira orai, eta Madalendar marroa, erhotua, bi hiru aldiz heldu da oraino saltoan, puska hek berriz puskatu beharrez. Bere muthur makoa zimurturik, sudur ziloak... sua dariotela, hantchet dago, bertze marro zombait nondik agertuko zaion. *Choane* zaio agertzen Maiderenetik, bere makila tcharra eskuan, zaku-irina bezen zuri egiña, hasarreak zozotua.

Bainan Madalendar marroari ez zaió iduri balio duela Choaneri lot dakion orai. Bertze marro bat izan baliz, *paso!* Eta adarrak zabal, kopeta gora, badoa hurratsean, Choaneri behatzen ere ez diola, bere bertze marro hura suntsiturik loriatua..


Artzaina deuseri ohartu gabe, bazoan, bethi chichtuka. Choane, burua apha, nigarrez ari zen, eta Laphitzondo itsusia... urratua zagon athe zokoan.

Bere berina herrementa hutsik bizkarrean, bazoan orai Choane, Donianera buruz, aho-kiretsik iretsten zuela bi-dean.

* * *

Hoa, hoa, Choane gaichoa, hoa, sobra ernatu gaberik! Askí goiz helduko haiz etchera, ilhuntekeko heldurik ere. Chaneta hire beha zia gok, eta hihaurenak eta astobeltcharenak entzunik, pampak behar dituk, oherat baino lehen!





Amerikanpoaren itzulia



CHOANE ETA CHANETA



E^z, ez, ez da hola gehiago bizitzerik! Zer ala, ciharako edo errotako astoa bezala, bethi joa! Atzo zafrak, egun atafiak, bihar paloak! Oh! ez, ase da gero, eta kokotzaz gorago asca... Kiskila! Gizon bati hola atrebitu behar dela ematchar bat! Den bezalakoa...! « Ez, ez! emanik ere badun aski eta sobera... Emanak eman. Pegarra gainditua dun azkenean, eta izialduraño bat behar dun gaur, uste ez dunan bezalakoa!... »

Bere buruarekin erasian, heldu zen holachet *Choane miltzero*. Donazaharre Maiderreneko athean, marro figura harek hautsi zion berinaren ordaina bizkarrean, makila tchar bat eskuan, etcherat bazoan, ttíl, ttíl, ttíl, boneta sartua, begiak chorrotch, sudurra mehe, ezpainak hirri maltzur batek makhurtuak. Oh! han, makilaren buruan balauka orai Chaneta, bere emazte pollit hura! Zer loria, zinez! Oi!...

Eta kask, erdi hasarre, erdi hirriz, makhila kaska bat emaiten dio, bide bazterretik kurrinkaz zohan cherrama bati... « No Chaneta! hori hiretako... Agian senditu duken odoleraño! »



Eta egia erraiteko, ez zituen ez hobenak oro gure Choa-
nek. Hogoi urthe hartan, chakurra hobeki ikusia zen

etchean, ezen ez eta gure mitrero. Arrats guzietz, aire bera eta ber pertsuak. « Berrogoi sos hautan dituka hire balentriak oro ? Bi berina tcharren emailen ibili haiza, hor, bidez-bide, suge bandila iduri ? To! alfer tzarra, atzemak hori!... »

Eta jo ezker, jo eskuin, *Pan! Pan!* eskuz, jatsaz eta erkatzaz, gerrenaz bardin. — « Ai, ai!... Aski Chaneta! »

— « To, to, hau ere, eta urrik, konduaren gaineko! »

Nago, ogiak eskuz oraino jotzen ziren demboran, gure aitasoek beren ogiak hala jo othe dituzten behinere, nola Chanetak gure Choane. Zer besoa, *apuñalik!*

Eta bizkar hezurra bethi hola beharko paratu?... »

« Ez, ez! Hortan aski, Chaneta! »... »

*
* *

Iguzki aphalean, heltzen da Choane etcherat, begia doi doi doia baino ere biphilago, sudurra meheago, kopta zimurrago. Erakutsiko dio sorgin zaharrari, Choanek derabiltzkala galtzak, eta ez Chanetak...

Berinarene herrementa sukalde zokoan eman ondoan, mahain gainerat botatzen du hogoi soseko bat eta, hitzik erran gabe, *soka bat harturik*, atheari buruz abiatzen da.

Hogoi soseko herresta ikusi baino lehen ere, kasik, oihuzalapartaka eman zen Chaneta. Lur sagar churitzea utzirik, badoha erkatz larriaren bilha. Zer erauntsia, Choane! Ortzia, chimichtak eta ozpinak, oro hor dituk orai!... « Alfer tzar ahalkegarria!... » Eta jo patatak! Bat, biga, hiru, lau ere betan.... »

Choanek hitzik ez. Athean harat badoha orai. Chaneta haren ondotik, Bainan Choane aintzintzen zaio: alabainan hogoi urthe hartan jan dituen oilachko ichterrek gantza guti trabatzen diote! Lasterka bezala badoha beraz, etche gibelego sorrora, phentzera.

« Norat hoa haizen bezalakoa ? Heldu haiza etchera ? Ala hiaurenak hartu nahi dituk berriz ere ? »

Choanek belhi solasik ez, ez eta tuntik... Bainan, zeren egiterat othe doa ? ... Sokaren bi buruetarik bat estekatzen du gerezi ondo baten adar nausiari, eta bertzea... bere lephoaren inguruan emaiten...

Chaneta alditchartzera doha. « Zer ari haiz ? Gizon dohakabea ! Ez ahal duk holako lanik eginen ? »

— « Ez eginen ? Zertako ez, Chaneta ? Ez dun ez hirekin gehiago bizitzerik ! »

« — Oi Choane gaichoa, utzak soka madarikatu hori ! »

« — Soka utz ? ... Joko nauna gehiago, hemendik aintzina ? ». Eta mitrero maltzurak, pochi bat laburtzen eta tiran emaiten du soka lazgarria.

« — Oi ! Choane, nere Choane gaicho maite maitea !... » Jainkoaren beldurrez bederen, nere maitez ez balimbada.

« — Jainkoaren beldurrez ?... Eta hi, Jainkoaren beldur othe hintzan orai arte ?... Joko nauna ? Erran !.. Eta soka berriz ere laburtuz, mitrero ihiziak, alegia eta milia kampoat egiten du.

« — Oi, Choane, Choane, othoi, othoi ! Ez, sekula santan ez haut gehiago hunkiko. Ai, gure Jainkoa ! »

« — Segur, Chaneta ? »

« — Segur, bai, segur, Choane gaicho maite maitea, segur... Oi, milesker, Choane !... »

Eta Chaneta, oraino zuri zuria, hortzak daldaran, sorro bazterrean jartzen da, ikhararekin chutik gehiago ezin egonez.

Choane bere buruarekin kur, kur, kur hirriz, *sokaren biltzen ari zen*.....

Chaneta gaizoarekin *besoz beso* sartu zen, arrats hartan, etchean, kopeta gorarik, hirria doi doia gordatuz.

*
*
*

Geroztik badu etchean begitarte, *ardilik gabe* lanetik sarturik ere.

Bide horietan ikusten baduzue, hirriz ari, mitrero tipiti


mehasño bat, segur gure Choane ditekela, bere buruari erasiaka: «Ai! Chaneta gaizoa! ederki enganatu hant oraikotik! Ez ninan, ez, urkatzeko gutizia izpirik. Gaizo astaña! Ez othe hakién, gizona, saskitik ere, gizona dela bethi agertzen ?... »

Jaun errektorak gaizkitu omen du Choane, zeren ez den holako dichidu itsusirik egiten. Bainan hain dohakabe zen zinez eta egiazki! Eta gero, bere buruaren urkatzeko aihér mikorik ez zuen izan... Hots, *chokoño harlan* — eta penitentzia guti balean truk omen — barkatu dio jaun errektorak ere. Eta geroztik, gatza eta arroltzea bezala josiak, utziak dituzte, Chanetak bere jats larria, eta Choanek bere soka maltzurra.

Ongi bizi izan badire, gisa hortarat ere hil dire.



Karrika zoko bat



Iretsi.... Hortzak ?



JOANES zuen izena ; gizon ona, maitea ezin gehiago. Ahotik zer nahi ikusirik, bere haginak oro *Irigoin* demuntre hari utzi ziozkan Baionan, eta herrirat itzuli zen, egun balez, hortz berri eder batzuekin.

Orduko chaal edo aratche baten saria gosta zitzaizkon, bainan zer munta zuen hura bezalako etcheko jaun batentzat ? Gosta zitzaiona zer zen, haren oraiko loriaren aldean ? Bertze gizon bat egina zen eta ! Ordu arte, ilhun trunko hetarik ez izana galik, irria frango chuhur zuen ; eta orai, irriz lakel zitzaion, bere hortz ederren erakusteko baizik ez bazen ere. Hala, hala, zinez ederrak zituen Irigoinek eman hortzak ! Churiak, legunak, ia bezen chuchenak. Badut uste auzoak bekhaizli zituen. Etcheko chakurrak, bethi, nausiaren hortzak ikusi eta, bereak erakusten zituen, mur mur mur, kirrika batean. Hura bederen bekhaizli zela, gauza segura.

Eta Joanesen *janiza* orai ! Lehenago, milinga batean, gauza hoberenak doi doia hunkitzen baizik ez zituen, eta orai, orolarik jaten, eta orok on egiten, luteho !

Loriaren erdian igeri bizi zen beraz Joanes. Arrats guziez, bere hortz benedikatuak, ongi garbiturik emaiten zituen ohe buruan eta biharamun goizean gero, berriez ahoan, amets gochoenak lorik gochoenean eginik.

Hoik oro sobraikinak. Nik ez dakit nungo sorgin zaharra han iraganik, goiz batez, iker eta iker, mia eta mia ari zen Joanes. Hortzak, hortz charmatuak nihon ez ageri!.. Erhoturik zoko guziak azpiz gora emanak zituen. Hortzik nihon ez bethi ageri! Mariaño, bere sehi zaharra ethorririk, eman ziren biak ohe azpiak eta oro ikertzen. Bainan debalde.

Oren baten buruan bezala, etsitu zuen Joanesek. Zer debrukeria bailzen ere han, hortzak galduak ziren, eta ontsa galduak. Eta bizkitartean, bethiko beren tokian ez zituen bada artharekin althatuak, bezperan?..

Kechu ziren beraz bazterrak, eta Mariaño ikharan egon zen egun hartan guzian, odolak bururat eginen othe zionez nausiari?

Ez zion odolak bururat egin, bainan bai hertzelarar, eta arratsean, barneko min bat bazuen Joanesek, michteriozkoa. Tillula eta malba edan eta edan, harat hunat bazabilan gambaran, selauruan, sukaldean, arima heratua bezala. Bere hortz eskastu hek bethi gogoan—bainan zorigaitzez, ez orduan ahoan! — urrikaltzeko ere zen, zinez eta minez. Lau hogoi urtheko atcho bat iduri zuen, bere ezpain sartu chimurtuekin, eta erranen zinuuten, garbiki, orcnetik orenera chimeltzen ari zitzaizkola ezpain hek. Chakurrak, bere mahain zokotik, ez zion gehiago behatzen ere. Eta auzoek? Ez zioten gaizki irri egin behar, ondoko egunetan!..

Eta sabeleko edo hertzetako min hura bethi han, ez batere ezlitzen! Sekulan ez eta, gaur, holako mina lothua, bet betan, hortz charmatu hek galdu orduko, eta erran ziteken kasik, *hek galdu zirelakoltz!*.. -Ez ahal zituen bederen...? Bai! zera! Iretsi hortzak!!! Bazuena bertzenaz burutik?

* * *

Biharamuncan, ametselarik bere hortzekin borroka ari-zanik, bezperan baino ere hilsago jeiki zen; hertzetako

sistak oinon saminago eginak zituen. Adichkide zombait haren ikuslera hain chuchen ethorririk, bere nahi gabea erran zioten lañoki, erran ere — irriz — burura nola jin zitzaion, hortzak iretsi othe zituen bederen, hek izaltzearekin holako sabeleko mina hari lotzeko, gisa hortan..

Adichkideak hantchet zauden, irriz hantuak, eta irri bura gorde nahi eta ezin egin, elgarri keinuka eta zimikoka. Azkenean, hetarik batek erraiten dio maltzur maltzurra, haren haur demboran, gizon bat halachet hil izan zela, hortz handi bat iretzirik, eta hortz harek hertzeak zila-turik. Bainan, oraikoan, holakorik ez zitaken. Hortzak oro iretsi balitu, balimba ohartuko ahal zen, zer mila sorgin!..

Eta joan ziren adichkideak, etcherainoko irri izan bait-zuten, arrats hartan, bidean.

* * *

Adichkideak joan eta, burua eskuetan harturik, chakurrari ostiko bat eman ondoan, gogoeta eta gogoeta gelditu zen Joanes: « Ez zen bertzerik! *Ireksiak* zituen hortzak; bai, jauna, ireksiak, eta, bezperaz geroztik, hertzen chilatzen ari zitzaizkon! Huna nun ziren, hortchet chilkotik eskuinago. Erhien puntan azlatzen ere zituen orai,.... Zer zoria, harena! Akabo zen laster Joanesez, Jainko ona ez bazitzaion urrikaltzen....! »

Eta Jainko ona urrikaldu zitzaion berehala Joanesi. Holz-ikare bat harturik, bere burua gehiago ezin jasanez, ohera doalarik, gogoratzen zaio hobe duela berehala medikuaren gana joaita, gero zer izanen bada ere.

Badoa beraz bere gambaralat, puchka bat aldatu behar duela, medikuaren aintzinerat agertzeko. Igandelako soina hartzen du, eta berehala oihu-garrasia handi bat egiten: « Mariaño! Mariaño!..... »

Eskuetan daukan soinaren sakelatik, pirripitaka erori da hor zerbeit, Joanesen zangoetara.....

« Mariaño! Mariaño!..... Hortzak!!..... »

— Hortzak ? Nun ?..... »

— Hortchet, sakela hortarik eroriak! Hobeki altxatzeko nihaurek hor emanak, dudarik ez da..... Ai, ui, ui!!! Zoaz, laster, Mariaño, eta oilasko bati lephoa bihurrozu eta zalu! Ai! ui! ui! »


Eta irrintzinaka, dantza-motchetan hasten da Joanes, gambararen inguruan. Eskapatu ez baliz, *fandangoetan* beharko izanen zuen ari Mariañok, bere zaharrean oraino.

Oilaskoa egintche zelarik, jautsi zen gure gizona, choria bezen alegerarik. Balentriaka bezala, eta mendekioz ere bai, chakurrari joan zitzaion aintzinera, bere hortz ederrak erakutsi beharrez. Kirrikan eman zen *Balu-jan*, baina irriz hasi zitzaion nausia, eta irriz oraino jarri zen mahainean. Eta hantchet, oilasko guzia garbitu zuen, hartarik bederen ez baitzuten haren adichkide maltzurerek milikatu. Irulegiko arno hoberenetik, *Paregabekolik*, flasko bat hustu zuen oso-oso, eta, pipatara bat belhar errerik bere hortz ederren artean, ohera buruz abiatu zen errepika-chameletan :

« Gaztetasunak bainerabila,
airean ainhara bezala..... »



Pausuan



SORGINAK



CHOBADINA. — Ama.

KATTALIN. —
LUICHA. — } Chobadinaren alaba gazteak.

MARIA. — Lehen hitz-untzia.

CHANETA. — Bigarren hitz-untzia.

JOANNA. — Auzoko adichkide gazte bat.

BENITA. — Bertze adichkide gazte bat.

JOSEPA. — Bertze adichkide gazte bat.

KATICHA. — Bertze adichkide gazte bat.

MAHUMA. — Lehen sorgina (*Kattalin*).

INGUMA. — Bigarren sorgina (*Luicha*).

BERTZE ADICHKIDE ZOMBAIT ORAÏNO.

LEHEN ZATHIA

*Sukalde balean, Chohadina (Ama) Luicha eta Kattalin
haren bi alabak) artho churitzen ari dira, hiruak kan-
luz :)*

I

CHOBADINA, LUICHA, KATTALIN.

I

« Ikusten duzu goizean, (1)
Argia hasten dencan,
Menditto baten gainean,
Etche ttikitto aintzin churi bat,
Lau haitz ondoren erdian,
Ithurriño bat aldean,
Zakur churi bat alhean,
Ni han bizi naiz bakean.

2

Nahiz ez den gaztelua,
Nik maite dut sor lekua,
Aiten Aitek hautatua ;
Etchetik kampo zaut iduritzen
Nombait naizela galdua ;
Zeren han naizen sortua,
Han utziren dut mundua,
Galtzen ez badut zentzua.

CHOBADINAK. — Bai, haurrak, Elissamboure Sarako
persulari aiphatuak ederki erran dauku orori zombat
handi egin behar den bere chokoa, sortzen ikusi gaituen
etchea. *Etchetik urrun, zorionetik urrun!* ez da egungo
errana. Haurregi zaizte, zuek oraino, bainan ene amari
entzun diot, behin baino gehiagotan, eskualdun kanta
bat, gutti kantatzen dena, ondikotz, egungo egunean!
Oraiko gazteek aire ergel batzu nahiago dituzte, eskual-

(1) Bere aircan.

dun kanore Uikiena gabeko aire chanfarin batzu... Nere amarena bertzelakoa zen, hitz daulzuet!....

LUICHAK. — Othoi, ama, kanta zaguzu aire chahar pullit hura ?

CHOBADINAK. — Ez dakit orhoituko naizenez ere sobra, haimbertze urtheren buruan.....

KATTALINEK. — Hean, ama, hean ?

CHOBADINAK

Berriz { « *Orhiko* choria, *Orhin* bakean da bizitzen ⁽¹⁾
« Bere larre sasietan ez da hura unhatzen ;
« Han zen sorthu, han handitu, han ari zen
[maithatzen,
« Han bere umen artean, gozoki du kantatzen ! »

LUICHAK. — Biba zu ama ! Badut uste Jaun Erretorak ere ez duen zuk bezen pulliki charamelatzen, ez eta ere Luziako Pettii orro-handi harek. Uste du ba gaizoak, bainan akerraren adarrak bezain makurreko boza du *Kantlarik* !....

KATTALINEK. — Eta zer ahapaldi pullita, ama ! Uste dut, pullitaren pullitez, jadanik ikasia ere dugun Luichak eta nik ; hean, goazin, hiruek betan :

« *Orhiko* Choria *Orhin* bakean da bizitzen,
« Bere larre sasietan ez da hura unhatzen ;
« Han zen sorthu, han handitu, han ari zen maitatzen,
« Han bere umen artean, gozoki du kantatzen ! »

KATTALINEK. — Ikusten duzu, ama, hean buru ona duten zure haurrek ? Berriz ere erraiteko, zer aire pullita ! « *Viens poupoule* » eta « *La Madelon* » bera ere hitsak zaizkit segur, horren aldean !

CHOBADINAK. — Bai, haurrak, biba gure chokoa !

(1) Bere airean, *Gure Herria* (Nº 9). Burulan eman airean (1921ean).

Eta oiloak bere chiloak bezala, begira dezagun chokoño hori, nondik nahi ager ditezen miruak.

KATTALINEK. — Miruak ? Ori, ama, hirri eginen duzu, bainan iduri zaut biga badazkitala, gure êtcheko chokoñoa nahasi nahi luketenak, eta nahasten ere dutenak, nere arabera,

LUICHAK. — Hoi bera heldu zitzautan orai gogora, Kattalin !

CHOBADINAK. — Nor bada, haurrak ?

LUICHAK eta KATTALINEK. — *Maria Elhorri eta Chaneta Chichla.*

CHOBADINAK. — Chaneta, Maria ? Egia da, haurrak, ez zinduzketala heien idurikoak ikusi nahi !

LUICHAK. — Heien idurikoak ! Fa ! zer aintzinekoak guretzat !

KATTALINEK. — Lurraren gainean egundaino ez ahal da bi liztor horiek bezalakorik ikusi ! Hoik, hoik ! zer prendak !

II

AINTZINEKOAK eta JOANNA, KATICHA, JOSEPA, BENITA.

(Hemen sartzen dire, orlho churitzeral heldu hek ere : Joanna, Katicha, Josepa eta Benita).

JOANNAK. — Nortaz zinduten bada solasa ? Eta lehenik, Jainkoak dautzuetela gau on ! . . . Nungo prendak zinduzten hola aiphatzen ? Ez gu, balimba ?

KATTALINEK. — Zuek ? Bai zera ! Maria Elhorri eta Chaneta Chichla ginituen aiphu.

KATICHAK. — Hola numbait han !

JOSEPAK. — Bai, nihun balimbada predarik, hoik prendak dire segurki.

BENITAK. — Zer laparrak ! Othaskaz othaska onthut-sik azken Judizioraino ibiltzea gochoago liteke. oren laurden bat horien aho-mihietan erabilia izaitea baino !

KATICHAK. — Aho-mihiak! *Eztenak* erran behar zinu-ke, ezen hoik ez dire jendeak, bainan suge-biperak.

LUICHAK. — Ederki diozu, Katicha. Bainan gehiagokoak ere bide dire oraino. Suge biperaren chichtakoak doi doia orratz punttaren sistakoa egiten du. Horien asi-kiak puska ere eremaiten du maiz, zakur errabiatuarenak bezala.

KATTALINEK. — Nago nola ez diren behin ere phozoin-
datu beren aho gozoarekin berarekin! (*Orok hirri egiten dute solas hortaz*).

CHOBADINAK. — Bai hala da, saltsa charra egin lezake norbaitek, horien mihia chaal mihiarekin nahas baleza uste gabetarik.... (*Orok hirri*).

JOANNAK. — Ori, andre Chobadina, behin baino gehia-
gotan egona naiz nere buruarekin, nola onhartzzen ditut-
zun zure etchean, ez bakarrik artho churitzetan, gu orai
bezala, bainan ere Jainko onak egiten dituen arrats gu-
ziez! Zuen egurrean berotzea laket zaiote, oihanak mur-
rirtuz geroz....

BENITAK. — Ez ahal dute gaizki hirri egiten, kafe
ttoltaño bal izaiten dutelarik.....

KATTALINEK. — Atso tzarrak eta ez bertzeak! Hortaz
ginuen solasa, zuek sartzearekin, eta ez ginen guti erho-
tuak.

CHOBADINAK. — O! kafe baino chikore gehiago izai-
ten dutela, gure etchean, fida zaitze niri.....

KATICHAK. — Zumalakarra ere sobra da horientzat,
Chobadina!

CHOBADINAK. — Hots! gaichtoak zaitze gaur, sobrach-
ko zinez!

JOSEPAK. — Gaichtoak? sobrachko? Ai, ei, ai! Gaicho
bildotchak!..... *Miserere mei!* (*Orok hirri*).

CHOBADINAK. — Eta gero, uste baduzue gogo onez on-
hartzzen ditugula *Bordachurian!* Ongi enganatzen zaitze.
Ezin bertzean diotegu athea zabaltzen. Zimitzak ere ezin
bertzean atchikitzen dira etchean, Josepa?

JOSEPAK. — Ori, Jainkoari esker, ez dugu zimitzarik etchean, bainan miliun bat zimitza onhets netzazke *Ithurburuan*, Maria eta Chaneta kampo egoitekotan!
(*Orok hirri*)

CHOBADINAK. — Hobe liteken, uste dut nik ere. Bainan, zer nahi duzue, haurrak, holakoekin etsai baino hobe da, nere arabera, ez..... *adichkide* baitezpada, bainan *elsai-gabe*.....

LUICHAK. — Eta egiazki, ama, horiek dire, horiek, gaichtoak, egiazki gaichtoak!.....

KATTALINEK. — Bai, hala da, Herri guzia nahasia daukate. Egia eta gezurra, oro bardin on zaizkote. Hunek hau egin, harek hura ez egin! Nardagarri ere da, arimaz egia! Herriko bi gazteek elgar ikusten badute onez onean, gure atsoek ez dute deskantsurik bi *adichkideak* nahasi arte. Eta gazte hoik esposatu balimbadire, oi, Ama! hiru ilabethe iragan ere gabe, *Phazko emanik Erramu baino ainlzinago*, chichtuz eta kantuz hasten dire liztor pullit hoik!

OROK. — Fu! zikin!.....

KATTALINEK. — Holakorik aski badelakotz gaur-gehiago, hezi behar dilugu ororen artean, bainan, finki eta behin bethikotz..... (*Athe ondora badoha, eta erhi bat ezpainen gainean, heldu da berehala gibelerat, erranez*;) Huna gure liztor pareta! Berma gaiten hor!

(*Sartzen dire orduan Maria eta Chaneta. Makila bendera dakarkate, eskuak haren gainean kurutzaturik egonen baitire, jitsik egin gabe*.)

III

AINTZINEKO GUZIAK eta MARIA eta CHANETA

MARIAK. — Jainkoak dauzuela gau on, haur ederrak!

CHOBADINAK. — Bai zueri ere!

KATTALINEK. — (*ahapetik*) Atso tzarrak! Pegarra hau-
tsiko ahal duzue noizbait! hortzak ere, balimba!...

CHANETAK. — Jartzen gira, ori, gogo onez. Unhatucheak ere ginen, bertzalde, oren huntan chutik, *Churittoineko* meta lastoari kontra egonik.

LUICHAK. — *Churittoinekoen* aldi da beraz, gaur ?

MARIAK. — Bai! Bihar zure aldi, Luicha; gaur *Churittoinekoen*....

CHANETAK. — Ez baitugu segur dolurik, pazote hantchet egonik, nahiz haize frikuna zen choko hartan.....

KATTALINEK. — (*ahapetik*) Mihi-sudurrak hormatu balauzkitzue segurik!.....

MARIAK. — Zerbait erran duzu, Kattalin ?

KATTALINEK. — Ez, ez fitsik..... Gau ederra dela gau-inarentzat.

MARIAK. — Beraz han ginaudelarik....

KATTALINEK. — Barrandan ? (1)

MARIAK. — Batre, gaichoa! Iragaiten bakarrik..... Gorrak izan beharko ginuen, *Churittoinetik* heldu zen kalapitaren ez aditzeko.

LUICHAK. — Eta zuek ez gorrak, debruari esker!

JOANNAK. — Ez gorrak, ez !.... *Mutluak* bakarrik. (*Orok hirri*).

MARIAK. — Zer duzue gaur, haur ederrak ? Beraz, hantchet entzun ez dugunik ez da: « Hordi tzar! Mandraina! Tripoia!.... eta nik othe dakit zer holarik oraino ! »

KATICHAK. — Eta hoi en guzien aditzea *urrik* zuentzat, Bordachuriko su-ondoan berotzea bezala! Zer loria! (*Orok hirri*).

JOSEPAK. — Pagatu ere behar izan balute, hantchet egonen ziren gau guzia, gaicho Katicha!.....

CHANETAK. — Aditzailerik nahi ez duenak, ez du gora behar mintzatu.....

BENITAK. — Eta aditzaileak ez du behar *aditua erre-pikatu*, bi sos en girichtinotasunik balimbadu segurik...

(1) Zeletan.

CHANETAK. — Gure aphezen erranak errepikatzen ditutzu bada aski maiz

CHOBADINAK. — Hots, aphezen aldi orai ? Be-gozi aphezak deskantsu ! Ez dire guk aho-mihietan erabili beharretarik.

KATTALINEK. — Ederki ! Ama ! Ichtantean Aita Sainduaren aldi da bertzela ! (*Orok hirri*).

MARIAK. — (*kechu kechua*) : Zer duzue bada gaur, gutaz hola irri egiteko ? Nehork ez lezake erran, Chobadinaren haurrak holakoak izan ditezkel, beren auzo nobere-
nentzat.....

KATTALINEK. — Baduk hoberik ! (*Orok hirri*)

MARIAK. — Zer gaizki ekartzen dute nehoi gure solasek ?

GUZIEK. — (*Salbu Chobadinak*) Gaicho bildotxak !

MARIAK. — Ez ahal gira arima galdu batzu, *Elicha Harri-Peñakoa* bezala ?

LUICHAK. — Elicharen aldi, orai ! Lehen eta ez azken !

CHANETAK. — Obra on guzietan sartuak ez girea ?

JOANNAK. — Bai eta ongi sartuak : (*ahapetik bere laguneri* : ezin alheratuak, zorigaitzez ! (*Lagunek hirri*))

CHANETAK. — Hots Maria ! Chuti gaiten, eta goazen, etchera !

Ez dugu hemen deus gehiago egitekorik

KATTALINEK. — Gaur, akhila ahal zaizte biziki, egin duzuenaren egiten ! (*Orok hirri*) Kafe ttottaño bat, Maria, Chaneta ? ... Kafe on bat, chikorerik batre gabekoa ?

MARIAK. — Aski hola, andreak ! Gure berri badakikezue laster.....

OROK. — Badakigu, badakigu, egurki !

MARIAK. — Ez aski, eta ez ongi, oraino ! Gau on, Chobadina ! Horiek bezen hobendun egiten zaitugu, zure ethecan manatzen ez duzunaz geroz hobeki.... Jende

onez ez da hola nihun trufatzen egundaino.... (*Badoazi, beren makilak bezen lente*).

LUICHAK. — Berriz ez ikus arte!

IV

AINTZINEKO BERAK, MARIA ETA CHANETA ESKAS BAKARRIK

CHOBADINAK. — Lan ederrik egin duzue, haurrak!

LUICHAK. — Lan ederrik ? Ez gira urrikitan sartze-koak!

KATTALINEK. — Aski ere ez diotegu ez erran, ez egin!

CHOBADINAK. — Bainan, haurrak! Eta karitatea ? Zer egiten duzue bada Jainko legeaz ?

JOANNAK. — Karitateak eta Jainko legeak galdatzen dute ihizi gaichtoari aztaparren errotik atheratzea, ahal delarik.

CHOBADINAK. — Joanna!

JOANNAK. — Bai, hola da, hoi, Chobadina maitea : gaizkiari zango-hegalak behar zaizko moztu, eta ondotik oraino ! Hean, hean, lancan ari girelarik, zer gogoratuko zaukun ororen artean, gure bi liztafineri beren sistaren atheratzeko.....

KATTALINEK. — Huna zer heldu zautan burura : Maria eta Chaneta, jende gaichto gehienak bezala, gaichto bezen *sinhets-berak* (1) direla badakizue, nik bezen ongi. Bethi sorgin eta debru ichtorio, ez dute bertzerik aiphu. Erraiten baitute, Semperen eta Lapurdi guzian, sekutako sorginak erre zutela lehenagoko mendectan, badut uste Mariak eta Chanetak *chitun* egon beharko zutela dembora hetan ! Bertzela, Jon Doni Joane bazperan egiten diren su handien iduriko su batean kichkaili beharko ziren.....

(1) Sinhestzate errzechak, *superfiziosak*.

BENITA. — *Hezechkoak* ez othe ziren izanen hortako ere ? Sua ongi harrotuz, behar bada.....

CHOBADINAK. — Benita! zoin gaichtoa ziren, gaur! (*Orok hirri*)

KATTALINEK. — Dena den, guzia superztzizione direnaz geroz, huna zer egin diteken, ongi balimbazautzue se-gurik....

Lehenik beren etcheetan beretan, behar ditugu izitu, harriarazi. Ganich eta Oier, gure anaiak, gordeko dire zoko batean, gauaz ; eta handik eginen dule zer nahi harramantza, oiuhu eta intzire, eta garrasia....

BENTAK. — Hoi! hoi! zer loria! Gora zu, Kattalin! Gero, gero ?

KATTALINEK. — Gero ? Hots, gero, itzal eta ilhumpe-tik sekulako harriak arthikiko dituzte.

KATICHAK. — Ai Maria! ai! Chaneta!..... (*Orok hirri*)

KATTALINEK. — Erran gabe doa ez dituztela berak hunkituko.....

JOSEPAK. — Hanbat gaichtoago! Zertako ez, pitta pitta bat ? Ez odolik egiteko heinean, bainan uspel pul-liño batzu, doi doa....

CHOBADINAK. — Josepa! (*Orok hirri*)

KATTALINEK. — Gero ondotik, hobeki eginen dugu oraino. Noiz eta ere durduzatucheak izanen baitire, hos-to-paper *gorri-gorri* baten gainean, hitz larri eta beltz batzuetan izkribatuko diotegu, MAHUMAREN eta IN-GUMAREN (1) izenean: « heien gaichtakeria guziez nardatuak direla ». Mahumak eta Ingumak aithortuko dute kalapila guziaren egileak, harrien arthikitzailak, hek direla eta ez direla hortan gelditzekoak ; zer nahi bertzerik egitekotan direla, non ez diren Maria eta Cha-neta beren phozoinkerien arthikitzetik hek ere gelditzen, eta lehen bai lehen oraino.

JOANNAK. — *Serora Bernardina* igor balitza bederen

(1) Izpiritu Gaichtoak, Sorgin-buruzagiak.

Ingumak! Ez omen dira sekulan mintzatzen Angeluko serora hoik!....

KATICHAK. — Zortzi egun gabe hilak litezke, gaichoa! Mintzatu, gabe, Maria eta Chaneta! Ai! ai! ai!....
(*Orok hirri*)

(*Bere lagunak hola mintzo diren artean, ichil ichila athera da Kattalin*).

V

BERAK, KATTALIN ESKAS

JOSEPAK. — Bainan, Ingumaren lerroak akabatu ere gabe, hil-gogor eroriko dira biak, izialdurarekin!...

BENITAK. — Hil gogor!.... Ori uste dut, hil ondoan ere, tal, tal tal ar litezken oraino, errota edo eiharako kalaka bezala..... Bainan norat joan zauku Kattalin?

KATTALINEK. — (*Sahetseko barne batetarik*). Heldu, heldu berehala. (*Eta hor heldu da Kattalin, sekulako puskak besoetan*).

VI

AINTZINEKO GUZIAK, KATTALIN BARNE

KATTALINEK. — Huna orai gure azken amarruak! Ha' ha' ha! Maria eta Chaneta! Hean, zuek ala guk, nork amor emanen duen lehenik?

GUZIEK. — Zer duzu hor? Ez gira bada oraino *thauterian*!

KATTALINEK. — Huna lehenik *bi mihise*, Mahuma eta Inguma, — erran nahi baita *Luicha* eta *ni* — inguratako baigira haien barnean, Aphezpikua bere kapa handiaren barnean bezala! (*Mihisea jaunzten du, burutik eta zangoetaraino*).

KATICHAK. — Oh ! zer sorgin parez egingen duzuen biek !
Biba Kattalin !

KATTALINEK. — Huna orai Mahumaren eta Ingumaren
buru izigarriak, harrigarriak ! (*Eta mihiseaz kukutu buruaren
gainean emaiten du paper hazkar batekila eginikako mustro-buru
bat. Lau zilo buru hortan, ballo ahoarentzat zabal zabala, bertze bat
sudur ziloentzat, azken biak begientzat. Argi bat gero buru izigar-
riaren barnean, lau ziloak sutan emaiten dituela*).

JOANNAK. — Oh ! izitzeko ere bada, egiazki !

KATTALINEK. — Izitu ere behar dute gure atso tzarrek.
Huna orai aihen ihartu makolatu hauk, Mahumaren eta
Ingumaren beso ihartuak dilezke, mihise azpitik atherat-
zen direla, hezur azantz batekin. (*Eta eskuan inharrosten ditu
bolchaarri edo attantun andana bat, klak klak klak egiten dituela*).

BENITAK. — Oh ! Eta guk, ez othe dugu deus egile-
korik izanen ?

KATTALINEK. — Bai segurki ! Mahuma eta Inguma bi
atso zatzeri phedeikuan ariko giren artean, zuek organoa
joko duzue, goare ozen batzuekin ; oihu eta garrasia haizu,
nahiko duzuen bezembat.

CHOBADINAK. — Bainan, haurrak, sobraakinak dira ho-
rick guziak !!

JOANNAK. — Cho ! andre Chobadina ; hasian hasi,
goazen bururaino ! Mariaren eta Chanetaren arimak li-
bratuko ditugu hola Purgatorioko suetarik... eta gu-
haur ere orai arterainoko Ifernutik. Ororentzat pobetchu !
(*Orok hirri*).

CHOBADINAK. — Ez dakit, ez dakit, *komberlitzeko* hoin
errechak izanen diren Chaneta eta Maria, Jainkoak zuen
josteta begi onez ikusi behar ere balu !....

KATTALINEK. — Bai, ama, bai ! zaude deskantsu...
bihar berean hasiko dute gure anaiak beren josteta. Eta
gero, zombait egun goiti beheiti, harrituak ethorriko
baitzauzku gure liztorrak, orduan, arrats hartan, zurekin
utziko ditugu bultaña bat, alegia zoin gure ohetarati gaki,
eta gaineratekoa bego gu guzien gain.... Bazaiztea oro ?

JOSEPAK. — Bai, bagira guziak. Gora, biba Kattalin!

KATTALINEK. — Bihotzaren hazkartzeko, beharrik balu ere, kanta detzagun orai bertze atso batzueri persulari zaharrek eman koplak:

1

a Herriko besta bihamunian,
Berek dakiten choko batian,
Lau andre, hiru mutchurdin, bat alarguna
jarriak itzalian,
Harri chabal bat belhaunen gainian,
Ari ziren ari ziren trukian.

2

Herriko besta arrats aphaian,
Lau gathu zahar, anjelusian,
Bat maingu, hiru saltoka, *sorginak*, puies! zoazila bidian,
Nik ikusi ditut amets batian,
Akhelarre, akhelarre gainian! »

(Agur egin eta badoazi guziak, kantuz oraino:)

* Bat maingu, hiru saltoka, sorginak,...



BIGARREN ZATHIA

I

(CHOBADINA ETA BERTZEAK ORO, salbu Maria eta Chaneta, artho churitzen ari).

JOANNAK. — Gure lana bururatua dugu, eta liztorrak ez zaizku oinon ageri. Ethorriko ahal dire balimba!

KATTALINEK. — Osoki zozotuak omen dire, harrituak! Ganichek eta Oierrek erraiten zukuten, ikustekoak ere zirela, zoin bere sukaldean. Ikhare-daldaran, hortzek klak klak egiten ziotela...

JOSEPAK. — Ez dute oihurik egin balere?

LUICHAK. — Oihurik batere, mutuluak.

KATICHAK. — *Mutuluak*, Maria eta Chaneta!!! Ha, ha, ha, ha!

JOANNAK. — Ez zituen Jainkoak hobeki gazligatzen ahal: *Mihiak bekatu, mihiak pekatu*.

CHOBADINAK. — Dohakabeak! Urrikari ditut hala ere. Ez ahal daude errechki beren etxetan. nehoi laguntzarik galdatu gabe!

BENTAK. — Hemen gintuzkeen bai aspaldi, ahalke pitta bat ez balute oraino. Gisa hartan gu ulziak azken aldian eta, ez da ez hain errech Bordachurirat itzultzea. Ez zautzu, Chobadina? (*Chobadina ihardestera doalarik, jotzen dute atean*).

CHOBADINAK. — Aintzina, aintzina!

Sartzen dira..... Maria eta Chaneta, hils-aldian osoki, eta zuri zuria eginak).

II

CHOBADINA ETA BERTZEAK ORO

MARIAK, CHANETAK. — Jainko onak dautzuetela gau on !

CHOBADINAK. — Bai zueri ere !

KATTALINEK (*ahapetik*). — Gau on ? Hoieri ? Ez balimba, gaur segurik !

(*Jartzen dire Maria eta Chaneta, hitzik erran gabe. Bertzeak, heien hils-aldiari behatu eta, elgarri keinuka, ahapetik hirriz.*)

CHOBADINAK. — Non zinezten, arrats hautan guzietan, Maria, Chaneta ? Gu bethi zuen goait... uste ere nuen joan den gauean erran bezala egiten zin aukutela, eta ez zindutela gure gaur gehiago ethorri nahi...

MARIAK. — Bai, ori, ez ongichko nintzen ni segurik.

CHANETAK. — Ni ere hala hala.

KATICHAK. — Ezagun ere da, Chaneta ; errotako zakua bezen churi eginak zaizte biak !

CHOBADINAK. — Eta, zer zinduten bada ?

MARIAK. — Ez gauza handirik baitezpada... (*Orok keinu eta hirri elgarri, ichil ichila*) bainan, ori, gauaz errechki izitzen, sukar pitta bat aski zer nahiren bururatzeko, eta zer nahiren ikusteko eta entzuteko...

CHANETAK. — Ni ere hola nintzen, ori (*Oro, ichilka, elgarri keinuka, eta ahapetik hirriz, salbu Chobadina. Hola hola ari behar dute bertalde bururaino, noizetik noizera, bi liztorren ahapaldietan*). Nihaurek ongi dakita zer nuen hala ? Haize hego figura horrek ere egiten bide zuen, dudarik gabe... Iduri eta arima herratuak... Dena amets tzar eta hola nintzan !

MARIAK. — Ametsa baizik ez balitz izan !

CHANETAK (*ihotzerat doanak bezala*). — Hori hori !... Bertzerik ere baitzen ordean !

MARIAK. — Bai, ene sukaldean, athean, selauruan ez zen harramantzarik ez da... Oihu, garrasia, orroa, chichlu... zer nahi entzun dut hiru gauez... Harritua, ez ninditaken chutik eman ere...

CHOBADINAK. — Dilekena da hoi ! Lotarik ari zinen...

CHANETAK. — Bai, zera, lotarik ! Nik ere Akelarre nuen hola hola, nere etchean.

OROK. — Oh ! (*guziak ichilik bultño batez; eta gero, alegia eta ikaran, elgarri kontra kontra hurbiltzen dira, jar-alkiak, jar-alkien aldean*).

MARIAK. — Eta holachet, beraz, hiru argatsez ! Jainkoa !!! Eta gero... (*izitua bezala gelditzen da*) gero, laugarren arratsean, mahain-ezkinean, paper-hosto gorri gorri bat kausitu dut...

CHANETAK. — Oh !...

GUZIEK. — Zer duzu, zer duzu ?

CHANETAK. — Nik ere paper bera...

GUZIEK. — Oh !... zer zen paper hartan ?

MARIAK. — Huna, orizue, badakigu segur gogoz. *Mahumak* eta *Ingumak* luzaz eta luzaz setiatuko gintuz-lela hola hola, eta gehiago oraino...

LUICHAK. — Oi zer harritzekoa, egia balimbadiozu !

MARIAK. — Egia ? Sinhesten ahal duzue ez naizela jos-tagura... Eta haimbertzenarekin, berri ere sekulako azantzak etche guzian...

CHOBADINAK. — Arratoin zombait zinduketen, han, se-lauruan, buruaren gainean.

MARIAK (*bichi-bichia*). — Bainan, Chobadina, arratoinek ez zuten paper hura...

CHOBADINAK. — Hala da hori ere. Ez dakit ori nik !...

(*Oro ichilik, bultño bat, lanean ari gehientsuak*)

JOANNAK. — Ez naiz orai harritzen, haimbertze berri baitabila, egun hautan, herrian.

MARIAK. — Zer berri ?

JOANNAK. — Ori, zombait gau hautan guzietan, argi handi batzu harat hunat badabilzala zuen etche ondoan, hil herrietan, *Errekacharon* ere bai.

CHANETAK. — Gure etche-ondoan ? argiak ?

JOANNAK. — Bai, eta gero diote, hil herrietako kurutze handiaren gainetik hegaldatzen ikusi duela *Mihimolcheneko* Mariak, halako bat, erdi gizon, erdi chori, harrigarri itsusia.

KATICHAK. — Bai, eta zer diote oraino ? *Erramunt-loineko* Piarresi bidera athera zaiola, *Buztingo*-errekan, chaal edo aratche bat egiazki izigarria. Ahalduen bezala

eskapatu da; bainan, gero, etcheratu denean, eta bere gerthakaria kondaturik, begiak, beldurrarekin bezala, harat itzuli dituelarik, chaal itsusi espantagarria ikusi dute berriz Piarresen eta haren ondotik etcheke guziek, han, atthemotzaren gainean, lephoa luze luzea, begi handi batzuekin, begi handi horiek sua zariotela. (*Guziek, beldurrarekin edo alegia, burua itzultzen dute Bordachuriko athe alderdira*).

MARIAK. — Ez ahal zauku chaala hemen agertuko, Mahuma eta Ingumarekin ?

CHANETAK. — Azken judizioa hurbildua ez ote dugu, ene ama zenak lehenago erraiten zuen bezala ? (*Ichil ichila, berriz ere, guziak*)...

BENITAK. — Hots ! Joanna, Josepa, Katicha, joanen gira elchera ? hamekak eta erdiak ditugu berehala !

JOSEPAK. — Hala hala da, eta lana ere bururatuthea dugu, ene uslez.

JOANNAK. — Bai, eta bertzalde, gauerdik ez ginduzke bidean atchewan behar. Gaur aditu gauza horiek orok nahasi naute arras, eta ez naiz batre nere buruari fida.

KATICHAK (*chutilzean*). — Brrr ! hotzez ala beldurrez ez dakit, bainan, ikaran nago ni ere.... Goazen !

BENITAK. — Gau on, andre Chobadina, Kattalin eta Luicha ; bihar arte, Maria eta Chaneta. Ongi zeina zaizte gaur, ethean sartzean ! (*Badoazi kamporat, alegia eta elcherat*).

III

CHOBADINA ETA BERE ALABAK, MARIA ETA CHANETA

KATTALINEK. — Guk ere, naski, hoi dukegu hoberena, Luicha ? Ez goazi ohera ?

LUICHAK. — Bai eta berehala ; gure adichkideak joanik hola, iduri zaut heien orde sorgin zerbait atherako zaukula, zoko zombeitetarik. Lazla bat sumatzen bezala dut egiazki.

KATTALINEK. — Bai, ori, Jainkoaren gomendiora ! Othoitz on bat eginen dugu, eta gogoa bakean lokartuko gira. Sekulan erraitekotz, gaur behar dugu erran gure amachori ikasi lehenagoko othoitz pollita :

« Mahuma, Mahuma, ez nuk hire beldur ;
« Jainkoarekin etzaten nuk,
« Ama Birjinarekin jaikitzen nuk,
« Bi aingeru ditia! ene sahetsean ;
« Ez hakitara atrebi othoitzcan,
« Ez loan, ez ametsean,
« Jesus, dia! ene bihotzean ! » .

« Banoa loaren hartzera ;
« Jesus zure izenean, gau eta egun !
« Jauna, zure odol dibinoaz erosi nauzunaz munduan,
« Arren errezebi nezazu hil et' ondoan zeruan !
« Jainko ona, othoi eman ezadazu
« Zure benedizioe saindua,
« Zutaz entzuna izaiteko grazia ! Halabiz !

.....
BIEK. — Gau on, ama ! Bihar arte, Maria eta Chaneta !

(*Badoazi hek ere, alegia eta ohera*).

IV

CHOBADINA, MARIA ETA CHANETA

(*Bultño bat ichilik egon ondoan*)

CHOBADINAK. — Eta zuek, Maria, Chaneta ?

CHANETAK. — Ori, Chobadina, ez dakit batre zer egin. Harritua nago, ikharan ; beldur naiz, beldur osoki, etchera joaiteko. Bakarrik han ez egon nahiz ethorria ere nintzan...

MARIAK. — Ni ere bai, hala hala... Bertze horiekin joan bagine, bideak bederen ez ginituen izituko... Nahiz gero, etchean !...

CHANETAK. — Eta andre Chobadina, hola zuk onhet-sirik, gaua hemen iragan bagineza, hemen berean ,jar-alki hauien gainean berean ?

Chaneta hola mintzo eta barneko argiak hilen dituzte, kasik oro, edo kampak leihoak numbait-han hetsiko, eta ilhumpean hola daudelarik, berehala eta bet-betan hasiko dira mila oihu eta har-ramantza : tuta, goare, chilintcha, oihu, marraka eta gorrastia,

orro, guztietarik; lehenik urrunekotik bezala, gero hurbil hurbiletik
Eta gero, berriz ichillasun handiena.

Maria eta Chaneta, elgarri beha, harrituak. Harramanza itsusi
haren ondotik, itsusiago baizik ez zaiote iduritzen ichillasun handi
hoi.

Behatzen diote Chobadinari, haren ganik zerbait laguntza beharrez;
bainan, Chobadinak, alegia eta harritua hura ere, begitartea
emana du bere bi belhaunen artean sarturik.....

Bet betan, bi murruma itsusi entzuten dire, eta alhe ondoan, ja bar-
nean sartuak, agertzen dire laulen artean jatiak balire bezala,
bi mustro izigarri, Mahuma eta Inguma.

Hurratsean heldu dira, azantza itikiena ere egin gabe, hurrats bat
egin orduko geldituak, biak.

Biek betan alchatzen dute beso ihartu bat; heien begiek, sudurrek,
ahoek sua dariote.

Maria eta Chaneta chulitu dire, hortzak dal-daran, paretari eskuak.

V

CHOBADINA, MARIA, CHANETA, MAHUMA, INGUMA

CHANETAK eta MARIAK. — Oh! oh!

CHANETAK. — Zer dire hoik, Maria?

MARIAK. — Galdeozute, bereri!....

(Mustroek, hiltzik erran gabe, egiten dute bertze hurrats
bat, eta beren beso ihartua berriz alchatzen).

BIEK. — Oi, oi!... Chobadina! Chobadina! (Chobadina
burua behi kukulua, ez da mogitzen)

(Maria eta Chaneta, belhaunen gainera eroriak oihuz).

BIEK. — Othoi, barkha, Mahuma, Inguma!!!

MAHUMAK. (boz ikaragarri batean). — Barkha? Barkha?

Barkhatzen othe zinduten, zuek, suga-biperak, bati sis-
ta, bertzeari asiki ari zineztalarik?

BIEK. — Othoi, othoi!..

INGUMAK. — Ez, ez da zuentzat barkharik!... Gurekin,
gurekin, eta orai berean. (Bere esku ihartuarekin hunkitzen dila,
eta biak, zabal zabala erortzen dira, orroaz).

MARIAK. — Ez dugu gehiago eginen gaichtakeriarik, sekulan!

MAHUMAK ETA INGUMAK. — Ez othe ? sekulan ?

CHANETAK. — Ez, ez! sekulan!... Chobadina, Luicha! Hel! Hel!!! *(eta biak, muthuririk, aldichartzen dira, hilak bezala, hotz hotzak).*

Mahumak eta Ingumak artikitzen dituzte orduan beren mihiseak eta aihen ihartuak, hiltzen beren argiak, eta puska hoik guziak zoko batean gordatzen. Leihoak idekitzen dire berriez, edo aintzineko argiak phizten.

VI

CHOBADINA, KATTALIN, LUICHA, MARIA ETA CHANETA

CHOBADINAK. — Sobrachko ez othe ziren horiek oro, haurrak ?

KATTALINEK. — Fitsik ez da, ama! Ur chorta bat begitartera eta sendo dituzkegu biak. Gure adichkideak, Joan-na eta bertzeak, gordeak hortchet baitaude, banoa heien oihuka ekharraraztera, ja urrun joanak balire bezala. Zato, Luicha, ez gaituzte hemen ikusi behar, atzarriko direlarik.

Badoazi biak, eta Chobadina emaiten da Mariaren eta Chanetaren arhatzen, oihal busti batez heien jerekatzen bezala. Mariak eta Chanetak, aski laster, idekitzen dituzte begiak, begi ilhaun eta malatu balzu : eta orduan berean, alegia eta lasterka, sartzen dira berize guziak.

VII

CHOBADINA, MARIA, CHANETA ETA BERTZEAK ORO

Orok *(oihuka)*. — Zer da, zer da ?

KATTALINEK. — Zer ziren oihu izigarri hoik oro ?

(Maria eta Chaneta jarririk emaiten dituzte ororen artean).

MARIAK (*emeki'emeño mintzo delarik*). — Orizue, haurrak, zuen amak oro badakizka. Bihotzik an aski ez dugu zer iragan den erraiteko.

(*Edari on hortan bat emaiten diote Luichak*).

LUICHAK. — Hurrupa zazue hau, Maria, Chaneta!

MARIAK. — Hobeki naiz, hola! Chaneta ere, dudarik gabe? Chutik emaiteko on bagira segurik, bagoazi etcherat. Segi gaitzatzue, othoi, haraino....

Gure gaichtakeria guzitik sendatuak giren bezala, mustro eta harramantza guziak suntsitu ahal dira, hek ere, behin bethikotz!..

CHANETAK. — Gau on, Chobadina! Othoitzño bat egizu garen dohakabeentzat!

CHOBADINAK. — Jainko onak lagunt zaitzatela!

Baduazi Maria, Chaneta, bertze guziek (salbu Chobadinak) laguntzen dituztela.

VIII

CHOBADINA *bakarrrik, mahain eta jar alki, oro beren lokieta emaiten ari*

CHOBADINAK. — Hauche da gerthakaria! ... Ahulegi izan othe naiz? Jainkoa, zuk barkha!..

Bainan nork atchik gazte hoik guziak?.. Eta bertze alde, beren katichima ongichko ikasia zuten, gaizkiari aztaparrak moztu behar zaizkola, eta behingotz! Zer ihardetsiko nuen, zer ihardesten ere ahal nuen? *Tapatu* nante, *lapatu*, eta ederki..

Berriz ere, Jainkoa, zuk barkha!.. Eta egia da, gaichtoak zirela egiazki gure auzo dohakabeak. Agian erranen dugu ez *direla* hala gehiago.. Bainan ez dakit.. Gero ageriko..

Huna haurrak non heldu diren! Itsusi tcharrak!.. (*Hirriz sarizen dire Kattalin eta bertzeak*).

IX

CHOBADINA ETA HAUR GUZIAK

KATTALINEK. — Horra, ama, horra lana guk egina. Segitu izan ditugu etcheraino, Mariaren etcheraino, ezen gaur elgarrekin behar omen dute.

Mainaz josi bezala ditugu ; choko guziak ikertu ditugu, ohe-azpiak eta oro, heien nombait-han sosegatzeko. *Nombait-han*, erran dut ; ezen on da izialdura pitta batekin lokhart dilezen gaur oraino, batre lōkhartzen babilimbadiara segurik..

CHOBADINAK. — Gaichtoa !

OROK. — Oh ! Chobadina !

CHOBADINAK. — *(erdi hirriz)*. — Gaichtoak !

GUZIEK. — Gaichtoak !

CHOBADINAK. — Bai gaichtoak, oro.

LUICHAK. — Ah ! baia ? Huna orai zure aldi, ama, ahtian Mariaren eta Chanctaren aldi bezala ! *(Orok elgarri emaiten dituzte eskuak eta Chobadinaren inguruan, jauzika emaiten dire errepikan)*. (1)

« Harat hunat badoa gure ama ona,

Erlea kofoinean iduria, dena !

Oi zer ama Jainkoak deraukun emana !..

Erregina batentzat sal ez gindiona ! »

Tra la la, la la ra, tra la la, la la ra..

CHOBADINAK. — Haurrak ! haur handiak !

KATTALINEK. — Hots, ama, badut uste minatcha chorta bat ongi guretua dukegun ! Gaurkoak bezalako izialdura eta jostetek khalda eman ere daukute. Eta gero, ni segurik, buruaren gaineko nere argiak mihiseari su eman beldurrez, chifritua nindagon.. *(Pitcherretik, hirri eta hirri, edaten dute orok, salbu Chobadinak, eta gero, guziak, emaiten dira kantuz)*.

(1) Aireak : Haurrak ikas-azue.

KATTALINEK. — Zintzurak gochaturik, goazen orai..
Kantuño bat, oherat zinez eta egiazki joan baino lehen.

1

Gure herri chumetan (1)
Zembat hitz-untzi!
Zinez ala jostetan,
Oro erasi!
Gaichto nahasi!
Beha daude nor zertan
Hobendun kausi,
Nori phitz auzi;
Deus ez nahiz bertzetan }
Onik ikusi! } berriz
Tra la la, tra la la, tra la la la..

2

Gabaz, akhelarretik
Mainguka jinak,
Hasten dire goizetik
Gure sorginak,
Debruz eginak!
Sist handik, sast hemendik;
Zer liztafinak
Edo ausinak!
Sendatzea luze dik {
Hek egin minak! } berriz

(Agur handi bat egiten dute guziek, eta badoazi errepikatuz)


Tra la la, tra la la, tra la la!



(1) Aireak : Ikharzelako mandoa.



Трапе ерһаһтһ



TORI DRAGO BAT



AURITZEKO parrean hunat, heldu zen Batichta Garaztarra, orroaz mendieri :

« Bas'oilarra kanluz,.... »

Irailiko sorhoan..... »

Tratu bat ona eginik ferietan, moltsa luze berdea diruz betherik, *amiñi* bat alegera zen. Nafar arnoaren zinezko gozoa!.... « Ai, ui, ui!.... »

« Nik badakil, zaharragoek erranik,

Arno onak ez duela puerrik ;

Orai ere, berriz ere, balinbanu harlarik,

Edan niro basoa betherik. »

Laphurdi, Chubero eta Garaziko kantu mota guziak emanak zituen jadanik, noiz eta ere, iguzki aphalean, *Ibañetako* lephora heltzen baita, zintzurra larrutua, bainan gogoa bethi bero beroa. *Guardianoaren* ttattolan pint' erdi bat edan eta, *Luzaideko* alderat jaustera zoalarik,

alimaleko mandozain muthur beltz bat ondoratzen zaio, hura ere Frantziarat ari :

« Arratsalde on !

— Bai zuri ere.

— Frantziarat joaiten zare ?

— Bai. Zu ere naski ?

— Bai, eta lorietan joanen gare elgarrekin.... »

Eta holachet heldu ziren biak, mando handi bat gibeletik, zahagiz gain gaineraino kargatu mando bat. Batichtak hain nahiagoko zukeen, bere moltsarekin, bakar bakarrik sartu Frantzian, Donibane Garaziko karrikan, *Manje-lainean*. Bere sudur luze mehe eta begi chorrotchekin, ez zelarik bada gure Doniandarra beldurti beldurti hetarik, Aragones demuntreak halako lazta bat emaiten zakon hala ere ! Eta ilhuna heldu, futcho, mendi handier beheira !

Haimbertzenarekin, Españolak erraiten dio :

« Prantses horiek.... dena espantu zarete !.... Mila kemoñoia, non dago Españolak bezalako gizonik ? Parise zer nahi badela ! Parise edo Marise, hogoi mila Españolak ez otte lukete hartuko ?... »

Batichta, nahiz Parisez guti kilikatua, hortzak hirrikan zagon, ezpainak mehe mehea. Zer lorietan aurthik leza-keen, hatzez gora, mandozain gaizki ikasia ! Bainan makila tchar bat baizik ez du eskuan, eta Españolaren begitartea Moro baten begitartea bezein beltza da ; puñala ere ez duke urrun, gerrikoaren azpian. Zer egin beraz ?... Gerochago ikusiko. Anhartean, gogoaren kontra, irri zuri batekin ihardesten dio mandozainari :

« Hogoi mila Españolak ? Bai eta hamabost milek ere ! »

Español zozoa loriatzen da, eta mandoa geldiarazirik, zahagitik beretik emaiten dio edatera Batichtari :

« Tori drago bat ona, amigo ! »

Batichtak bere kechuaren iresteko, eta ere... zintzur-

raren leguntzeko, klikatzen du arnoa, bere buruarekin erasian :

« Ago demuntren koko beltza, ago! Hireak harturik behar duk, gaur oraino! »

*
* * *

Urrunago, *Luzaidoko* erreka itsusien ondoan, berriz ere erraiten dio Españolak :

« Bordele edo Mordele, hamabost mila Españolek ez othe lukete beretuko ? »

Oi, Batichtaren errabia! Balitz *Pekotch* aldean, edo han numbait, Frantzian! Bainan, ez, Espainiako zokorik itsusienetan da, gau bethean orai, eta mandozain demonioaren begiek dir dir dir egiten dute ilhunbean! Ihardesten du beraz, bethi irri maltzur berarekin :

« Hamabost mila Españolek ?... Bai eta hamarrek ere!... » Eta mandozainak berehala, nafarrez ase karkaila batean :

— « Tori drago bat, berriz ere!.... »

Arnegiral heltzean, hirugarren aldikotz, oihuka, Españolak :

« Baiona edo Maiona, hamar mila Españolek ez othe lukete aurtirikiko ? »

— « Bai eta bost milek ere!.... »

— « Tori drago bat, berriz ere!.... »

Mandozainaren arnoak ez zuen erraitekorik: ona zen, arras ona, den mendreenik urtatu gabekoa, eta Batichta, pindarrak begitik jalitzen zitzaizkola, irriz zagon bere buruarekin :

« Ichtantean pagatuko deat kondua, amigo ; zorrik ez diat nahi ostatuan. »

*
* * *

Donianerat hurbiltzen ari ziren orai. Jadanik, urrunera ageri ziren *Arzaqueteneko* ostatuko argiak. Española

heldu zen urguluz zozotua, Frantzia guzia ja berak sunt-
situa balu bezala. Azken orro batean galdegiten dio beraz
Batichtari :

« Doniane edo Moniane, San Juan edo Man Juan, mila
Españolek ez othe lukete hartuko ?.... »

Batichta ez zen, ez Paristarra, ez Bordelesa.. baina
Doniandarra zen ; Espainiako mendiak harachko ziren,
eta bertzalde, mando zainaren zahagia Arzaguetenean
sartzera zoan !..... *Pin, pan*, bi pasoz, erroz gora igort-
zen, du hantchet espagnol muthur beltza.. errekarat :

— Doniane! mila Españolek!.. Ez eta hi bezalako
ehun milek ere! Atchikak hori, to! koko beltza.. eta za-
hagirik ezpaitut nik hemen, erreka-ko uretik edanezak,
ordainez, trago bat ona!..


Eta Batichta irrintzinaka sartu zen Donianen :

« *Ai, ui, ui, ui, ui!*.... »

N. B. — *Español mandocaina Eskuara pochi bat murrakatsen ikasi Er-
dalduna zen, Aragenesa, eta ez Eskualduna. Hori, erran gabe doan gauza.*



Hendaia'tik Ondarribi'rat



Phedeiku bat Pollita



BEHIN bazen aphez bat, ona bezembat biltchia. Bertzeek ez bezala behar zituen erran eta egin gauzak oro.

Oroz gainetik, aditzekoak ziren haren phedeikuak! Ez dakit Aphezpikuak onhetsiko zituen oro, emaiten zituen molde hartan berean, bainan, bethi, jendea loriaturik zagon, elizaño hartan.

Beraz, igande goiz batez, Ama-Birjina Lurdekoaren agertzeaz mintzatu behar eta, huna nola mintzatu zitzaion bere arthaldeari:



« Aspaldiko urthetan, nehor guti zoan zerurat, jendea tzarturik, mendea galgarri egina zelakotz. Zeruko atheak, zeruko gakoak, herdoilak janik, gorri gorria eginak ziren; Parabisuko bide urrhezkoa dena sorho zen eta arrantze.

Athe aintzinean jarririk, tartean eskuak begien gainean emaiten zituela, urrunagotik ikusteko hean nehor noizbeit agertuko othe zenez, Jon Doni Petri, zeruko giltzaina, gogoa ilhunik zagon. Bet-betan kechuaren kechuz ezin gehiago egonez, hor, chutitzen da, eta *Jainko Ailaren* gana badoa, bichi bichia oraino adinarendako. Ahuspez emaiten da *Aila Eternalaren* aintzinean, eta gero, belhaunen gainean emanik bera, huna Apostolua mintzo:

« Jauna, oritzu zeruko gakoak; itze bati dilindan

emaiteko on baitira segurki. Nehor ez da gehiago zerurat heldu, urrunerat ere nehor ez ageri! Huna beraz giltzak, bertze lan zerbaiti lot nadien berehala zeruan,* aller tzar egoiteko orde. Damurik ez da hemen ene lehenagoko *sare* chaharrik, heien ongi antolatzeke, nahiz bichta joantchea dudan.. »

— « Petri, harzkik giltza hoik gibelerat, eta hoa, laster, Zeruko Athearen zaintzera.. Hine Jainkoaren manua duk hoi, eta lehembiziko desobedientzia egitekoa duk oraino. »

— « Banoa, beraz, Jauna. Bainan, utz othoi nezazu galde baten egitera. Nehor gehiago zeruan sartzekoltz, orai bi mila urthe bezala, *Jainko-Semea igorrazu berriz munduaren salbatzera*. Bertzenaz, berriz ere erran dezadan, itzetik dilindan emagun gako handi urrhezkoa, nehor ezda gehiago hunarako... »

— « Jainko-Semea berriz igor mundura ? O hoi, gauza handia, bai zinez handia aiphatzen dautazu, eta gogoela handienak galdegiten dituen gauza bat. Zoazi beraz, eta berehala, zoazi *Izpirilu Sainduaren* kausitzera, zer iduri zaion galdatzeko. »

Eta, aire berean, Izpiritu Sainduaren gana badoha Jon Doni Petri. Bainan, Izpiritu Sainduak, berehala, erraiten dio.

« Ez da hoi nere egitekoa. Zoaz *Jainko-Semearen* gana ; berari iduri zaiona eginen du harek eta harek bakarrik. »

Haia, haia, horra beraz Apostolua Jainko-Semearen ondolik. Bainan Jainko-Semeak ere erraiten dio berehala : « Ez ditaken gauza da hori ; *aldi bat* salbatu behar nituen gizonak, aldi bat salbatu ditut, heientzat hilez. Aski da hola, eta bertzerik ez dezaket, bertzerik ez dut egin ere behar... Bizkitartean, zoaz ene *Amaren* gana ; zer ere iduriko baitzaio eta hura ongi izanen da ».

Badoa beraz Apostolu handia — kechu kechua ordutik — badoa *Ama-Birjinaren* gana. Bainan, Ama on harek,

oro bururen-buru entzun ere gabe, erraiten dio Petriri :
« Ongi da ! Igurika nezatela, othoi, ittant bat. Ene-soin
churiaren eta gerriko chingola urdinaren emaiteral noa ;
arrosa urhezko bat, gero, nere zango puntten gainean,
eta zuekin naiz . . . »

Eguerdi laurden guti zen, hola Zeruko Erregina aldat-
zera joan zelarik. *Eguerdi beretan*, Ama-Birjina han zen,
bere Harpeko ziloan, Massabielleko harri ilhunaren gai-
nean, *Lurden*. Mundua salbatua bezala zen, berriz ere ».

*
* *

Horrela mintzatu zitzaioten aphez-pedeikaria bere gi-
richtiñoeri, eta girichtino hoik nigarrez ari ziren ezti ezti.
Jainkoaren Ama heien ondora hegaldaka jausten ikusi
balute bezala . . .



MIARRITZEN. — Bilbao'tar Sota jaunaren etxea



Itzaina bidean



Ezkila Charmatua



HOR nombait, Lapurdin — ez dugu erranen non —
bartzerrak kechu ziren.

Gobernioko eta herriko gizonetarik zombaitek hola nahirik, eskola berria egin zuten, kaperaren aintzinean. Eta gero, merkeenerat, *kaperan* sartzeko atheaz nahi izan ziren baliatu, *eskolan* sartzeko.

Elizako aitzindariak, orduan, Jainkoaren zuzenak ostikatzerat ez uzteko, hetsi zuten kapera.

Jendea ulitchekin zen ordutik harat, herriko jauntxo heieri buruz.



Hain chuchen, urthe guziet bezala, proesione bat egin behar zen herritik, mendi kasko batetara ; hots, eman dezagun : *Larreko Gurutzera*.

Jaun erretorak oihu egin zuen beraz, bethi bezala eginen zela proesionea, baina, delako kaperan, bertze urthetan bezala, sartu gabe. Aldetik iraganen zitzaizkon oro, othoitz errepiketan, baina..... deus bertzerik ez zen behar, *ez eta ere kaperako ezkilarik* : alabainan, jaun aphezpikuak ez zuen hoi onhesten.

Kartierak bazuen orduan larre-auzaphez edo mera bat. Gizon ona, baina..... Eta gero, zahartua zen eta

gorra,..... Zirikolatzeko edo Cherrendako pekadak bezembat gorra, elkorra.

Piarresen hasarrea, jaun erretoraren oihua jakin zue-nean! Su eta phindar dena, gorrak oro bezala, karrasiaka ari zen guzieri: «Zer erran du erretorak? Ez duela joko, gure ezkilak?.... Alafede joko duela! Ene aitak egina dik? eta kartierarena duk! Joko dik, joko, ni Piarres naizen bezen segur»!

*
* *

Maiatzaren hirua zen, *Santa Gurulze* eguna. Goizeko zortziak hirian, Larreko Gurulzetik jautsia, orga-bide edo inta pullit bati behera heldu zen orai proesionea, kartierean sartzen ari. Aintzin aintzinean bazoan Pettan, gurutze eremailea, orai bezen gazte orduan, bi beatter aldean; ondotik, haurrak, jauzteka. Gero gizonak, bi oren hartan buru-has, arrosarioak eskuan, kantu errepikan; gero bikarioak erdi erdian, eta gero, azkenik, emaztekiak, zombait othoitzean; bertze batzu ahapetik kalakan, oro Pettanen hurratsari ezin jarraikiz.....

Bet betan, hor, Pettani gurutzea eskuetarik eskapatzer zaio. Beatter debru hek, sudurra airean, bi aldetarik, tankez gelditu zaizko. Beira daude biak, toki berera: kaperako ezkila dorre pullitera. Eta, kaperako ezkila-dorre pullitean: oi Jesus! — Mirakuilua ere ez zena hori! — ezkila bazabilan harat eta hunat, firrindilaka, ezker igan orduko eskuin jautsia, erhotua eta..... *mululua*! Bai, *mululua*, eta hortan zen bada mirakuilua: halako zaparletan zabilan ezkilak..... *zeinurik ez zuen*! Neguko bele zahar zahar handiak bezala, bazoan goili, beheiti, ezker eskuin, bainan bethi ichilik, mututua. Sokaren firrinda ezagun zen bakarrik, bainan hura ez nola nahikoa!

Pettan, bere letanien eta letainen artetik, hirriz ari zen gochoki: «To, ederra diaguk hori!». Beatterrak eta haurrak, erhiak bethi airean, oro elgarri beha; gizonak,

kapeluak ahoaren gainean, kur, kur, kur, oro hirriz ; jaun bikarioa, alegia eta hasarre, guziera gaizkika. Chantrea, hura, kisu-labea bezen handiko aho bat zabalduz, ari zen hirriz eta orroaz : *Ab insidiis diaboli, libera nos, Domine!* » Baina ez zioten ez Josepek, ez bertzeek ihardesten : hirria nausitua ; bazuten bertze egitekorik !...

Proesionea bazoan bizkitartean, andarka, ahal zuen bezala, hogoi'ta bortzek elgar koskatzen zutela, han, aintzin hartan, norbait osoki gelditurik, ezkila charmatuari beira eta beira. Josepi egun hartan, makurtu ere omen zitzaion sudurra, geroztik belhi goiti behatzen baitio sudur harek, ezkila mirakuiluzkoa, han, begien gainean balu bezala !

Emaztekiak, kaperaren aldean iragan zirelarik, — hau ere ez zena mirakuilua ? — *oro kolpez ichildu ziren* ; eta, herrestaka heldu ziren azken atchoetarik zombaitek, ezkila dorreari behatu eta, Hettoko alderdirat hartu zuten ikarelan, bai eta ere gurutzearen seinalea hiru aldiz egin hantchet, kaperako alderdira burua makurtuz eta kokotsa luchatuz, Debrua, *Galtchagorri*, handik atheratzen ikusi behar ukan balute bezala !.....

* * *

Eta huna non, zinez eta minez, kapera barnetik atheratzen den *Galtchagorri*. Oren laurden bat, izerditan, ezkilaren sokari tira eta tira arizantik, gorri-beltzaturik, eta eskuetan frintzak eginik, jali zen beraz.... Piarres, Piarres gorra, larre auzapheza.

Ezkilak jo zuen edo ez zuen, hoi ez zakien, gorra zen bezala, baina hortaz ez zen grinatua, ez eta ere den gutienekorik. Ezkilak ez dira..... jotzeko, choriak airean ibiltzeko bezala ? Eta harek othe zakien, Piarresen jokoaz jelosturik, ezkilari bere mihia kendua ziola, bezperan, herriko biligarro on batek ?

Izerditan heldu da beraz kampa, eta kartiereko gizon

multcho bat, proesionea han utzirik, etcherat heldu baitzen hain chuchen, oihu egiten diote, loriarekin zozotua bezala: « Gan duk proesionea!..... Ba eta, jaun erretorak nahi edo ez nahi, jo ere dik gure zeinuak! ».

« — Jo!!! Bai ederki.... bainan hire zeinua *nehork ez aditu!* »

« — Nehork ez aditu ? Ezkila ? ... Nola bada hoi ? »
Eta hor, hirri maltzur batean, oihuka kondatzen diote, nola, — mihiaz gabeturik, dudarik ez dena — ezkila jo gabe arizan den oren laurden bat osorik, jende guzia urratu-
turik han zagoela!.....

Piarres, beharriak ahalik bazoan orai, etcheari buruz... Gorra ere zelakotz, ez zuen aditu, bainan orduan berean, Hetto aldelik, chantre ospina orroaz ari zitzaion...

« *Ut inimicos sanctæ ecclesiæ humiliare digneris...* ». Eta proesioneke jende guziek ihardesten zioten, orok betan: « *Te rogamus, audi nos!* ».


*
*
*

Zombait egunez, kontrabandichtak ahantzirik, Brigadako gardak oro egon ziren, alegia eta dousere ez, zeletan, barrandan, zerbait atchegan beharrez. Bainan zer atchegoman zezaketen ?

Hori zakiena ichilik egon zen, eta gero, lehembiziko uri-aldian berean — bethi mirakuiluz — ezkilaren mihia kausitu zuten... kaperako teilatuaren urak biltzen zitu-
en aska handian.

Deus onik ez zuen izan handik harat Piarres gaizoak, eta berak hetsarazi kapera berriz idekia ikusirik, joan zen gain hartarat, Jainkoaren aintzinerat, agian zeruko ezki-
len adiltzera!





Jaun Erretoraren Zapatak



ORAI duela aspaldi, lehenagoko mendeetan, han, Har--
tzamendi, Mundarrain eta *Isasuko* Athekek hartzen
zituela, lanho itsusi bat hedatu zen, egun batez, arratsalde
erditan, zuri zuria lehenik, ilhun ilhuna gero, eta azke-
nean, dena hauts kolore.

Mustro bat iduri, kurumilkatuz bazabilan, bortue-
lako pozoinak oro bildu nahi balitu bezala. Eta orai,
pozoin helaz leher egiteko heinean hantua, pisu pisua
heldu zen zelaieri buruz. Eta Lapurdi guzian, ikharatu
ziren jendeak, alimaleak eta kasik ere gauzak.....
Uztaileko lehen egunak ziren, eta, bazter guzietan, al-
horrak, begiek ikus-ahala urrun, ogi urhezkotz estaliak,
sega chorrotchen beha zaudela erranen zinuten. Seg-
a heldu zitzaizoten egun, baina zer eta nolako sega!....

Hedoi izigarria heldu zen beraz, haize zirimola batek
hartu eta zeramala alderdi orotara. Urrunera, burumba,
orroa ilhun bat suma zitekeen, lazta bat emaiten baitzio-
ten guzietan. Eta gero, chimichtak jali ziren, hauts ikhara-
garriaren erditik. Zer ihurzuriak! *Santa Barbara*, urri-
kal gakizkitzu!....

Lasterra ezin aski zalu eginez, etcherat, bordaldetarat,
heiarat bazoazin jendeak, alimaleak, ichilik jendeak, mar-
rumaz alimaleak, oro harrituak. Choriak, hek, aspaldi
ichilduak ziren, arbola ziloetan, berro zokoetan kukutuak,
ez-deustuak ere!

Lanhoak heldu ziren, anhartean, bethi'ta izigarriago,
ortzi-karrasken erdian. Arbolak lurreraino kurtu ziren,

ile handi batzu bezala beren adarrak alde guzietara chich-
tuka luzatuz.... Alhe leihoak zapartakan abiatu ziren
etche guzietan, asko pareta zahar urratu, teilak airez-
aire hegaldatu, eta.... hedoia lehertu zen herriaren
gainera.....

* * *

Itsasoa erranen zinuén orai etche bakotcharen ingu-
ruan ; harramantza itsusienak, orroa guziak han elgarre-
taratuak.... Arratsalde erditan, gau ilhuna, dorphea,
zinez izigarria, chimichta hori eta gorriak ilhumbearen
argitzaile.

Adarra lehertu baino lehen elizara lasterrez joanak,
emazteki zombait, arrosarioak eskuan, othoitzean ari
ziren, ikharetan. Laguntza bat zitzaieten aldare aintzi-
neko argiak berak iduri zuen hiltzera zoala, hura ere.
Lur-ikhare batean bezala, daldara ilhun batekin, ikharat-
zen ziren eliza zahar zahar hartako paretak, eta, han,
ezkila-dorrean, ezkilak intzireka abiatu ziren.

Karrikan, bizkitartean, ezko-chirio benedikatuak, lerro
lerro, phizten ari ziren, etche guzietan. Ichil ichila, orok,
erremu-saindu hosto bat eskuratua zuten, eta amak,
erremu-saindu hartarik ahutara bat arthikia ere zuen su-
phizkiaren erdira, karrask karrask erre zadien han,
eta bere usain borthitzaz belhe zezan eta geriza etche
guzia.

* * *

Jaun Erreloaren ethean, alhe-leihoak hetsi ziren,
batez bertzeak oro.

Leiho hartan, berina gibelcan, bi chirio handiren er-
dian, supelizetan emana zen aphez karsua, kalerna itsusia
bere arthaldearen ganik urrun igorri beharrez. Eta, bere
bihotz guziarekin, othoitz eta othoitz ari zen, sukarre-
tan, joanago eta kechuago :

« Per signum † crucis, de inimicis † nostris

libera nos, † Deus noster, in nomine Patris, † et Filii

et Spirilus Sancti. Amen.

Credo.....

Kyrie, eleison..... »

Ilhurzuri karraska batek ihardetsi zion, etche guzia ikharetan eman baitzuen.

Izerditan zen orai jaun erreтора :

« Circumdet te, nubes, Deus † Pater..... »

Eta uria heldu zen, phesiaka, Noeren demboran bezala ! Ilhumbearen ilhumbez, deus gehiago ez zen ageri.

« Ipse vobis imperat, daemones..... »

Eta, zinez eta egiazki, iduritu zitzaion aphez gaichoari, gela zoko batelik hirriz norbail adilu zuela..... Izpiritu gaichtoa, segur!....

Kurutzea eskuan, hasi zen orduan :

« Ecce lignum sanctissimæ Crucis, fugite, partes adversæ »

Oren erdi bat bazuen, izerditan hola ari zela. Eta huna, othoitz eder eta borthitzaren azken hitza erraitca- rekin, ikharagarriko karraska bat entzuten dela. Eta haimbertzenarekin, hedoi itsusia urralu zen, uria athertu, eta iguzki hits hils bat doi doia agertu.

Orduan — orhoit zaizte lehenagoko ichtorioa dela hau — orduan, erreтора, dena izerditan, umatua, erhotua ere, lurreraino kurtu zen, bere zapala bal harlu eskuan, eta berinak idekirik, tira-ahala, beso-gainka, zapala hura bola zuen hedoiari buruz, oihu hau, orroa hau ziola :

« To ! zerbait herritik ereman behar da, eremak hau !!! »

.....

Azken burrumba batean, berehala, barreiatu zen hedoi eta ihesari eman, aphez karsuaren zapata, ostikoka ondolik ukhan balu bezala.


Choriak, beren lumak inharrosiz, tiutaka eman ziren, inñarak zerura airatu, athe-leihoak zabaldu, jendeak, alimaleak jauzian kamporatu.....

Bainan debruari emana..... debruak begiralzen :

JAUÑ ERRETORAREN ZAPATA EZ ZUEN NEHORK SEKULAN GEHIAGO IKUSI!!!



Bortu-gaïneau



LOHILAKAT



GAITZEKO gizona zen *Lohilakat*. Orai ehun bat urthe, iguzkiari zagon etche batean, *Jatsu-Lohilakatean* sortua zen, Garaziko herri pollitenetarik batean, *Suhuskuneko* muga mugan.

Haur haurretik, *zain-doblea* agertu zen, pegar eta ferretak, betherik, jostetan zeramazkala, biderik chute-netan bethi lasterka, sekulan hatsantu ere gabe, organik pisuenak bi erhiz aldaratuz, behirik azkarrenak adarretarik zankez geldiaraziz. Haur hotza, mukuzua baizik ez zen oraino, eta belhar-leatchunak behin baino gehiagotan sartzen zituen, chichtuz, belhar-tegi nekeenetan.

Gerochago, mulhiko gazte paregabea egin zenean, Garaziko lau chokoetan, hartaz baizik ez zen mintzo jendea. Testament Zaharra, su-ondoan, behin baino gehiagotan irakurtzen entzuna ere zuelakotz, aitak, egun batez, erran omen zion bere semeari : *Sanson* zena haur bat baizik ez zela haren aldean. Eta, urgulurik balre gabe, semeak sinhetsi zuen bere aita. Eta bertzalde; Sanson zenak bezala, ez othe zuen lepho-gibela, chara beltz bat iduri, alimaleko ile batzuz estalia ? Eta bere bi begi-ondoak, hala hala, Ahunchkiko khardoan pare ez othe ziren eginak, Sansonenak bezal bezala ?

Handik harat, balentriarik handienak egiten zituen, uste gabetarik bezala. Aita, ama, haurrideak, adiechki-deak, zozotuak hari begira zauden demboran, Lohilakal gazteak behako bat ere ez zioten emaiten bere beso zainharteri. Hamabi lagunen mahaina, hortzen artean egun batez altchatu eta kampionaio creman ondoan, baso bat arno galdatzen zuen doi doa....

Aldi batez, *Donianeko* ostaler bat arnoketa ethorri-rik Lohilakateko sоторa, gure Sansonek, hiru ehun pintako barrika hartu zuen bere bi besoetan, bizkarrera berak altchatu, bizkarrean creman athe aintzina, eta, brau, orgetan ezarri. Harritua, sorbalda biribil itzuli omen zen Doniandar ostalera, berrogoi sos gehiago emanik bere arnoarenzat. Ondoko egunetan, ikhare daldaretan oraino, Lohilakateko arnoaren edaleri ba omen zuen zer konda gure gizontloak!

Gizon prestua osoki izana gatik, frango kilika zen bizkitartean, eta, kitzikatu gabe, bere ulitchekin utzi beharra. Ez dakit *Killo* Larresorokoaren ahlak egina othe zion, bainan, bazuen eskualdun makila bat, burdin-haga alimale bat erranen baitzintzen zinez eta egiazki. Makila haren chichtua, Lohilakaten eskuetan! Zuek eta nik, zumea sekulan ez dugu hala erabili, nola Sansonek bere arbola ondoa! Sansonek bezala, lephoko zainetan, lephoko ileetan zuela bere indar guzia! Bai eta esku-muthurretan eta besoetan ere, alafede! Zorigaitz, tokien huster a ez aski goiz ernaturik, makila-palangaren menean egon zireneri! Orduan, *Izurako Daunatuak* bazuen lan, zombait egunez, Lohilakaten makilak hautsi hechurren chuchentzen!..

Hala, hala, noizbait azkenean, makila horrek galdu beharra zen gure gizona!

* * *

Beraz, iragan mendearen erditsutan, mila zortzi, ehun eta berrogoi'ta zortziko Erreboluzione-egunetan

soldado joan nahi ez zirelaketz, Eskualdun gazte andana bat preso altchatu zituzten, eta, merkatu egun batez, Donianen, *Mesaarraineko* plazari gora bazeramaten hetarik multzo bat, gaztelurat buruz. Jendeketa handia bazen han, jandarma eta soldadoeri beha, kirrikan, beren odolako gazteak mañotaturik ikusteak oro suminduak.

Hor, bet betan, presonerretarik batek oihu egiten diote hango jendeeri : « Hel, hel guri! ». Anaiak ez girea, eta ez othe zaizkigute urrikalduko ? »... Kalerna aintzinean gauzak bezala, oro ichilik zauden, esku-muthurrak makileri kurumilkatuak. Soldadoak, zuri zuria eginak, beldurtitzen hasiak, elgarri kontra kontra eman ziren berehala. Bainen, berantegi.. Irrintzina ikharagarri bat aurthikiz, alimaleko gizon bat hantchet zen, soldadoen ondorat jauzi batean jina.. LOHILAKAT eta haren makila! Begien hesteko artean, berrehun makila altchatu ziren, Lohilakatenaren aldean, eta soldadoak kiski kaska ohildurik, Lohilakaten ondotik, irrintzinaka, Garzatar gizonak joan ziren gaztelura, presondegiko alheen chintchikatzerara eta hango bertze presoner guzien libratzerara.. *Darius* zenaren aita Domianeko mera omen bailzen orduan, gauzak chuchendu nahiz jin zitzaioten bidera... Lohilakaten makila kaska batek firrindilaka errekarat aurthiki zion chapela, eta gure jaun mera, lasterka eta chitun, buru-has sartu omen zen bere etchean.

* * *

Gauza ederra bertzez urrikaltzea! bainen, gero zinak eta minak!

Aiphatu asaldura gaitzaren ondotik, deserturrak *Luzaireko* bentetan deskantsatzen ari zirelarik oraino, Lohilakat.. Lohilakateko alhor batean golden ari zen hura, berè bi behi ederren ondotik : « *Behia, be!* » Handik hurbil, beren zaldi haundien gainean jinik, Donianeko lau jandarma, zaldiak keeta edo cheila bati esteka-

turik, Lohilakati ichil ichila beha zauden sasi arte-
tik : « Joanen girea, edo ez girea ? » Eta, bizkilar-
tean gizon debru haren gana joan behar, bertzerik ezin egin !
Hura mañotatu behar.. Mañotatu!.. Lohilakat!

Azkenean, lauak betan, eta chedeerik hoberenak ba-
luzte bezala gogoan, badoazi lerroan, pilpira bat bihot-
zean.. Sabre azantz zerbait entzunik edo bertzela, Lo-
hilakatek altchatzen du burua eta jandarmeri ohartzen
zaiole. Zimurdura bat ere ez zen agertu haren begitar-
tean, begiek dir dir egin zioten bakarrik beren chara beltz ikha-
ragarrian. Eta, orai, deskantsuan, bere eskalapoin
haundiekin, behiak aintzinean bethi akulatuz, jandarmeri
buruz heldu zen Lohilakat.. « *Behia, be !* » .. Segur,
jandarmek nahiagoko zuketela serora edo fraide gaicho
zombait preso hartu, Lohilakaten orde. Bainan, orduan
oraino, ez zen fraiderik, ez serorarik preso hartzen, eta
Lohilakat hartu behar zen beraz.

Bethiko bere golde-hurratsean, jandarmen ondorat
heldu izan zelarik, Lohilakatek, zankez, geldiarazten du
behi pareak : « *Joa, behiak, joa !* » Eta, athorra-mahunkas,
bulhar batzu gaitzak athorra hartarik beltz beltza ageri,
bi beso izigarri golde-nabarraren (1) gider gainean dena
zain eta korropilo emanak, han dute Lohilakat!..

« *Zer nahi duzue ene ganik ?* »

.....
Zerbait erran behar, zerbait erran nahi, eta deusik
ezin erran!.. Azkenean, daldara batean, jandarma ba-
tek erraiten dio.

« *Lohilakatera nahi ginuen..* »

Orduan ikusi zen gauza bat, nihun ikusten ez den beza-
lakoa. Golde-nabarraren gainetik altchatu zen Lohilakat,
bi jandarma bezain handi, *Arradoi* giblean ja elzatera
zoan iguzkia itzaltzen ziotela lau gizon dohakabeeri.
Esku bakhar batez, chuchen chuchena altchatzen du

(1) Golde-nabarra : orduko *adareta*.

golde-nabar pisua, eta, golde-nabar harekin, erhi alimale batekin bezala, erakusten diote Lohilakatea, erranez :

« Horra Lohilakatea!... Eta huna Lohilakal!... Zer behar duzue haren ganik ? » ...

.....


.....

Arrats hartan, Lohilakatean etzan zen oraino Lohilakat, eta bizkar-hezurrean halako ikhare hotz batekin itzuli ziren jandarmak, Lohilakatera zertara joanak ziren Lohilakati erran ere gabe....


Bainan, legeak azken hitza bere behar belhi eta, usle gabelarik edo bertzela, preso altchatu zuten Lohilakat! Zabaltzako zubi mehar batean iragaitearekin, diote Lohilakatek bere bi jandarmak harturik, batto esku bakotchean, manatu ziotela burdinak khien ziozkaten, edo biak aurthikitzen zituela urerat. Bai eta hek zalukara libratu gure gizona!..

Zorigaitzez, azkenean, amor eman behartu zitzaion Lohilakat gaizoari. Eta ordutik hasi ziren haren nahigabeak. Gobernioa, hari eta haren onthasuneri, laparra bezala lothurik, errekan ezarri zuen bere etchalde ederra, eta, orai hogoi'ta bost bat urthe, hiru hogoi eta hamabost urthetan, etchéko-nausi ttipi hil izan zen Lohilakat haundia. Eta behartu zitzaion ez baitzituen zeruko atheak makilarekin hautsi behar ukhan, zeru hartan sartzeko, ezen, aspaldiko urtheetan jada, lege-gizonek khiendua zioten bere makila!

Bainan, zorionez, makilarik gabe sarrarazi omen zuen Jon Doni Petri haundiak, Eskualdun gehienak ohi dituen bezala, eta zuek eta ni, agian, egun batez sarraziko gaituen bezala!



Gerlan hilak diren Aldudarrentzat Orhoitzapena



CHILINTCHA SORGINA



ANDRE MARGAITA, *Etchek-Andrea*.

MARIA, andre Margaitaren *neskatoa*.

ANDRE MARTINA, Margaitaren aspaldiko adichkidea.

(*Barne handi eder-bat. Alheak zola zolun, eta
ere ezker eta eskuin.*)

I

ANDRE MARGAITAK

(*Pidaiaiko puska balzuen biltzen ari dela.*)

Hemengo harat hunatak ikusi eta, iduri luke, urrun, arras urrun, Jainkoak daki norat abian naizela; bainan ez, ez da hor *arte bat* baizik, Maria, ene neskatoari, hedatzen diotan arte bat baizik.

Alabainan, chocho-kume bat banintz bezala, pulliki nere biphiltzen ari da. Behazue bada. Etcheko behar-orduentzat, ilhabete guziz emaiten diozkatan 150 libretarik, apho figura horrek 75 libera *aldarutzen ditu*, —beretzat, erran gabe doa — eta, futchu, ezin goraki erran, ez dudalakotz lan *pullit hortan ari atchemana*! Erranen dautazue, behar bada: « Zertako ez dudan aire berean kamporat igortzen ? » Atch! Hori bertzerik da! On-

gichko mainatzen nau gero! Hamar liberaz pisutua naiz, Maria gure etcheraz geroz. Errakiño batzu egiten dauzkit! Erhi muturrak eta oro milikatzen ditul, mahainean bakarrik naizen aldi guzian.

Eta, bertzalde, egungo egunean, hain neke da sehi baten izaitea!... Zer soldatak ez dituzte behar! Eta kafeñoa egunean hiru lau aldiz, tlottarekin! Eta gakoa, gabaz atheratzeko eta... nahi dutelarik sartzeko! Holakorik bederen ez baitu oraino, nahiago nuke beraz Maria zerbeit ere gisaz korreitu, chuchendu. Ohointzan doidoia hasi hainitz bezala, hain da *beldurtia* eta *sinheskorra*, hain *izipera*! (*Alheari buruz badoa*) Hots, Maria, heldu zira, bai edo ez?

II

MARIAK

Heldu, heldu... Huna, Andre! (*Eta sarlzen da Maria*)

ANDRE MARGAITAK

Zato, bederen ene azken azken manuen entzulerat...

MARIAK

Andrea ez ahal doa bertze mundurat?

ANDRE MARGAITAK

Ez aldi huntan, ez, oraino! Erran gabe doa, kampoan izanen naizen arle guzian, ene etcheaz izanen duzula artharik handiena, eta, ez duzula deus hautsiko, *bi ilhabethe luzez*!

MARIAK

Bi ilhabethez ?... Zaude deskantsu, Andrea...

ANDRE MARGAITAK

Bi lore untzi hauk arthaturen dibutzu, othoi, gain gaitelik! *Martina*, ene haurreko lagun baten orhoitzapena dut hor, hogoi urthe huntan ikusi ez dutan lagun baten orhoitzapena. (*Chapela emaiten du buruan*).

MARIAK.

Hogoi urthe ?... Erran behar litzaioke Andrearen ikuslerat ethor dadien Donianerat. Lorientuko da choko pulit huntan. Zokoa, Bordagain, Santa-Barbara, Larrune, Azkaine, eta Doniane... *pétit Paris*... Hoik oro badira gero zerbeit!

ANDRE MARGAITAK

Bai, zera! Ameriketan da eta nere adichkidea... eta batre ez dakit zein hiritan! Bertzalde, nehorri ere maiz aski tokiz aldaratu naiz!...

MARIAK.

Beraz... bi mendik elgar atchewan lirote behar bada, bainan ez zuek!... Jainkoak bere lorian duela, bainan hoi nere amatchi zenari ikasia nion.

ANDRE MARGAITAK

Behazue horri!... Hots! Banaiz, oraintchet ; bana... luna gakoak.

MARIAK

Ez ordean oro ! Eta gambara ttikikoa ?

ANDRE MARGAITAK

Ah ! hura eremaiten dut... Nehork ez du han sartu behar sekulan.

MARIAK

Ai ei ai ! Zer othe da han ? *Lumina* zembeiten *manka* (1) michteriozkoa, behar bada ! Izitzen ere naiz. !...

ANDRE MARGAITAK

Ez, Maria, ez ; ene arbasoetarik heldu zautan gauza bat dut han, *michteriozko ahal eta indarra* duen gauza bat.

MARIAK

Michteriozko ahala ? ...

ANDRE MARGAITAK

Ba, kobrezko *chilintcha* ttiki bat, hori horia urheztatua, hari hurbil, gezur bat erraiten edo egintza gaichto zerbeit egiten delarik, bere baitharik jotzen abiatzen den *chilintcha* bat.

MARIAK

He ? Nola ? Jotzen ? Gezur bat erraiten delarik ? ... Hoi *chilintcha*, hatik ! ... Zerbeitcho gostaia ere ahal da...

(1) *Manka* : Eskualdun *aska* handi berezia.

ANDRE MARGAITAK (*Orenari behalzen dio*).

Bortz orenak! Treina huts eginen dut, hola hemen ego-
nez. Adio, Maria, banao, eta ikus arte!

MARIAK

Ikus arte, Andrea, eta pidaia on! (*Andre Margaila badao*)

III

MARIAK (*Bakarrik delarik orai*).

Azkenean joan da! Uste ez banuen hementxe! gel-
ditzen zitzautala! Ederki atchemana izanen bainintzen!
Behazue ba, haren egon tokia, etche hau, bi ilhabetherent-
zat hitzeman diot emazteki gisako eta bere osasun ahu-
laren hazkartzearen beharretan den bati... Lauetan hogoi
libera ilhabethcan izanen baititut! Lau hogoi libera ez
dire ez gero piko baten azpian atchemailen!

Eta, bertzalde, etchearentzat ere ez ditekete kalte; ez
da bederen mutziluko, nehor hemen egon ez baladi egin
litekete bezala... Bainan, non dago bada ene emaztekit-
toa? Bortz orenetako ethorri beharra zen; jaustea hobeko
dut, baratzeko atletik sarrarazteko. (*Badao ezkerreko
aldetik*).

IV

ANDRE MARGAITAK

(*Eskuinetik sartzen dela brichlakoan eta zango puntlen
gainean*).

Segur ene pidaia ez dela biziki luzea izan! Doi doia
korporat joaiteko eta eskaler tikitik hugarat igaiteko
arte... Nere etcherat itzulua naizenaz geroz, eian, orai,
zer egin behar dudan? Zuhurrari... zuhur eta erdi,

erraiten ohi den bezala! Maria ethorriko baita hunara, eta segur, berotarik eginen baitu, irri egin behar dugu, gaur oraino! Gordeko naiz horehettoko gambara hortan, eta hartte batetarik, ederkichko denak ikusiren ditut. — To, to!... Cho! Norbait heldu! Mintzo aldiz, nor? ... Maria!... Ez da beraz bakarrik... Orai, orai jostetak! Laster ene gordagailural.

(*Ezker ilzaltzen da Andre Margaita*).

V

MARIA eta ANDRE MARTINA

(*Elgarrekin sartzen direla*)

MARIAK

Sar zaitte, sar, Andrea; huna beraz emaiten ahal dautzutan egon tokia.

ANDRE MARTINAK (*orori behatzen diotela*)

Arras nik behar bezalakoa da eta!... Diozu jabeak utzi zaituela, niri zerebeit asterentzat emaiterat?

MARIAK

Segurki, Andrea... Utzi, eta nola utzi? Jainkoaren lorian oraino! (*Chilintcha michleriozkog jo eta jo huna haslen dela*) — (*Jendeeri:*) Ai! Zeruia!... *Chilintcha!*... Churtehuri bat bezembat daldarctan nago! Bainen, ihardoki behar dut, eta deusik ez irakusterat eman.

ANDRE MARTINAK

Bainen, jo ez dute? Norbeit bada heraz hemen?

MARIAK

Ez, gataa ari bide zen sokarekin jostetan (*Chilintchak jotzen du berriz*). (*Ahapetik*) Oh! zer da sorginkeria hau!

ANDRE MARTINAK

Huna. berehal berehala, bertogoi libera, hitzeman erresak.

MARIAK

Gisakoago ez ditekete izan, Andrea! (*Chilintcha berriz! oraino*). Chilintcha berriz! Debruek creman balezate!

ANDRE MARTINAK

Chilintcha nardagarria, egiazki!

MARIAK

Zaude deskantsu, ez zaitu luzaz nardaturen! Ikusten duzu; huna, hemen, barne tiki pullit bat (*eskuineko athea erakusten diola*.) Hemen, aldiz, ezkerrean, erran ba-dezakel: *aldatei tiki bal...* horra zertako gakoiz hetsia dudan... (*Berriz ere chilintcha*). (*Ahapetik*) Chilintcha madarikatua! Mila pusketan emaiten ahal bahindut!...

ANDRE MARTINAK

Ongi da. Eta orai, ez zintezke joan, krakadarentzat behar nituzken bi ogi-olaten bilha? Bertze deuseren beharrik ez nuke, ezen udare eta sagar zembait baditut, hor, ene zakuan... Orizu, huna dirua.

MARIAK

Zerbitzari, Andrea. (*Otharre bal haritzen du*).

ANDRE MARTINAK

(Gibelez Mariari dagola, bere zaku likilik atheratzen ditu udare eta sagar batzu ederrak, eta, batre gibelerak behatu gabe, mahain ezkinean ematen ditu oro).

Dugun ikus eian lehertuak, chirtchi-frikatuak diren ?
Ez ; beharrik !

MARIAK (*Ahapetik*)

Oh ! hoik udare ederrak, hoik sagar ederrak !

(Ela Andre Martinak eman gráu, hura bulre oharlu gabe, Mariak, mahain ezkinean hartu udareak sartzen ditu bizkar giblean gordetzen duen olharrean. Bainan, gibelelik, orduan berean, Andre Margaila elchek-Andreak, idekitzen du bere alhea, eta Maria deuseri ohartzen ez delarik, udare hek berak bederazka hartzen diozka olharrelik, eta gero... badoa, ichil-ichila).

ANDRE MARTINAK (*Mariaren ganal ilzulirik*)

Jar banindadi pitta bat ? Bideak unhatua ere nau, karrosarik ez zelakotz nerelako, Donianeko garan edo gelditokian.

MARIAK

(*Behalzen diola bere olharreari*)

Oh !

ANDRE MARGAITAK

Zer bada ?

MARIAK (*Zuri zuria egina*)

Deusik ez, Andrea ! Zure olaten bilha noa. (*Ahapetik :*)
Segur, sorginak badirela etche huntan ! (*Badoa*).

VI

ANDRE MARTINAK (*bakarririk dela orai*)

Azkenean beraz, huna ni Donianerat heldua!... Ez da goitchehi! Pichka bat deskantsatuko ahal naiz!... Badere, aisian eman behar naiz!... (*Bere chapela, bere gaineko soina ematen ditu aldeko kadera balen gainean*). Ez da gero batre gaizki toki hau!... eta iduritzen zaut ongichko izanen naizela hemen! Dugun ikus bertze barne ttikia; hau baino ere pullitagoa behar da izan. (*Badoa eskuinetik*).

VII

ANDRE MARGAITAK

(*Ezkerretik, ichil ichila, heldu dela*).

Eian egia nionez! Ene etchearen bertzeeri emaiterat atrebitu dela!... Eta nori? Arrotz bati... jende tresna zembeiti, behar bada... Oh! bainan, ongi atchewan behar dut, oraiko huntan!... Arrotzaren soinekoa eta chapela huna non diren... Jauntzi behar ditut... (*Erran bezala egilen du berehala, eta gero, zeiarika bezala jaritzen da, ezker aire. Haimbertzenarekin huna sarlzen dela Maria, bi olata eskuan*).

VIII

ANDRE MARGAITA eta MARIA

MARIAK

Huna olatak, Andrea... Badakizu gero, enekin, hiltz erdi bat aski dela, behar denaren berehala nik egiteko.

Eta, orai, non ematen dut mahaina, hemen, ala jateko salan ? (*Etchek-Andrea ichil ichila dago*) Gorra othe da ene emaztekittoa ? Gorago eginen diot oihu. Andrea ! (*Andre Margaila belhi ichilik*). Eup ! Andrea ! Bainan zer du bada hunek ? izitzen nau ! (*Sorbaldan jotzen duela* :) Alditchartua bazare, erran diezadazut... Hots, ez zozokeriarik... edo banoa laguntza galdez !...

ANDRE MARGAITAK

(*Maria ganal ilzullzen dela*)

Debaldetan liteke, ezen, hobeki naiz orai...

MARIAK

Oh ! Jainko zerukoa ! Nere Etchek-andrea !... Zu zarela hor ! (*Ahuspez emailen da*) Ah ! galdua naiz. Urrikal ! urrikal zakizkit, othoi ! (*Chuliturik, Etchek-Andreak kadira ganean emailen dilu berriz Andre Martinaren soineko-puskak*).

IX

ANDRE MARGAITA, MARIA ETA ANDRE MARTINA

ANDRE MARTINAK (*laslerrez heldu dela*)

Zer da ? Zer da ?

MARIAK

Da, dohakabe bat naizela ! Barka, othoi, barka !

ANDRE MARGAITAK

(*Andre Martinari behatzen dio, eta berehala oihu handi balean :*)

Ah ! Martina, ene Martina maitea !

ANDRE MARTINAK (*Oihu handi-bat harek ere*)

Oh ! Margaita ! (*Eta elgarri musuka lotzen dira biak*).

ANDRE MARGAITAK

Zu, nere etchean !... Hemen atchewan behar zintudala, hogoi urtheren buruan ! Zer atsegina neretzat, Martina ! Zerbeit zerbeit badukegu gaur, elgarri kondatzeko !

ANDRE MARTINAK

Nik uste, Margaita ! Bainan, nork erranen zuen sekulan, norapeit behar, eta zure etcherat chuchen chuchena ethorriko nintzela gaur !...

MARTAK

(*Chutiturik, eta erdi ahalke, erdi ozarrean*)

Ba, eta nori esker mirakuilu hori ? ...

ANDRE MARGAITAK

He ? ... Nori esker ? ... Ori, hala hala da ... Zuri esker. Eta kaporat aire berean igorri behar zinduzkedarik, horra zertako barkatzen dautzudan.

Bizkitartean, hartu berrogoi liberak itzulatzu lehenik. Higuin litake bertzela... Eta, hemendik harat, bethi

agian entzunen duzu Jainkoak zure baitan emana duen *chilintcha michteriozkoaren boza*, zure kontzientziaren boza, *gaizkia, gaizki dela* erranen baitaulzu, eta *ongia* eginaraziren.


MARIAK

Oh! bai, alafede! Huna bi besoak!... Eta, Jainkoak laguntzen nauela, atchikiren dut nere hitza... Milesker, Andreak, eta ongi bihotzelik oraino! Nere ohointzak, nere gezurrak utzirik, Jainko hortaz orhoitu nahi naiz hemendik harat, orai artean egin naizen baino gehiago. Bai, alafede! Huna, berriz ere, nere bi besoak!



TARLEAU DE JULIAN TELLACHE

Lekeitio'tar arrantzari bat



ESKUALDUNAK EGYPTOAN



EGUERRIKO KONDAIRA

EGUERRI arratsa zen. Haurrak oro aldean eman zitzaizkon, eta huna nola hasi zitzaioten Aitacho:

« — Duela aspaldi, aspaldi, iguzki-aldetik ethorri zen berri handi bat, eta laster hedatu Eskual mendietan: *Mesias*, orok igurikatzen zuten *Salbatzailea* sortu zela han, Betelemen, Jerusalemeko ondoan. Nondik jina berri hori ? Chuchen, nehork ez zakien. Nehork ezagutzen ez zituen gizon eder batzu mendiz mendi ibili ziren, mezu horrekin ; aingeru zombeit, segur ! Gero ! gau eder batez, bethi iguzki aldean, zeru guzia argitzen zuela, izar bat choragarria agertu zen...

Haro bat gailza altchatu zen Eskual-herrian. *Ger-nikan*, *Uztaritzen* biltzarrak egin ziren, eta egun batez, gure arbaso Kantabreek, hor, gogoan hartzen dute: « *Eskualdunen izenean, behar zela norbeit igorri Mesias-Hauraren ganal.* »



Eta erran bezala egin ere zen. Moltsa luzea koka-ahala diruz hampaturik, jatekoz alfotchak, etche-arnoz cha-

hakoak lehertzeko heinean betherik, bideari lothu ziren Eskual-herriko zazpi etcheko jaunik hoberenak.

Bide luzea, izigarria zuten egiteko. Bainen, biderik izigarrienak egundaino izitu othe ditu Eskualdunak ? Eta gero, Salbatzailearen ganat zoazin...

Joan ziren beraz, mendieri gora, ibai handier beheara, Espainian barna. Bide lehar, handi, eder, itsusi, oro luzatuz zoazin heien gibelean. Eta, hala ere, puskaz gehiago gelditzen aintzinean !

Espainiako azken azken mugatik, untziz iragan ziren Afrika beltzera, eta, gero, bidean ez errebelatzeko, leihorrez leihor joan, iguzkiari buruz bethi.

Joan, joan, bethi joan, bainen sekulan ez heltzen ! Gose eta egarri onik jasan zuten bortu izigarri hetan. Bainen orduan, beren Eskual-Herriko kantu-charameletan hasten ziren, eta charamela heien entzuteko, gose gaichtoenaren kurrinka ichiltzen omen zitzaioten sabelean. Moro-beltz, ohoin, basa-ihizi mota guziak maiz ondotik zituzten, arranoak arthaldearen ondotik bezala, inguruka... Bainen, orduan, zazpiak irrintzinaka hasten ziren, eta... kuku lehoinak, ohoinak eta Moroak : sekulakotz harriturik, oro beren ziloetarat itzultzen ziren. Eta bakhar zombeit, fortunaz, soberachko hurbiltzen bazitzaioten, makila eskualdunek chichtu zuten gure etcheko-jaunen ahurrean.

Berriz ere joan, joan, desertuan barna, Egiptoan barna, bertze itsaso bat oraino iraganik, azkenean, heltzen dira Jerusalemara. Sei ilhargi bethe bazuten Eskual-Herritik abiatuak zirela !...

Bainen, zer uste-gabeko nahigabea Jerusalemen ! Andredena Mariarekin eta San Joseferekin, Jerusalemetik Egiptorat ihesi joan berria bide zen Jesus, *Herodes* Izarraren beldurrez !

— « Herodes ozpina ! Hemen izan bagine bederen gure makilañoekin ! Zer chimitchak eta chimichtak hire bizkarrean !... Berroien bizkarra, ez bertzea !... »

Bainan zer balio zuen hola marrumaz artzea?... Jo beraz Egyptora... Eta jin-bidez badoazi berriz Egyptora.

Joan, joan berriz ere, eta, ilhun-nabar gorri batez, basherri batelako etche garbiño batean, berek ongi jakin ere gabe nola, huna non aurkhitzen diren... Jesus-Haurra-
ren aintzinean!

Ama Birjinaren altzoan lo zagon zeru lurren Jainkoa, ja pochi bat handitua, tlarrotua. San Josef, ichil ichila, lanean ari zen bazter batean...

Eskualdun etcheko-jaunak Jesusen ondoan belhauniko jada emanak ziren, egin-ahala polliki. Oi, heien nigar gochoak begietarik behera! Zer *pil pil* gochoa bihotzean! Bideko unhadura eta gal-menak, oro ahantziak ziren orai, han, Jesusen aldean. San Josef, lanetik baratua, ichil ichila bethi, amultsuki beha zagon Eskualdun fede handiko gizon heieri.

Eta huna non Ama Birjinak, hirriño batekin, besoetan emailen dioten, lokhartua oraino dagolarik, Jesus beren Jainko Salbatzailea... Gure arbasoen atsegina orduan! Bihotza erdiratzen zitzaioten, zorionaren zorionez! Han berean choratu ez baitziren! Beharrik da Eskualduna kasko onekoa!...

Haimbertzenarekin, huna non iratzartzen den Jesus, Mariaren besoetarat gure arbasoek berriz itzuli orduko. Eta hirri gocho bat egiten diote berehala: « Hor zaiztea, nere Eskualdun maiteak? Zuen beha nindagon, urthe huntan guzian. Atsegin dut zuek ikusirik, zeren, zuen moldean, Jainko-legeari bethi atchikiak egon zaizten. Zertan dire zuen lagunak, han, Eskual mendi eder hetan? Begira bethi zuen fedea! Eta fedearen begiratzeko, *alchik bethi zuen mintzaira ederra*; atchik ere, fedearen behar-orduetako... zuen *makila* lerdanak. Zoazte, itzul zaizte zuen herrietarat! Bihotzez, eta menderen mendeentzat, benedikatzen ditut nere Eskualdun adich-

kideak. Nere girichtinoetan, hek nahi ditut eta hek izanen dira belhi hoberenak!... »

*
* *

Biharamunean, etcheari buruz eman ziren Eskualdun arbasoak. Bidea labur iduritu zitzaieten gibelerakoan ; alabainan, Jesusen graziez ihaurre heldu ziren.

Eskual-Herrirat noizbeit ethorri zirenean, nork erran Eskualdunen bozkarioa, Jesusen mezu maite handia entzulearekin ? Ordutik, jada, eta Epromatik lehen aphez-pikuak ethorri artean, girichtino eginak ziren lehiaz eta bihotzez.....

Ene iloba maiteak, horra akabo ene kondaira. Jesusen galdegini bezala, atchik zuen mintzaire ederra, zalhu eta garbi atchik ere zuen *makilak* ; Eliza-Ama Saindua, Jesusen fedea, makila horien beharretan izan ditezke, eta behar-bada, guk uste baino lasterrago!... »


*
* *

Eta Eguerriko bere kondaira pollita hola bururatu zuen beraz gure Aitachok.

Eta haurrak, ilobasoak, aho chilara oraino beren Aitatchi onari beha zagozkiolarik, ohartu zen hau, *Pellán*, zaharrenak, sukalde chokoan harturik, linko tinkoa ahurrean zaukala *bere ailaren makila*!...

Eta berehala, piztu, loriatu zitzaion Aitachori bere Eskualdun bihotz maitea.





Kontzientzia eta... Bertza



Hor, ora! duela ainichko urthe, *Suhuskuneri* hurbi-leko *Jalsuar* batek erosia zion bertz bat, pandero bat... gero pagatzekotan.

Bakarrak bazituen hola saldurik *Cinqualbres* Donia-neko Kauter gaizoak, *Chuitotik* eta *Behorlegi* arte hortan! Eta nehor guti heldu pandero heien pagatzera, ordaintzera...

Astelehen guzietako merkatuetara bazoan chuchen, itzuli bat egin beharrez bere zordunen harrotzeko. Bainan Jainkoak haundisko eginik, ez ziteken nahi bezala gorda. Eta gero, — giza gaizoa! — kobrezko bertz gorri bat ez zuen bizkarrean emaiten, bere itzuli-inguruaren egiteko?... Hots, iguzkiak panderoan dir dir eginik edo bertzela, zordun asko brichtez itzaliak ziren eta *Mesaarrainean* sartuak edo *Leonenean*... Arnoa hiru soselan baitzen orduan, orentto batendako hantchet ziren ostatuan, hurrup eta klik, gochara gochatzen; eta gero, Kauteraren bertz gorria merkatutik itzalia zen aspaldi, gure Garaztar ihiziak begiak ñir-ñir, Leonenetik atheratzen zirelarik, makilak herrestan.

Ordutik, zer zuen egitekorik *Cinqualbres* gaizoak?

Ori, zuek eta nik eginen ginuena: athez-athe biltzea Donianeko merkatuan biltzen ez zena.

Eta holachet egiten ere zuen. Mando haundi baten gainerat iganik, bi bertz handi — bide-naar saltzen bazituen ere — aldean emanik, auzo-herrietarat bazoan, hemen gaitzuru bat ogi bil eta hantchet bi gaitzuru artho, bere hartzekoak, pochika pochika, hola kobratuko zituelakoan, *Belliri* zenak bezala.

*
* *

Beraz, egun batez, bere mandoaren gainean, bertze orduz Errege-Magoak beren kameluen gainean bezen chut, bazoan gure Bezkin (1) Kautera, Suhuskuneri buruz. Chochoak chichtuz ari ziren oihanetik, biligarroak ttirittaka mahastietarik, bainan esker guti zuen Kauterak heien charamela guzientzat. Hinkili, hankala, bi-deari gora bazoan *Jan-Petit mandoaren* gainean, bertze biligarrorik non ikusiko zuen erne ernea.

Eta, hain chuchen, hantchet, alhor mehe batean, bi behi tcharren ondotik iraulden ari, ikusten du... bere Jatsuar zorduna, hiru edo lau urthe hartan bertz bat, pandero bat zor diona. Jatsuar maltzurak ere ikusia zuen Bezkin kalamanka, bainan, berea gogoan, alegia eta ez ikusi egin zuen berehala.

« — So mandoa, so!... »

Eta, ogiz eta arthoz, bertz eta bezkinez lehertzeko heinean kargatua ere baitzen, zankez gelditzen da hor mandoa. Eta, Jan-Petiten bizkar gainetik, erdi chuliturik, huna oihuka gure Kautera:

« — Errak, to, hoo!

« — Behia, bee!

« — Errak, to, hi, gizona! Hoo!...

« — Alo, Katzo!

(1) Bezkina: bertz-kina, bertz-egilea.

« — Ez dela hik entzuten ? Heu!...

« — Hots, Gorria, berma hadi ba!

« — Elkorra dela hi egun, Pello!...

« — Haucheuk (1) alimalea!

« — Too! Jautsi behar dela beraz ni mandotik...
Berdin jautsiko dela, ba... »

Izura *Pazientziako* semeak ere amor emanen zuen Bezkin thematsuaren aintzinean, eta amor eman zuen beraz gure Pellok.

« — Joa, behiak, joa! »

Eta eskuak bere akhulu handiaren gainean kurutzaturik, han, urrunchko, alhorraren erdian, Bezkinari beha emaiten da, kopela zimurturik:

« — Zer da ? Zer da ? Zer tuk oihu horiek guziak ?
Berdin likek emekichago arizanik ere...

« — Ihi aise mintzo dela, bana noiz pagatuko dela to, hik, ene bertza ?

« — Bertza pagatuko ? Zer bertza ?

« — Ba, nik hiri saldu dela bertza, eta hik ez dela eni pagatu bertza!...

« — Zer derasak, hire eskuara pollitarekin, *saldu dela bertza, ez dela pagatu bertza* ? Zer tuk elhe tchar horiek? Ala koblaka hasia othe hiz orai, zahartzeari buruz ?

« — Zer! Ez dela orhoitzen bi, nik hiri saldu dela bertza, eta ez dela hik eni pagatu bertza ?

« — To! Bakea emanezadak hire bertzarekin, eta utz nezak ene lanari : ez nuk gero batre elhe gose!...

« — Zer! Ukatzen dela hik, nik hiri saldu dela bertza eta ez dela hik eni pagatu bertza ? ... *Galdu dela beraz hik kontzientzia* ? ...

« — Ba, to, nik *galdu balimbadul kontzientzia*, hik ere hire bertza... Behiak, bee!... »

(1) Hauche duk.

Eta, demontren firrindan emailen da Pello, sist eta
sast bere behien akhulatzen.....

Doi doiak egin zuen, odolak ithorik, ez baitzen hantchel.
Kauler gaizoa bere mandotik erori!...


Pello, irri maltzur batean joana zen jada alhorraren
bertze burura...

* * *

Ditcholaria baizik ez zen gure Jalsuarra, eta ez *ohoina*.
Handik zombait hilabetheren buruan, Cinqualbres zena
erakitzen ontsa utzi ondoan, behi bat bere barruki-
heiatik khendurik, ordaindu zion bere zorra, eta berriz
kolachet bildu zituzten, batek bere *bertza*, eta bertzeak
... bere *kontzienzia*.



Doniane Garazi



Ozkicheko Patarrean



Ez nihaurek hain luze bizitzea igurikatzen dutalakotz, bainan, nere bi aitachoak lil izan dira, batto — amaren aita — *ehua eta sei* urthetan, han Ameriketan, bertzea — aitaren aita — *ehun eta hirur* urthetan, orai aspaldi, Doniane Garazin. Azken aitacho horren ichtorio bat nahi nautzueke erran.

Napoleon handiaren soldado luzaz eta luzaz ibilia zen, Madriletik eta Moscoura, Prusian gaindi. Noizpeit, etcherat itzuli zen beraz, frantses hitz bakar zombait ikasirik, etchetik urruntzean bezen aberats, eta sekulako bizia emaiten ohi duten errezeloak berekin.

Kadera egilea eta torneatzailea bailzen, bere lanari lothu zen berehala, eta hogoi'ta bortz haren kadera eder higatu edo... ez higatu dira Garazi aldean.

Jainkoak hartako zerbeit dohain emanik, eta bere soldadogo luzean zer nahi ikasirik ere, dudarik ez dena, *hezur chuchentzen* bazakien, geroztikako edo-zein *Daunatuk* baino hobeki, beharbada. Merkeenerat ari, orduan orai bezala, sekulako jendea heldu zitzaion beraz, eta orduko Buhameek — oilategietarik jauzi egitean zango bat hautsirik, edo joka-aldietan beso bat makurturik — bazakiten hek ere haren ganat ethortzen. Gure etchean gero, auzo

bat edo biga, *behartuaren* atchikitzerat ekarrarazirik, gar-
rasia bat edo bertze goiti beheiti, begiak hesteko artean,
beren zango besoak chuchentzen ziozkaten Aitachok gu-
re buhamettoeri. Eta, nola, nahi edo ez, buhame horie-
tarik zailenak berak, zuri zuria maiz aldi-chartzen bait-
ziren, Aitachok bazuen bethi heientzat edo arno edo ka-
fe chorta bat ona. Hots, gure Antchiharburutarrak
bazoazin, chuchenduak, sendatuak eta errepichkolatuak,
milesker bat doi doia erranik, bertze oilategi batean,
edo bardin lehenagoko hartan berean berriz zango-besoak
hautsi arte.

Irabazi gutli zuen beraz Aitachok buru hortarik ;
bainan, berehala ikusiko ere dugu bezala, ongi heldu
behar zen oraino, egun batez edo hobeki gau batez,
buhameentzat ona hola izanik.

* * *

Haimbertze demboraz soldado egonik, eta bere jitez
ere, urhea bezen garbiko gizona zen gure Aitacho, eta
zuzena gain gainetik. Asko jende hari zagozin osoki, eta
beren behar-orduetan, hobeagorik ez zuten nahi Donian-
dar jaun handienek.

Beraz, egun batez, hiriko notari batek — uste dut
Michel Fort zenaren aita ziteken — ekarrarazten du
etcherat, eta galdalzen dio, hean, sari on batean truk,
diru puska bat eremanen duen berehala Donianetik eta
Maulerat ?

Gure Aitachok, holakoetan, ez zakien ezetzik erraiten.
Baietz erraiten du beraz, eta jateko zerbeit berekin har-
turik, mizpirazko bere makila pollita eskuan, notariaren
dirua papoan gorderik, bideari lotzen da berehala. Ilhun-
zeinuak ari ziren Donianen, hamar aldiz berak kondalzen
zuen bezala.

Madalenen gaindi. Donazaharren, Lakarran eta Mon-
jolosen gaindi. Lartabale eta Donaichtin barna, bazoan

bethi Aitacho, tink-aldi bat artetan bere chahakoari emanez. Lartzabalen, bide erditsutan, harri-meta baten gainean, ahamen bat jan zuela erraiten zuen geroan.

Gau ilhuna ; ilhargirik ez, ez eta ere izar-arte ederrik. Donazaharretik harat, arima bat ez zuen kausitu bide luze hartan guzian. Han hemenka, argi bakhar batzu, bazter-etche zombeitetan ; zakur erausi frango, non nahi, ilhumbean.

Gau-erdi oren batean, dena izerdi, han zen, Ozkicheko patarraren kaskorat heldua. San Antonioko kaperaren parrean othoitz labur bat eginik, laster orai heldua zilekelakoan loriatua, hurratsa luzatuz, gochokiago hatsaz baliatuz, patar aiphatuari behera hartu zuen, Muskuldirat buruz.

Bethi bardin ilhun zen bizkitartean, eta Aitacho bazoan, zangoak non finkatzen zituen ikusi ere gabe.

Bat batean, bihurtune batetara heltzearekin, han, eskuineko aldean, su handi handi bati ohartzen da, eta, bidearen gainean gelditzerat egiten du...

Tenore hartan, bortu gain hetan, zer ditekete su handi hura ? Ez da bada primadera, larre-otheari orai su emaitleko ! Eta, gero, ez da hori haizeak akhulatu behar duen sua... lokiaren gainean argitzen du... Eta horra bidea ageri non den, suari arras hurbil... Baitezpada handik iragan behar!...

Haimbertzenarekin, iduritzen zaio suaren ondoan mamu batzu harat-hunat badabiltzala. Jendeak, segur... Bainan, zer jende ? Deus onik ez !

Zer egin ?... Gibelerat egin baleza ?... Bainan, Maulerat joaittekotz, ez du gibelerat egiterik !... Eta gero, gibelerat egin ? Norat othe ?... Bertzalde, buruan hartzen du : harek jende hek bezala, jende hek hura ikusia dutela, hala hala, aditua ere beharbada, mendiari behera tampa tampa deskantsuz heldu zelarik. Ondotik hor dituzke ichtantean, eta galdua da orduan...

Hil edo bizi, aintzina joaittea du beraz, eta, san Anto-

niori berriz othoitz bat eginik, badoa aintzina, eta gauaz beldurti gehienak bezala, ikare bat bozean, kantaz ari da Aitacho :

« *Salbalore gora da Garazi aldian,
Ni ere han ninduzun, iragan aslian ;
Debozione gabe, bai, sentoralian,
Nere lagun guziak han baitziradian...* »

Bizkitartean, suaren ondoan etzanik zauden mamnetarik bizpahiru chutitu dire, eta, gauza horren beha ere zagon bezala, bidcari buruz heldu ikusten ditu gure Attittok...

Gogorarena egin nahiz bethi, bainan zer kantatzen zuen gehiago jakin gabe, bazoan, bazoan, bethi aintzina :

« *Bortietan artzain'la, ez deizten ardirik,
Unsa jan, edan, eta egin lo zabalik,...
Mundian ez ahal da ni bezain urusik,
Ez nuke segur nahi bizitze hoberik* », ...

Bide-bazterrean, ichil ichila, suntsitu bezala dira orai bizpahiru mamuak...

Aitacho, engoitik zer nahitara *deliberatua*, erhi muthurak bere makilari josiak, heldu zen, kantuz bethi... Lehen aldia othe du bizpahiru gizon ikusten dituela bere makilaren buruan ? Eta, hiru, lau, bost eta gehiago Otrichiano edo Ruso ez othe ditu behin ere orroaz ereman bere aintzinean ? Ikusiko du beraz, bide eginaraziko ez othe duen gaur ere. Maulerat buruz gero laster egiteko ? Zangoak on ditu oraino, Jainkoari esker. Eta kantuz bethi badoa Aitacho...

Bat-batean, bide-bazterrean kokorikatu gizonetarik bat aditzen du, bere laguneri erdi goratik ari:

« Manech duk hori, Manech Donianekoa...

— « Ba othe ?

— « Ilura bera... »

Bihotza phizten jada hasia zuen Attittok, eta haimbertzenarekin, hamar hurratsetan, makila handi bat eskuan, bidearen gainerat jauzian heldu da gizon alimale bat, oihuka :

« Zu zira, hor, Manech, Manech Donianekoa ?

— Ba, eta, nor zaizte zuek, niri hola biderat atheratzeko ?

— Beñat Antchicharburukoa eta haren bi lagun, Zato aintzina, deskantsuan... »

Bere makilañoa linkiago oraino atchikiz, begiak erne, hurbildu zen Attitto... Eta Beñatek egia zion, Hiru Antchicharburutar baziren han, bide guzia hartzen zutela orai, Jainkoak badaki zer chedetan ethorriak.

« Zu hemen, Manech, Ozkichen, eta tenore huntan ? Berri tcharrez ?

— Batre, Beñat, Goiz huntako Maulerat behar, adiskide batekin hola hitzartu bezala.

— Adichkide batekin ? ... Hots, ditakena da. Eta gero, ez da hoi gure egitekoa, eta, Manech Donianekoari sobera zor diogu nere lagunek eta nik, haren egitekoetan sekula gu sartzeko. Hortan dagola gure solasa... Zato, Manech, gurekin ahamen baten jatera eta gure arnotik chorta baten edatera : ez dauzkitzugu hala ere zure etchean guk jan eta edanak ordainduko... »

Su handiari buruz joan ziren beraz lauak, eta harat heltzean, Beñatek han gelditu gizon eta emaztekieri erran zioten, Manech Doniandarra bazkaltiar nola heldu zitzaizioten.

Eta, gogoaren kontra bazen ere, Attillori hantxet jarri behartu zitzaion, buhame heien guzien erdian. Inguru inguru, gaitzeko ahari bat, oso osorik erretzen ari zuten su-garraren gainean, laster gero garbitu baitzuten ororen artean. Nondik harat ekharri aharia ? Nondik, hala hala, ahariaren iraganarazteko edan zuten ar-

noa ?... Ez zitzaion, geroan, holakorik galdatu behar gure Aitachori !

Ongi jan eta edan ondoan, Attitto chutitu zelarik, chutitu zen ere Beñat :

« Ez zitezke hola bakarrik joan Maulera ; ez liteke zuhurtzia eta Antchicharburuko Beñatez bertzerik kausitzen áhal zinduke bide hortan... Pidaia on, Manech, eta ikus arte. Gure hemengo bi gizonak segituko zaituzte Mauleraíno. »

.....

Eta, Beñatek erran bezala, bi buhame beltzen erdian urrundu zen Attitto. Ozkicheko patarrari beheiti, Muskuldira buruz. *Gain-gaineko* herri polliterat heltzean, argi urratzea zuten ; lehen oilarrak kukurukuka hasiak ziren, eta gibelerat orduan bakarrik itzuli ziren gure Aitachoren lekaioak !...

Biharamunean, bera zen etcherat itzultzen, Donianelik Maulera eta Mauletik Donianera, joan jina... *bost liberarendako* eginik !... Dembora edo garai hetan, dendariak baziren etchean, *bi sos eta janean truk* !...

P. S. — Ehun urthe bazituen jada gure Attittok, noiz eta ere, — nere ustez, *Lebrun* zenaren demboran — Napoleón hirugarrenaren Prefet bat *Erreformaz* etorri baitzen Donianerat. Solasean elgarrekin ari zirelarik, bat batean, Prefetak galdegin zion merari, Lebrun zenari : hean hazenez oraino, Donianen, Napoleón handiaren soldadotarik bat edo bertze ? — Baietz erran zion Lebrun zenak, bainan, ehun bat urthe jasanez, ezinduchea zela puchka bat. — « Atsegin nuke halere haren ikustea ».

Joan zen beraz, edo hobeki ereman zuten Aitacho herriko-etcherat, Prefetaren aintzinerara ; eta berehala, eskua tinkatzen ziola, hasi zitzaion hau galdeka :

« — Napoleon Handiaren soldadoa izana zaitut horetan ?

— Ba jauna.

— Eta non ibilia zare harekin ?

— Jauna, errechago liteke harekin non ez naizen ibili erraitea. Otrichian, Prusian jeneral *Moreauren* segi, Rusian jeneral *Ney*-ekin, Belgikan, Frantzian, eta nik ongi dakita non oraino...

— Eta holako itzuliak erabilirik, zer sari eman dautzute egundaino ?

— Sent-Helengo medaila bat doi doia.

— Sent-Helengo medaila bat baizik ez ?... Nola bada, jaun mera, ahantzia izan da orai arte holako soldado zaharra ?... »

Eta bultza bat gogoetetan egonik, lau hogoi liberako urhe sakelarik alheratu zituen Prefetak eta Aitachori eman ahurrerat, ziolarik :


« Bertzerik ez dut orai zuri emateko, gizagaichoa. Bainen, bizi zaite luzaz oraino, eta Jainkoak nahi badu, urthe oroz bertze haimbertze izanen ditutzu... »

Behin edo bietan altxatu zituen Aitachok bere urhetloak, eta gero, Napoleon handiaren ganat joan zen, Sent-Helengo medaila guri utzirik, eta medaila horrekin, char maite maite baten orhoitzapenik gochoena.





Azkainen ; Soldado Hilari, Orhoilzapentzat.



Bi Makila Bidean



*Merkatutik etchera, ilhun-nabarrean,
Zintzurra legundurik arno-nafarrean,
Irrintzinaka noa, makila airean!...*

(J. B.)

ETCHÉ-ALDE, irrintzinaka heldu zen Sarasketa *Biamunteko Piarre*, irrintzinaka eta makila firrindilaka.. «Ai, ui, ui!»... Astelehena zen, Donianeko merkatu-arratsa. Gizon gazte ona zen Piarre, eta adichkide ainitz bazuelakotz ere, Mesaarrainean, Dolinenean eta Leonenean lehenik, Lechakaren etxean gero Izpuran, Madalenen berantehago, Donazarre-Maiderrenean azkenik bost baso arno edanik, bazoan orai Antchicharburuko patarrari gora, irrintzinaka belhi, eta makila firrindilaka!

Ah! Makila hura! Azkonzabaleko mizpira legun eta chuchen chuchen batelarik egina! Makila hura sahel-sean ez othe ere zen sorthua? Berak ongi bazakiena? Zer nahi den, ohiko kantuan bezala, *lehen hurralsak ziluén egin munduan, amak lagunduz, bainan...* makila

eskuan! Eta geroztik, badul uste bere itzala lehenago galduko zuen Piarrek, bere makila galduko zuen baino, ezen, haur lehar bat oraino zelarik, aitarek makila behar zuen jaunak eskuetan... lokartzeko!

Aitak berak irakatsi zion makila hartaz baliatzen. Frantchoa zenak, Duzunaitzeko erreter sainduak ez ziozkan *hiru michlerio printzipalak* buruan oraino sarrazten ahal, eta Piarrek, jadanik, bere aitari ikasirik, bazakien : makila saheska emanik, bere buruaren gerizatzen ; azpitik goiti, chimichtaren pare, makila haren firurikan orabiltzen ; gainetik beheiti, makila harekin, marroaren kopeta porroskatuko zuen kolpearen emaiten.

Horiek oro bazakizkan, eta nola zakizkan! Hots, makilkari bat egin zen izigarria, nehor nihun ez baitzitzaion, borroka-alde bat harekin egin beharrez, gogo-kontra baizik atheratzen.

Behin bizkitartean, gauaz, Antehieharburuko gaztenaondo handien artean, zokorik ihunenean, gizon bat jali zitzaion, jautsian, biderat... Oren laurden batez arizan ziren, elgar ezin garraituz, elgarren bethekoak biak!... Oren laurden baten buruan, boneta begietaraino sarturik, chamarrarekin bere burua kukaturik urundu zen... *aila*, semea nausi utzirik, han, Antehieharburuko oihanean! Hiltzerakoan bakarrik aithortu zion hori bere semeari : « *Egundaino nehorik ez ziakan joan, ordu arte. Nahi nikan ikusi, hire aila bezambat bahintzanez. Ikusi nikan, eta nere gostuz sinhelsi, aipatu ere ez bailuk, sekulan, arrats hartako gure gudu izigarria!...* »

.....

Irrintzinaka bazoan beraz Piarre Biamuntekoa...

* *

Eta horra non, han nombait, Ahatsako bidean, bertze irrintzina bat eraikitzen den samina...

Nakero Mendibekoa zoan, irrintzinaka hura ere, Do-

nazaharre - Donamartiako mindeian harat. Echkerranean eta Burugorrienean papoaren berotzen egonik, Donianeko merkatutik heldu. Nola huts egin zuten olgar Piarrek eta Nakerok?... Ori, Maiderrenean Piarre sarturik, Burugorrienean Nakero sartzen ari zelarik... Pfarre bezala, makila onaren jabea... Nakero hoi, Salvatore gain hetan pikatu mizpira batetarik egin makila zaluaren jabea. Eta makila harek zer chichtuak, Nakeroren eskuan!. Aitaren ganik ikasia harek ere bere mizpira adarraren zirurikatzen...

Egun batez — hogoi urthe zituen, orduan — *kask* eta *kask*, bigarren ukaldian berean lurrerat aurtihiki zuen bere partida, ezpainak idekirik, odoletan. Aita han zuen, bi hurratsetan, hari beha, eta hari oihuka : « Zer zizte, ba, oraiko gazteak ? Lehenago, guk, erroz gora *lehen* ukaldian aurtihikitzen ginian gure gizona!... *Paulo* Ezteren-zubikoari galdegizok, ez denez hori egia ?! »

Geroztik, bigarren ukaldi guti eman zuen gure Nakero, deuseren eta nehoren beldur ez baitzen sekulan. Eta, behin baino gehiagotan, Burdin-Kurutchetan, Irati-Sorhon gaindi, oihanez oihan bere behien ondolik zabilalarik, zombait zombait otso erabili zuen bere makilaren aintzinean, Aburretako edo Larrañeko potchetan harat, Betelemen David Erregeak, erregetu aintzinean bezala! Bainan, erregetzeaz bertzerik bazuen gaur Nakero gogoan, eta irrintzinaka bazoan beraz, Ahatsako bidean...

Eta hunia non, han nombait, Aphot-Ospitaleko kasko hartan, entzuten duen irrintzina bat gaitza!... « Ah! baia!... Ai, ui, ui! ai, ui! » eta, zankez itzulirik, gibelerrat egin zuen Nakero, Donazaharrerat buruz...

*
* *

Piarre, Maiderreneko alderat heldu zen hura ere, zaparlaka, bertze irrintzinalariaren ganat. « Ai, ui, ui! ai, ui! »

Lehenagoko mendeetan, dena oihan zelarik Eskual-Herria, hola hola elgar bilatzen ohi zuten orduko Eskualdunek, menditik mendira, bortutik bortura... Eta Ameriketako oihanetan, *gauchoeri* lazta bat sartzen diotela hezur-muntetan, lehoia, *puma* eta *tigreak*, orroaz, marumaz, urrunetik lehenik, hurbiletik gero, bata bortzeari hola jazartzen dira, gaurko egunean oraino...

Bi gizonak, bizkitartean, elgarri buruz heldu ziren, izigarriko oldarrean, fur-furia ikaragarrian, *Eskualdunen belhiko oihu lazgarria batek bertzeari zeren zion aurtiki, gau ilhunean* :

« Ai, ui, ui !

— Ai, ui, ui ! »

.....

Elgarren ganik hogoi hurratsetan ziren, eta heien makilek, chiehtuka, dir dir egiten zuten. Ikaragarri zen, baina ikaragarriagoa behar zen berehala...

« Ai, ui, ui ! ai, ui !

— Achut !

— Haugi bide-erdi !... »

Eta, makilak gora ahurrean, hamar hurratsetan, bost hurratsetan, hiru hurratsetan dira orai, eta, hor, chiehta batean, makila ikaragarriak elgarretaratzen dira !

Bainan, haimbertzenarekin, eta bet-betan, jauzi batean, elgarretarik urruntzen dira bi gizonak :

« Zu zirela, Nakero ? !... »

— Ba, eta zu ere hor, Piarro ? !... »

— Debruen bisaia !... »

— Zertako ?

— Nahia goko bainuen bertze bat izan bazina !

— Alta, nik ere, hala hala !... »

Eta ichil ichila han zauden, Donazaharreko jauregiari hurbil, errege-bidearen gainean chutik, beren makilak lurrean finkaturik, makilen gainean eskuak aztaparka kurutzaturik... Eta, hala hala, aspaldiko, edo — ho-

beki erraiteko — bethjiko adichkideak ziren Ñakero eta Piarre, eta elgarren beldurrez edo bertzela, egundaino bat bertzeari lotzerat ez ziren oraino alrebitu.

Eta, ezti ezti, huna non hasten den Piarre :

« Errazu, Ñakero ?

— Zer ?

— Huntaraz geroz, bertze batzu bagine bezala egin bagindeza ?...

— Hori bera nuen gogoan eta, Piarre!...

— Bazirea, beraz ?

— Ba, Piarre, eta gogotik!... »

.....

Eta, hantchet, gehiagokorik gabe, makilka berehala hasi ziren Garaziko bi makilkari hoberenak ; chirti-chartaka lehenik, elgarren aztatzeko eta miatzeko bezala ; azkarkiago gero, eskuen berotzeko. Eta, erran gabe doana, heien chirti-chartek berek, zuek eta ni bezalakako gizona lehen ukaldian chirtchikatuko zuten ! Hek, irriz ari ziren !...

« Zer makila duzuna, Piarre !

— Zer esku-muthurak eta ukasia, zure makilaren buruan, Ñakero ! »

Eta orai, irri churi bat ezpainetan, etche-ogi garbia jaten duten hortz eder batzu kirrikan, ari ziren, ari !... Arradoiko harria bi zati eginen zuen heien ukaldiak, eta bardin Arrolanen-Harria Itsasun ! Nork erran du : erhoturik, egun batez, ezpata eskuan, *Olivier*, bere adichkide hoberenari lothu zela *Arrolan* hoi ? Ba, nork kondatu du, heien soldadoak oro, harriturik, baxteretik beha egon zirela, guduak ziraueno, bi adichkideen artean sartzerat nehor ezin menturatuz ? Ez dakit, bainan, niri iduri, ez *Olivier*ik, ez *Arrolan*ik, nehor sekulan ez dela gudukatu, Piarre eta Ñakero gau harlan gudukatu diren fur-furiarekin...

Heien bien ukaldiek... *jendea* zuten bilatzen, bainan... *makila* baizik ez kausitzen sekulan!... Ezker, eskuin,

gainetik, azpitik, saheska, chuchenean ala zeiaika, nihun ozin lotkiarik atzeman!... *Haaa!* orroaz heien bulhar-rak, ukaldia emaiten, oihanean haizkolarienak bezala! *Fiu, fiu!* chichtuka aldiz heien makilak!... Eta gero, *kask*, doi doiako amor ttipiena gabe, makilak makila koskatzean...

Oren laurden hartan hola ari ziren, lokiaren gainean; hurrats batez, zehe batez elgarren ganik baztertu ez-paitziren ephe luze hartan guzian! Izerditan biak, baina, bethi berdin trempuan; eta lehembiziko zarrasta edo azlaparkatzerik arinena elgarri oraino egitekoa!...

« Brien ariña, oraikoan, hatik, atzemaiter nuzu, Piarre!

— Ez dakit, *Ñakero*, berantchegi ez nizanez bethi jeikiren hortako...

— Baditake, Piarre... Errazu, Piarre? » eta, hori erraiten, idi bat puskatuko zuen ukaldia ekartzen dio Piarreri...

— « Zer duzu, *Ñakero*? » eta, bere makila han zuen orduko Piarrrek, *Ñakeroren* makilari trebes emana, burdin palanga bezen bihurri...

— « Oren-erdi huntan egin ez duguna, nola eginen dugu oren baten buruan?... Berdin ahul orduan, ala berdin azkar orai, ez othe da *bethi berdin izailea*? Elgarren neurrikoak girela, ez othe dugu erakutsi, Piarre? Joan baginte biak... Mainerreneat?... »


— Goazen Mainerreneat, *Ñakero*... Egarritua ere niz bulta huntan... »

Eta, sorgin ichtorioetan Zafra-Maria-Zafra makila bezala, orduan bakarrik, eta solas hoik oro bi adiehkideek elgarri erranik, orduan ahaldu ziren eta gelditu Piarre eta *Ñakeroren* makilak!!!...

* * *

Esku-gibelaz, doi doia chukatu zuten kopeta gure bi Garaztarrek, eta, — ilhargia irriz heieri gain hartarik zagola — barneko motcha sorbaldari beheiti, *makilak herrestan* joan ziren Mainerreneat...

.....



SUPAZTER CHOKOAN



AIREA: *Haurrak ikhasazue eskuaraz mintzalzen...*

1

Oi neguko arratsak, supazter chokoan,
Chiehtuka ari dela haizea kampoan,
Atheak hetsirikan, suaren ondoan,
Elgarri kontra oro, sukalde beroan!

2

Elhurra zirurikan jausten da zerutik,
Uria chorta-chorta, teilatu gainetik ;
Arima herratuak intzirez kampoetik,
Berotzera jin nahiz leihoen artetik!...

3

Azantz bakar bat ez da kampoan ageri...
Churiko ber bera da erausika ari...
Zorigaitz, arrats huntan mendian denari,
Tanpa, tanpa bakarrik gauaz doanari!

4

Zer gochoa beraz, gaur, gure etcheñoan,
Kampoan hotz bezembat gochoño barnean!
Esne lodi kaikuan, chingar gerrenean,
Gaztenak *pimp* paderan, arno goporrean!

5

Aitatto, jarririkan bere zizeluan,
Pafa pafa ari da pipa bat ahoan ;
Aita, erne ernea, kanita eskuan,
Chitchuketan eman da supazter chokoan.

6

Othoitz bat egin eta, huna afaria ;
Erregek ere ez du gure janharia ;
Bakotchak berak hartzen bere izaria,
Sototik ekarririk mama on gorria.

7

Harat hunat badoha gure ama ona,
Erlea kofoinean iduria dena ;
Zer ama deraukuna Jainkoak emana,
Erregina batentzat sal ez gindiona !

8

Bere gophor esnea lorian husturik,
Amacho hasi zauku, khiloa harturik,
Phiru phiru iruten, ezpainak bustirik,
Erhi luze batzutan ichtup'itzulirik.

9

Haurrak oro orduan, Amachoren gana,
Lerro lerro doatza, sem'atchi lehena,
Lausengaka, oihuka : « Oi, Amatchi ona,
Ichtorio bat, othoi ; zure pollitena ? »

10

Aitattok berriz dauka pipa ezpainetan,
Aitak ere kanita bere eskuetan....
Amatto, irriño bat ageri hortzetan,
Pulliki hasia da chahar konderetan :

11

« Berlz'orduz bazen beraz bele bal zaharra ;
« Hegal bal zuen luze, berlzea laburra...
« Hegalño hau ezpaliz izan hoinen charra,
« Kondera izanen zen luzeago, haurra! »

12

Haur gaichoak tokian dira loharkatu,
Ottia su-ondoan ari, dena kantu ;
Arrachin mukuzua emeki da hurtu,
Attitto, pip'errerik, intzirez chutitu.

13


« Hots, haurrak, othoitzean eman gaiten denak,
« Izpiritu gaichtoa urrunt dezan Jaunak ;
« Kampoan kanta beza haize gaichtoenak,
« Ez gira deusen beldur gaur hemen gaudenak! »

.....
.....
Oi neguko arratsak, supazter chokoan,
Chichtuka ari dela haizea kampoan,
Atheak hetsirikan, suaren ondoan,
Elgarri kontra oro, sukalde beroan!

J. BARBIER.

Semperen, 1925^{eko} Buruilan.





AURKIBIDEA



AINTZIN-SOLASA.....	v
Zikito Azpia (Lehenagoko kondaira).....	1
Larrondo Guardaren kurutzea.....	5
Ampallalzerai...Martin ?.....	9
Eguerriko Kondaira.....	13
Kausarak (do Kruchpelak).....	17
Pello Zapalaina.....	29
Bolua, Bolu.....	33
Alkate-Jauna.....	37
Piarresen Gallzak.....	41
Gaicho Piarres.....	45
Gauden Eskualdun.....	51
Tabako Tizana.....	63
Chintchimariak.....	67
Bederalzigarren asloa.....	71
Zubietako Debrua.....	75
Choane Milrero.....	93
Choane eta Chaneta.....	97
Ireksi Hortzak ?.....	101
Sorginak.....	105
Tori Drago bal.....	129
Phedeiku bal Pottila.....	133
Ezkila Charnatua.....	137
Jaun Erreitoraren Zapala.....	141
Lohilakal.....	145
Chilintcha Sorgina.....	151
Eskualdunak Egiptoan.....	163
Kontzientzia eta... Bertza.....	167
Oskicheko Palarrean.....	171
Bi Mahila bidean.....	179
Supazler Chokoa.....	185



Zombeit huts Chuchentzekoak



- p. 6, 18-1 : *igan*, eta ez *gan*.
- p. 14, azken bi lerrotan : *balean hasien*, eta ez *baleanh asten*.
- p. 103, 4^o 1 : *itzaltzearekin*, eta ez *izaltzearekin*.
- p. 116, 26-1 : *probetchu*, eta ez *pobelchu*.
- p. 123, azken lerroetan : *zineztelarik*, eta ez *zineztalarik*.
- p. 130, behe-re behe-rean : *murdukatzen*, eta ez *murdukalsen*.
- p. 141, gain gainean : *Zapata*, eta ez *Zapalak*.



Achevé d'Imprimer
le trente Décembre mil neuf cent vingt-cinq
par
l'Imprimerie du "COURRIER"
9, Rue Jacques-Laffitte
BAYONNE







